



Akta honen osagarri, bilkurako irudiak eta audioa grabatu dira.
Honako hau da ondoriozko artxiboaren identifikazio kodea:

1c73646b698e77d68d361341af1d16f2ba0c286e57023649f02ecad655078ed8

Lotura honetan dago: <https://udala.tolosa.eus/eu/zerbitzuak/idazkaritza/udal-plenoetako-aktak>

TOLOSAKO UDALBATZAK 2021EKO URRIAREN 28AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA

2021.10.28

Tolosako udaletxean, 2021eko urriaren hogeita zortzian, 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udaltzatza bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Olatz Peon Ormazabal izan da, eta gai-zerrenda aztertzeko, udal batzarkide hauek agertu dira:

Alkate-lehendakaria:

Olatz Peon Ormazabal (EAJ-PNV)

Parte hartu duten zinegotziak:

Begoña Tolosa Mendia (EAJ-PNV)
Nerea Letamendia Belloso (EAJ-PNV)
Jose Francisco Amantegi Zubiria (EAJ-PNV)
Joseba Koldo Ormazabal Lopez (EAJ-PNV)
Egoitz Sorozabal Iturain (EAJ-PNV)
Xabier Balerdi Tolosa (EAJ-PNV)
Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe (EAJ-PNV)
Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui (EH BILDU)
Kristina Pelaez Errazkin (EH BILDU)
Ander Figuerido Zubiria (EH BILDU)
Aitana Amondarain Esquisabel (EH BILDU)
Aitzol Garcia Azurmendi (EH BILDU)
Olatz Artola Apezteguia (EH BILDU)
Garbiñe Marzol Ormazabal (EH BILDU)
Xabier Martinez Quinquilla (EH BILDU)
Jose M^a Villanueva Telleria (PSE-EE)

Jarduneko idazkaria:

Karmele Contreras Goikoetxea

Jarduneko kontuhartzailea:

Paulino Alonso Eraso



Gai-zerrenda

1. Ondorengo akta hau onartzea:
2021eko irailaren 30eko ohiko osoko bilkurakoa.
2. Hasierako onarpena ematea 2021eko dirulaguntzen eranskina aldatzeko proposamenari, 4-2021.
3. Tolosako Udalaren 2020-2022ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa aldatzeko proposamena.
4. Hasierako onarpena ematea udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 8/2021 espedienteari.
5. 2022. urterako taxien tarifak onartzea.
6. Ertzaintza eta Udaltzaingoa elkarlanean aritzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren (Segurtasun Sailaren bitartez) eta Tolosako Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena onartzea.
7. Hasierako onarpena ematea Gobernantza, Partaidetza eta Gardentasun Ordenantzari.
8. Tolosako hiri-ekonomia indarberritzeko dirulaguntza-programa arautzen duen ordenantza: erreklamazioak erantzutea, zuzenketak ofizioz egitea eta Ordenantza behin betiko onartzea.
9. Zinegotzi baten kargu uztearen jakitun izatea.
10. Kreditu aldaketa honen berri ematea:
2021/1755 Alkatetza Dekretua, 7/2021 kreditu aldaketarako espedienteari dagokiona.
11. Kreditu aldaketa honen berri ematea:
2021/1751 Alkatetza Dekretua, 9/2021 kreditu aldaketarako espedienteari dagokiona.
12. Mozioa: Energia horniduraren prezioen gorakadaren aurrean hartzeko neurrien inguruan.
13. Mozioa: Migraziorako Euskal Itun Soziala.
14. Galderak eta eskaerak.



Alkateak adierazi du gai zerrendako 9. puntua mozioen ondoren tratatuko dela.

Ondoren, batzarkideek bilkurako gai-zerrendari heldu diote.

Alkate-lehendakariak batzarrari hasiera eman dio gai hauek aztertzeko:

1. ONDORENGO AKTA HAU ONARTZEA: 2021EKO IRAILAREN 30EKO OHIKO OSOKO BILKURAKOA.

Izenburuan aipatutako akta aho batez onartu dute.

2. HASIERAKO ONARPENA EMATEA 2021EKO DIRULAGUNTZEN ERANSKINA ALDATZEKO PROPOSAMENARI, 4-2021.

Antolakuntzako batzorde informatiboaren 2021eko urriaren 20ko irizpena

2021eko dirulaguntzen eranskinean, honako aldaketa hau sartzea proposatu da:

Partida	Onuraduna	Helburua	Behin betiko aurrekontua 2021	Mota
1000.481.01.341.00	EUSKADIKO HERRI KIROL FEDERAKUNDEA	Aizkora txapelketa	12.000 €	Izenduna
1100.481.01.430.00	LABPAPER TOLOSA	Paper sektoreari lotutako lanbide-heziketaren berrikuntza sustatzea	10.000 €	Izenduna
1300.481.01.172.00	BEDAIOKO KULTUR ELKARTEA ARTUBI	Landa auzoetako festa eta jarduerak 2020	3.100 €	Izenduna
1300.481.01.172.00	ALURTXIKI AUZO ELKARTEA	Landa auzoetako festa eta jarduerak 2020	6.000 €	Izenduna

Gaia azertu ondoren, bozkatu egin dute eta emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Garbiñe Marzol Ormazabal, Kristina Pelaez Errazkin, Ander Figuerido Zubiria eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Hori dela eta, Batzordeak

DIKTAMINATU DU

Lehena.- Dirulaguntzen eranskinaren aldaketa hauei hasierako onarpena ematea eta, eranskina honela uztea:



Partida	Onuraduna	Helburua	Behin betiko aurrekontua 2021	Mota
1000.481.01.341.00	EUSKADIKO HERRI KIROL FEDERAKUNDEA	Aizkora txapelketa	12.000 €	Izenduna
1100.481.01.430.00	LABPAPER TOLOSA	Paper sektoreari lotutako lanbide-heziketaren berrikuntza sustatzea	10.000 €	Izenduna
1300.481.01.172.00	BEDAIOKO KULTUR ELKARTEA ARTUBI	Landa auzoetako festa eta jarduerak 2020	3.100 €	Izenduna
1300.481.01.172.00	ALURTXIKI AUZO ELKARTEA	Landa auzoetako festa eta jarduerak 2020	6.000 €	Izenduna

Bigarrena.- Osoko Bilkuraren hasierako onarpenaren ondoren, 2021eko dirulaguntza eranskinaren aldaketa, hamabost laneguneko epean, jendaurrean jartzea. Horretarako, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, udaletxeko iragarki taulan jartzea, interesatuek erreklamazioak jar ditzaten. Epe barruan erreklamazio edo alegaziorik aurkezten ez bada, aipatutako aldaketa behin betiko onartutzat hartuko da.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** hasierako onarpena ematea 2021eko dirulaguntzen eranskinaren aldaketari: 4-2021.

3. TOLOSAKO UDALAREN 2020-2022KO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ALDATZEKO PROPOSAMENA.

Antolakuntzako batzorde informatiboaren 2021eko urriaren 20ko irizpena

2020-2022ko Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoan bi lerro berri sartzeko proposamena jaso da.



Dirulaguntza lerroa: 5.10.- Ezohiko kirol ikuskizunak eta urteurren bereziak.

Eskumen arloa	KIROLA
Sektore hartzaileak	Irabazi asmorik gabeko erakunde eta enpresak (publiko zein pribatuak)
Helburuak	Tolosako Udalaren eta irabazi asmorik gabeko erakundeen arteko lankidetzaz hitzarmenak gauzatzea, Tolosan ezohiko kirol ikuskizunak eta urteurren bereziei lotutako ikuskizunak egiteko.
Lortu nahi diren ondorioak	Tolosako Udalak hitzarmen hauek gauzatu eta lortu nahi duen helburua zera da, herritarrentzako eta Tolosarako interes publiko eta sozialeko kirol ikuskizunak antolatzea, eta herri kirola hauspotu eta haren garrantzia azpimarratzea
Egikaritze epea	Zehaztu gabe
Kostuak eta finantzaketa iturriak	Kirol Saileko dirulaguntzen aurrekontuetatik finantzatuko da, zehazki, 1000.481.01.34100 partidatik. Finantzaketa funts propioekin egiten da.
Ekintza Plana	Udal aurrekontua onartu ondoren, bi alderdiek hitzarmen bat sinatuko dute eta dirulaguntza izendun modura formalizatuko da. Laguntza ordainketa bakarren egingo da, eta horretarako, aurretik, Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean aurreikusitako moduan justifikatuko da, antolatzaileak kontuen justifikazioa aurkeztu beharko du eta ontzat eman beharko da.
Jarraipena eta ebaluazioa (adierazleak)	<ul style="list-style-type: none"> • Beharrezko hornidurak • Instalazioaren erabilera gastuak • Zerbitzu medikoak • Epaileak • Hizlariak • Aseguruak • Sariak

Partida	Onuraduna	Azalpena	Kopurua	Mota	Indarreko planean aurreikusia
1000.481.01.34100	Irabazi asmorik gabeko erakundeak	Ezohiko kirol ikuskizunak eta urteurren bereziak	12.000 €	Izenduna	24.000 €

ESKU8dabecf2-1577-452e-a39d-1677d4f37c08



Dirulaguntza lerroa: 6.11.-Paper sektoreari lotutako lanbide heziketaren berrikuntza sustatzea

Eskumen arloa	Garapen Ekonomikoa eta Enplegua
Sektore hartzaileak	Lab-Paper Tolosa-Don Bosco Paper Eskolako Elkartea.
Helburua	<ul style="list-style-type: none"> - Paperaren sektore ekonomikoan eragiteko, arlo horretako lanbide-heziketan berrikuntza proiektuak sustatzea. - Paperaren sektoreari lotutako ikasketa-prozesuetan, ezagutzaren transmisioan eta ondarearen mantentzean laguntzea, dual formazioari babesa emanez.
Lortu nahi diren ondorioak	Kontuan izanda Tolosak eta paper sektoreak historikoki duten harreman estua, eta gaur egun paperak hartu duen garrantzia, ezinbestekoa da sektore hau sostengatzea eta garatzea, berrikuntza proiektu desberdinak egikaritzeko eta ikasketa- eta enplegu-esparru berriak irekitzeko.
Egikaritze epea	Zehaztu gabe
Kostuak eta finantzaketa iturriak	Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi. Finantzarioa funts propioekin egiten da.
Ekintza Plana	Udal aurrekontua onartu ostean, dirulaguntza izenduna hitzarmena bidez gauzatuko da, Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean xedatutakoaren arabera. Udalak egindako lanaren jarraipena egingo du, eta kontu zuriketa egin ondoren, Udalak elkarteari ekarpena egingo dio hitzarmenean sinatutako baldintzen arabera.
Jarraipena eta ebaluazioa	<ul style="list-style-type: none"> - Gauzatutako proiektu berritzaile kopurua. - Elkarlanean aritutako enpresa kopurua. - Banatutako dirulaguntza kopurua.

PARTIDA	ONURADUNA	AZALPENA	KOPURUA	MOTA	INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA
1100.481.01.430.00	Lab-Paper Tolosa-Don Bosco Paper Eskola indartzeko Elkartea	Paper sektoreari lotutako lanbide heziketan berrikuntza sustatzea	10.000 €	Izenduna	10.000 €



Dirulaguntzen plan estrategikoa aldatzearen justifikazioa 38/2003 Legearen 8. artikuluan oinarritzen da; baita Lege hori garatzen duen Dirulaguntzei buruzko Legearen Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 10. artikuluan eta ondorengoetan ere.

Arautegiaren arabera, dirulaguntza bat ezarri aurretik, dagokion lerroa dirulaguntzen plan estrategikoan sartu behar da.

Indar arautzailerik ez duenez, nahikoa izango da aldaketa hau indarrean sartzeko erabakia hartzea eta aldaketaren testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketak onartzeko eskumena duen organoa Osoko Bilkura da, Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak 6. artikuluan jasotzen duenaren arabera.

Gaia azertu ondoren, bozkatu egin dute eta emaitza hau izan da:

Xabier Balerdi Tolosa (EAJ): Aldeko botoa
Begoña Tolosa Mendia (EAJ): Aldeko botoa
Nerea Letamendia Beloso (EAJ): Aldeko botoa
Garbiñe Marzol Ormazabal (EH Bildu): Aldeko botoa
Kristina Pelaez Errazkin (EH Bildu): Aldeko botoa
Ander Figuerido Zubiria (EH Bildu): Aldeko botoa
Jose Mari Villanueva Telleria (PSE-EE): Aldeko botoa

Hori dela eta, Batzordeak hau

DIKTAMINATU DU

Lehena.- 2020-2022 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan ondorengo dirulaguntza lerro hauek sartzea:



Dirulaguntza lerroa: 5.10.- Ezohiko kirol ikuskizunak eta urteurren bereziak.

Eskumen arloa	KIROLA
Sektore hartzaileak	Irabazi asmorik gabeko erakunde eta enpresak (publiko zein pribatuak)
Helburuak	Tolosako Udalaren eta irabazi asmorik gabeko erakundeen arteko lankidetzaz hitzarmenak gauzatzea, Tolosan ezohiko kirol ikuskizunak eta urteurren bereziei lotutako ikuskizunak egiteko.
Lortu nahi diren ondorioak	Tolosako Udalak hitzarmen hauek gauzatu eta lortu nahi duen helburua zera da, herritarrentzako eta Tolosarako interes publiko eta sozialeko kirol ikuskizunak antolatzea, eta herri kirola hauspotu eta haren garrantzia azpimarratzea.
Egikaritze epea	Zehaztu gabe
Kostuak eta finantzaketa iturriak	Kirol Saileko dirulaguntzen aurrekontuetatik finantzatuko da, zehazki, 1000.481.01.34100 partidatik. Finantzaketa funts propioekin egiten da.
Ekintza Plana	Udal aurrekontua onartu ondoren, bi alderdiek hitzarmen bat sinatuko dute eta dirulaguntza izendun modura formalizatuko da. Laguntza ordainketa bakarren emango da, Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean aurreikusitako moduan justifikatuko da, antolatzaileak kontuen justifikazioa aurkeztu beharko du eta ontzat eman beharko da.
Jarraipena eta ebaluazioa (adierazleak)	<ul style="list-style-type: none"> • Beharrezko hornidurak • Instalazioaren erabilera gastuak • Zerbitzu medikoak. • Epaileak • Hizlariak • Aseguruak • Sariak

Partida	Onuraduna	Azalpena	Kopurua	Mota	Indarreko planean aurreikusia
1000.481.01.34100	Irabazi asmorik gabeko erakundeak	Ezohiko kirol ikuskizunak eta urteurren bereziak	12.000 €	Izenduna	24.000 €



Dirulaguntza lerroa: 6.11.-Paper sektoreari lotutako lanbide heziketaren berrikuntza sustatzea

Eskumen arloa	Garapen Ekonomikoa eta Enplegua
Sektore hartzaileak	Lab-Paper Tolosa-Don Bosco Paper Eskolako Elkartea.
Helburua	<ul style="list-style-type: none"> - Paperaren sektore ekonomikoan eragiteko, arlo horretako lanbide-heziketan berrikuntza proiektuak sustatzea. - Paperaren sektoreari lotutako ikasketa-prozesuetan, ezagutzaren transmisioan eta ondarearen mantentzean laguntzea, dual formazioari babesa emanez.
Lortu nahi diren ondorioak	Kontuan izanda Tolosak eta paper sektoreak historikoki duten harreman estua, eta gaur egun paperak hartu duen garrantzia, ezinbestekoa da sektore hau sostengatzea eta garatzea, berrikuntza proiektu desberdinak egikaritzeko eta ikasketa- eta enplegu-esparru berriak irekitzeko.
Egikaritze epea	Zehaztu gabe
Kostuak eta finantzaketa iturriak	Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi. Finantzarioa funts propioekin egiten da.
Ekintza Plana	Udal aurrekontua onartu ostean, dirulaguntza izenduna hitzarmena bidez gauzatuko da, Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean xedatutakoaren arabera. Udalak egindako lanaren jarraipena egingo du, eta kontu zuriketa egin ondoren, Udalak elkarteari ekarpena egingo dio hitzarmenean sinatutako baldintzen arabera.
Jarraipena eta ebaluazioa	<ul style="list-style-type: none"> - Gauzatutako proiektu berritzaile kopurua. - Elkarlanean aritutako enpresa kopurua. - Banatutako dirulaguntza kopurua.

PARTIDA	ONURADUNA	AZALPENA	KOPURUA	MOTA	INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA
1100.481.01.430.00	Lab-Paper Tolosa-Don Bosco Paper Eskola indartzeko Elkarteari	Paper sektoreari lotutako lanbide-heziketaren berrikuntza sustatzea	10.000 €	Izenduna	10.000 €

Bigarrena.- Osoko Bilkuraren onarpenaren ondoren, erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:



Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du 2020-2022 Tolosako Udaleko dirulaguntzen plan estrategikoaren aldaketa.

4. HASIERAKO ONARPENA EMATEA UDAL HONEN AURREKONTUKO KREDITUAK ALDATZEKO 8/2021 ESPEDIENTEARI.

Antolakuntzako batzorde informatiboaren 2021eko urriaren 20ko irizpena

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko, kreditu gehigarrien modalitateko 8/2021 espedientearen berri eman da.

Hau da proposamena:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 1000.481.01.341.00 2021	IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAK. KIROLAREN SU	299.800,00	12.000,00	311.800,00
1 1100.481.01.430.00 2021	DIRULAGUNTZAK. GARAPEN EKONOMIKOA	20.000,00	10.000,00	30.000,00
1 1300.481.01.172.00 2021	IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAK. INGURUMENA	29.700,00	9.100,00	38.800,00
GUZTIRA		349.500,00	31.100,00	380.600,00

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 870.01 2021	ALTXORTEKIKO GERAKINA	31.100,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			31.100,00

ESKU8dabecf2-1577-452e-a39d-1677d4f37c08



Kontu-hartzaileak egindako txostena aztertu da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Gaia aztertu ondoren, bozkatu egin da, eta emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Beloso, Garbiñe Marzol Ormazabal, Kristina Pelaez Errazkin, Ander Figuerido Zubiria eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Hori dela eta, Batzordeak

DIKTAMINATU DU

Lehenengoa.- Hasierako onarpena ematea udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 8/2021 espedienteari, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, eta kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	31.100,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		31.100,00

FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
8	FINANTZA AKTIBOAK	31.100,00
GUZTIRA		31.100,00



Bigarrena.- Hasierako onarpenaren ondoren, espedientea jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Horretarako, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, udaletxeko iragarki taulan jarriko da. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **hasierako onarpena eman dio** 8/2021 Kreditu aldaketarako espedienteari, kreditu gehigarrien modalitatekoari.

5. 2022. URTERAKO TAXIEN TARIFAK ONARTZEA.

Antolakuntzako batzorde informatiboaren 2021eko urriaren 20ko irizpena

Agitax, Gipuzkoako Taxisten Elkarteak, 2022rako Tolosaldeko taxi tarifen proposamena aurkeztu zuen Tolosaldea Garatzen, SAn.

Lehiberri Zentroan, 2021eko irailaren 30ean, Tolosaldeko Taxiaren Jardunbide Bereziko Zonaldeko ordezkariak bildu ziren Agitax taxi elkarteak 2022. urterako aurkeztutako tarifa proposamenak aztertzeko.

Proposamenean eskatu dute, datorren urteko tarifak kalkulatzeko, aurtengoei % 2ko igoera aplikatzeko.

Aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, honako hau erabaki zuten bildutako ordezkariak:

a) 2022 urterako 2021 urteko tarifei % 2ko igoera aplikatzea.

b) Ondorioz, 2022ko taxi tarifak honela geldituko lirateke:

1- I Tarifa (lanegunetan 07etatik 22etara):

Gutxieneko tarifa: 4,3176 euro

Kilometroko: 1,0600 euro

Itxarote ordua: 19,2193 euro

2- II Tarifa (egunero 22etatik 07etara, eta larunbat, igande eta tokiko araudiak araututako jaiegunetan, 07etatik 22etara):



Gutxienero tarifa: 4,8727 euro
Kilometroko: 1,6124 euro
Itxarote ordua: 28,3109 euro

Gaia aztertu ondoren, bozkatu egin da, eta emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Garbiñe Marzol Ormazabal, Kristina Pelaez Errazkin, Ander Figuerido Zubiria eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Hori dela eta, Batzordeak

DIKTAMINATU DU

Lehen: Tolosaldeko Taxiaren Jardunbide Bereziko Zonaldeko ordezkariak egindako proposamena onartzea, eta horren arabera, 2022 urterako, 2021 urteko taxi tarifei % 2ko igoera aplikatzea. Honela geldituko dira tarifak:

I Tarifa (lanegunetan 07etatik 22etara):

Gutxienero tarifa: 4,3176 euro
Kilometroko: 1,0600 euro
Itxarote ordua: 19,2193 euro

II Tarifa (egunero 22etatik 07etara, eta larunbat, igande eta tokiko araudiak araututako jaiegunetan, 07etatik 22etara):

Gutxienero tarifa: 4,8727 euro
Kilometroko: 1,6124 euro
Itxarote ordua: 28,3109 euro

Bigarrena: Erabakia Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailari bidaltzea

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, udalbatzak aho batez **onartu** ditu 2022. urterako taxien tarifak.



6. ERTZAINZA ETA UDALZAINGOA ELKARLANEAN ARITZEKO, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN (SEGURTASUN SAILAREN BITARTEZ) ETA TOLOSAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA ONARTZEA.

Antolakuntzako batzorde informatiboaren 2021eko urriaren 20ko irizpena

Aurrekariak:

Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren arteko lankidetzaren eta elkarlana bultzatzeko xedearekin, hitzarmena onartzea da helburua. Izan ere, hitzarmenean, lankidetzaren eta elkarlanerako moduak eta prozedurak arautuko dira. Lurraldean erabil daitezkeen polizia baliabideak optimizatzeko eta herritarren segurtasun publikoaren beharrei zerbitzu hobea emateko.

Araubide juridikoa:

-Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeko ekainaren 28ko 15/2012 Legea (42 eta hurrengo artikulua). Izan ere, artikulua horien arabera, besteak beste, bi polizia indar horiek elkarri laguntza eta informazioa emateko beharra dute. Biek erabiltzeko komunikazio sare bat sortu eta mantentzera derrigortuta daude; baita komunikazio zentralen interkonexioa erraztera ere.

Aipatutako legearen 44. artikulua polizia lankidetzarako hitzarmenak sistematizatzen ditu, eta izan litzaketen edukiak ezartzen ditu.

-Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8.1.b) artikulua. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8.1.b) artikulua arabera, ekonomikoki edo aurrekontuetan eragina duten hitzarmen sinatuen zerrenda argitaratu beharko du Udalak, alderdi sinatzaileak, xedea, iraupen-epea, egindako aldaketak eta, hala badagokio, hitzartutako betebeharrak ekonomikoak aipatuta.

-Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legea, apirilaren 7koa (1. eta 4. artikulua). Era berean, 9. eta 10. artikulua.

- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legea, urriaren 1koa (47-53 artikulua).

47-49 artikulua: "Hitzarmenak dira ondorio juridikodun akordio batzuk, administrazio publikoek, haiei lotutako edo haien mendeko organismo publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek edo unibertsitate publikoek beren artean edo zuzenbide pribatuko subjektuekin sinatuak, xede komun bat lortze aldera.

Ez dira hitzarmentzat hartzen jarduketako protokolo orokorrak edo antzeko tresnak, baldin eta eduki orokorreko asmoen deklarazio hutsak badakartzate edo administrazioek eta alderdi sinatzaileek helburu komun batekin jarduteko duten borondatea azaltzen badute, betiere haien ondorioz ez bada konpromiso juridiko zehatz eta eskatzeko



modukorik formalizatzen.

Hitzarmenek ezingo dute xedetzat hartu kontratuen berezko prestazioak. Xede hori hartuz gero, haien izaera eta araubide juridikoa sektore publikoko kontratuen legerian aurreikusita dagoenari lotu beharko zaizkio.

2. Administrazio publikoek, haiei lotutako edo haien mendeko organismo publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek eta unibertsitate publikoek sinatzen dituzten hitzarmenak honako mota hauetariko batekoak izango dira:

a) Administrazio publiko biren edo gehiagoren artean sinatutako administrazio arteko hitzarmenak, edo administrazio publiko diferenteei lotutako edo haien mendeko organismo publiko edo zuzenbide publikoko entitate biren edo gehiagoren artean sinatutakoak.

Hitzarmen horien barnean bildu ahalko da beste administrazio publiko baten edo lotutako edo mendeko organismo publiko edo zuzenbide publikoko entitate baten bitarteko, zerbitzu eta baliabideak erabiltzea, eskumen propioak edo delegatuak baliatzeko.

Salbuetsita geratzen dira autonomia-erkidego bik edo gehiagok zerbitzu propioak kudeatu eta emateko euren artean sinatzen dituzten administrazio arteko hitzarmenak, autonomia bakoitzaren estatutuak xedatzen duena izango baitute arau hipotesi, betekizun eta baldintzei dagokienez.

b) Administrazio publiko berari lotutako edo haren mendeko organismo publikoen eta zuzenbide publikoko entitateen artean sinatutako administrazio barneko hitzarmenak.

c) Administrazio publiko edo zuzenbide publikoko organismo edo entitate baten eta zuzenbide pribatuko subjektu baten artean sinatutako hitzarmenak.

d) Nazioarteko tratatu, nazioarteko administrazio-akordio edo nazioarteko akordio araugintzaz bestelako ez diren hitzarmenak, administrazio publikoen eta nazioarteko zuzenbideko subjektu bateko organo, organismo publiko edo enteen artean sinatuak, alderdiek zehaztutako barne-ordenamendu juridikoaren mende egongo baitira.

48. artikulua. Hitzarmenen baliozkotasun- eta efikazia-baldintzak.

“1. Administrazio publikoek, haiei lotutako edo haien mendeko organismo publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek eta unibertsitate publikoek, zeinek bere eskumenen barruan, hitzarmenak sinatu ahalko dituzte zuzenbide publikoko eta pribatuko subjektuekin, baina horrek ezin du ekarri eskumenaren titulartasuna lagatzea.

2. Estatuaren Administrazio Orokorraren eta hari lotutako edo haren mendeko organismo publikoen eta zuzenbide publikoko entitateen esparruan, hitzarmenak egin ahalko dituzte ministerio-departamentuetako titularrek eta entitate eta organismo publiko horietako buru edo zuzendariek.

3. Hitzarmenak sinatuz kudeaketa publikoaren efizientzia hobetu beharko da,



bitarteko eta zerbitzu publikoen baterako erabilera erraztu, erabilgarritasun publikoko jarduerak egin daitezten lagundu, eta aurrekontu-egonkortasunerako eta finantza-jasangarritasunerako legeria bete.

4. Hitzarmen batek barnean hartzen dituen finantza-konpromisoak hura sinatu duen administrazio publikoarentzat edo hari lotutako edo haren mendeko organismo publiko edo zuzenbide publikoko entitateetako edozeinentzat, aurrekontu-legerian xedatuta dagoena bete beharko da hitzarmen horren ondoriozko gastuekin eta hitzarmen horren arabera konprometitutako funtsekin zerikusia duten kudeaketan, justifikazioan eta gainerako jarduketetan.

5. Finantza-konpromisoak barnean hartzen dituzten hitzarmenek jasangarri behar dute finantzen aldetik, eta sinatzaileek gaitasuna izan beharko dute beren gain hartutakoak finantzatzeko hitzarmenak dirauen bitartean.

6. Sinatzaileek finantza-ekarpenak egiteko konpromisoa hartu badute, ekarpen horiek ezingo dira handiagoak izan hitzarmena betearaztearen ondoriozko gastuak baino.

7. Hitzarmenak diru-laguntza bat bideratzen badu, Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta, hala badagokio, aplikatu beharreko autonomia-erkidegoko garapen-araudian aurreikusita dagoena bete beharko du.

Halaber, hitzarmenaren xedea toki-erakunde bati eskumenak delegatzea bada, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean xedatuta dagoena bete beharko du.

8. Alderdiek adostasuna emanaz burutzen dira hitzarmenak.

Estatuaren Administrazio Orokorrek edo hari lotutako edo haren mendeko organismo publikoetako batek edo zuzenbide publikoko entitateetako batek sinatutako hitzarmenak efikazak izango dira hitzarmen horiek Estatuko sektore publikoko Lankidetzako Organo eta Tresnen Estatuko Erregistro Elektronikoa –zazpigarren xedapen gehigarrian aipatzen baita– inskribatu eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren. Aldez aurretik, eta aukeran, beste administrazio sinatzaileari dagokion autonomia-erkidegoko edo probintziako aldizkari ofizialean argitaratu ahalko dira.

9. Kapitulu honetako arauak ez zaizkie aplikatuko kudeaketa-gomendioei eta administrazio-prozedurak hitzarmen bidez amaitzeko akordioei.

49. artikulua. Hitzarmenen edukia.

Aurreko artikuluko 1. zenbakian aipatzen diren hitzarmenek barnean hartu beharko dituzte gai hauek, gutxienez:

- a) Hitzarmena sinatzen duten subjektuak, eta alderdietako bakoitzak zer gaitasun juridikorekin jarduten duen.
- b) Zer eskumenetan oinarritzen den administrazio publikoaren, hari lotutako edo haren mendeko organismo publikoen eta zuzenbide publikoko entitateen edo unibertsitate publikoen jarduketa.
- c) Hitzarmenaren xedea eta subjektu bakoitzak hura betetzeko egin beharreko jarduketak, lortutako emaitzen titulartasuna azalduta, hala badagokio.
- d) Alderdietako bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak.



ekonomikoak, halakorik badago; haien urtekako denbora-banaketa adierazi beharko da, bai eta dagokion aurrekontuari zehazki egotziko zaiona ere, aurrekontu-legeriak xedatu duenaren arabera.

e) Alderdietako bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoen ez betetzeari aplikatu beharreko ondorioak, eta, hala badagokio, ez betetzetik ondoriozta daitezkeen kalte-ordaina zehazteko irizpideak.

f) Jarraipen, zaintza eta kontrolerako mekanismoak, hitzarmenaren betearazpenari eta sinatzaileek beren gain hartutako konpromisoari aplikatzekoak. Mekanismo horrek ebatziko ditu hitzarmenak direla eta planteatu daitezkeen interpretazio- eta betetze-arazoak.

g) Hitzarmena aldatzeko araubidea. Arau espresurik ez badago, sinatzaileen ahobatezko erabakia beharko da hitzarmenaren edukia aldatzeko.

h) Hitzarmenaren indarraldia, honako erregela hauek kontuan hartuta:

1.a Hitzarmenak iraunaldi zehaztua izan beharko dute, gehienez ere lau urtekoa, non eta epe luzeagoa aurreikusten ez den arau bidez.

2.a Aurreko zenbakian aurreikusitako epea amaitu aurretik edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahalko dute hitzarmena luzatzea, gehienez beste lau urterako, edo hitzarmena azkentzea.

Estatuaren Administrazio Orokorra edo haren mendeko edo hari lotutako erakunde publikoetako batek eta zuzenbide publikoko entitateetako batek sinatutako hitzarmenen kasuan, luzapen horren berri eman beharko zaio Lankidetzako Organo eta Tresnen Estatuko Erregistro Elektronikoari, zazpigarren xedapen gehigarrian aipatzen baita.”

Organo eskuduna: Hitzarmenaren kontratu-izaerari eta osoko bilkuraren helburu instituzionalei arreta jarri, ondoriozta daiteke eskumena osoko bilkurarena dela, Toki Araubideko oinarriak arautzen dituen legearen 21.1.s. egoitza klausula kontutan hartu gabe.

Aurreko guztia aintzat harturik, Tolosako Udaleko Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2021eko urriaren 20an egindako bilkuran, irizpen-proposamena aztertu eta bozkatu du.

Bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Abstentzioa: Garbiñe Marzol Ormazabal, Kristina Pelaez Errazkin eta Ander Figerido Zubiria.

Beraz, gehiengoz, Batzordeak honako irizpen hau onartzea proposatzen dio Udalbatzaren Osoko bilkurari:

IRIZPENA



LEHENA.- Honako lankidetzaren hitzarmen hau onartzea: Ertzaintza eta Udaltzaingoa elkarlanean aritzeko lankidetzaren hitzarmena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren (Segurtasun Sailaren bitartez) eta Tolosako Udalaren artekoa.

Hitzarmen honen **KLAUSULAK** honako hauek dira:

Lehenengoa – Xedea

Esparru-hitzarmen honen xedea Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen arteko lankidetzaren eta elkarlaneko moduak eta prozedurak arautzea da, lurraldean erabil daitezkeen polizia-baliabideak optimizatzeko eta herritarren segurtasun publikoaren beharrei zerbitzu hobea emateko.

Bigarrena – Printzipioak

Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen arteko lankidetzaren, elkarlana eta koordinazioaren printzipioak 15/2012 Legearen 3. artikuluan zehaztutakoak izango dira, batik bat irizpide hauei dagokienez:

- a) *Herritarrei bermatzea poliziak sentsibilitate goreneko erantzun azkar, bizkor eta eraginkorra emango diela.*
- b) *Kalitatea eta efizientzia delituaren biktimei arreta ematerakoan eta horiek babesterakoan.*
- c) *Leialtasun instituzionala izatea eta elkarrekin elkarlanean aritzea. Hori gauzatzeko bi indarrek elkarri laguntza eta babesa emango diote talde bakoitzari legeaz esleitu zaizkion funtzioak eta baterako ohiko funtzioak egiten direla bermatzeko.*
- d) *Gertuen dagoen edo baliabideak mobiliza ditzakeen polizia-indarrak esku hartuko du aurrena, ekintza horren gaineko eskumenik izan ez arren, eskumena duen indarra iritsi eta horren ardura hartzen duen arte, hitzarmen honetan xedatutakoaren arabera.*
- e) *Herritarren segurtasuna eta bizikidetzaren normala bermatzeko beharrezkoa den informazio guztia elkarri transmititzea.*
- f) *Herritarren segurtasunean zuzeneko eragina duten arazoaren aurrean arreta eskaintzen duten gainerako baliabide publikoekin koordinatzea eta elkarlanean aritzea.*

Hirugarrena – Zerbitzuak zehaztea

1.– Legez ezarritako funtzioen banaketaren titulartasunen esleipenaren arabera zehaztuko dira Ertzaintzari eta Udaltzaingoiari dagozkien polizia-zerbitzuak. Hori bateragarria da hasiera batean premiazko arrazoiengatik esku hartzea bi polizia-indarrentzat nahitaezkoa izatearekin eta baterako jarduketak egiteko protokoloak ezartzeko beharrezkin.

2.– Ertzaintzak polizia integral gisa lege- ordenamenduak esleitzen dizkion funtzioak egingo ditu. Horrela, honako hauen titularrak eta arduradunak da:

- a) *Herritarren segurtasuneko eta ordena publikoko polizia-lanak.*
- b) *Polizia administratiboaren lanak.*
- c) *Trafikoa ordenatu eta arautzeko lanak, hiriarteko bideetako trafiko- istripuen atestatuak egitea eta bide horietako erabiltzaileei laguntza ematea.*



3.- Udaltzaingoak bere udalerrian egingo ditu Udaltzaingoak uztailearen 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen testu bateginaren 55. artikuluan jasotako eginkizunak betetzen ditu bere udalerrian, eta, horrenbestez, artikuluan jasotako funtzioak, eta horrela honako hauen titularra eta arduraduna da:

- a) Udal-agintariak babestea eta udalaren eraikin eta instalazioak zaintzea.
- b) Herriguneko trafikoa arautzea, seinaleztatzea eta zuzentzea, zirkulazio- arauetan ezarritakoaren arabera, eta herri barruan gertatzen diren trafiko- istripuetako atestatuak egitea.
- c) Ordenantza, bando eta gainerako udal-xedapen eta egintzei buruzko polizia administratiboaren lanak, eta baita ingurumena babesteko indarrean dagoen legedia betearazteko ardura hartzea ere, gai horien inguruan toki- erakundeek dituzten eskumenen eremuan.

4.- Udaltzaingoak, gainera, Ertzaintzari lagunduko dio leku publikoak zaintzen eta manifestazioak babesten, hala nola jende-bilera handietako ordena mantentzen, hori egiteko eskatzen zaienean. Era berean, polizia judizialaren eginkizunetan parte hartuko du, polizia judizialeko unitateekin lankidetzan.

- 5.- Badira funtzio partekatuak:
 - a) Hurbileko poliziaren zereginak eta herritarrei laguntzea.
 - b) Aurrea hartzeko eginbideak eta lege- hauste diren egintzak eragoztera zuzendutako jarduketa oro burutzea.
 - c) Gatazka pribatuak adiskidetasunez konpontzeko esku hartzea, eskatzen bazaie.
 - d) Espazio publikoak eta konkurrentzia publikoko leku eta establezimenduak zaintzea, hitzarmen honetan edo horretarako sinatzen diren berariazko funtzioetan ezartzen diren funtzio zehatzekin.
 - e) Istripu, hondamen eta zorigaitz publikoetan laguntza ematea, legean ezarritakoaren arabera eta babes zibileko planekin bat etorritz.

Laugarrena - Dispositiboak, operazioak eta intzidentziak.

-1.- Herritarren segurtasunaren arloko polizia-jarduketek polizia-indar bateko zein besteko titular bat izango dute. Horrek esku-hartzearen aginte- eta zuzendaritza-funtzioak beteko ditu, bai eta eginbideak egin ere, beste polizia- indarraren lankidetzaren kalterik gabe, beharrezkoa denean.

-2.- Titulartasuna erabakitzeari dagokionez, poliziaren operatiboak eta esku-hartzeak honela sailkatuko dira:

a) Aurreikusteko gaitasunaren arabera:

- Dispositiboak: polizia-baliabideak prebentzio-lanetan era programatuan erabiltzea, lehentasunezko egiteko espezifikoarekin.

✓ Operazioak: polizia-baliabideak lan betearazleetan era programatuan erabiltzea, lehentasunezko egiteko espezifikoarekin.

✓ Intzidentzia: aurreikuspenik gabe sortzen diren gertaerak, zerbitzu publikorako esanguratsuak direnak.

b) Titulartasunaren arabera:

✓ Esklusiboak: bere eskumenak betez erakunde bakar batek kudea ditzakeenak.

✓ Partekatuak: bi erakundeek kudea ditzaketenak.

✓ Konplexuak: bere eskumenak betez gutxienez erakunde batek partzialki kudea ditzakeenak.



-3.- Tokiko polizia-koordinaziorako batzordean adostutako protokoloetan edo bi polizia-indarren koordinazio operatiboko mahaietan sinatutako alde biko protokoloetan, intzidentzien zerrendak jasoko dira eta titulartasunak esleitu dira, hitzarmen honetan eta beronen eranskinean adierazitako irizpideen arabera.

-4.- Programatutako edozein polizia- dispositibok edo -operaziok behin- behineko titulartasuna edo alde aurretik zehaztutakoa izango du irizpide hauen arabera, beharrezko hurrenkeran:

- a) Administrazio baten eskumen eksklusiboak, horiek gorde eta bermatzerakoan;
- b) Administrazio batek bestearen gainean duen lehentasunezko interesa;
- c) Zuzenean eragina izan dezaketen bitartekoak;
- d) Gertakari bateko iniziatiba.

Dispositibo bat antolatu aurretik sor litezkeen intzidentziek dispositibo horren behin-behineko titulartasunari eutsiko diote.

-5.- Herritarren segurtasunaren arloan programatu gabeko intzidentziak gertatzen badira, titulartasuna esleitzeko lehentasunezko irizpide hauek erabiliko dira, hurrenkera honetan:

- 1) Gertakari horren gaineko Administrazio baten eskumen eksklusiboak.
- 2) Gertakariaren kokalekua
- 3) Esleitutako baliabidearen gertakariarekiko gertutasuna.
- 4) Komunikazioaren hartzaila.

Intzidentzia baten hasierako faseetan (aurrekariak, prestakuntza edo jatorria) behin-behineko titulartasun bat esleitu zaie intzidentziei sinatutako protokoloaren arabera. Titulartasun hori berretsi egingo da intzidentziaren kontrola lortzen den garapen-fasean.

Intzidentzia baten behin-behineko titulartasuna beste polizia-indar bati transferitu ahal izango zaio egoerarengatik egokia denean.

	INTZIDENTZIA	TITULARTASUNA	LEHENTASUNEZKO IRIZPIEA	TRANSFERENTZIA
1.	AURREKARIAK	BEHIN-BEHINEKOA	3/4	
2.	PRESTAKUNTZA	BEHIN-BEHINEKOA	3/4	
3.	JATORRIA	BEHIN-BEHINEKOA	3/4	
4.	BILAKAERA	BEHIN-BEHINEKOA	3/4	
5.	KONTROLA	EGIAZTATUA	1/2/3/4	*
6.	EBAZPENA	EGIAZTATUA	1/2/3/4	*
7.	DOKUMENTAZIOA	EGIAZTATUA	1/2/3/4	
8.	AMAIERA	EGIAZTATUA	1/2/3/4	



Titulartasun eskusiboko intzidentzien kasuan, irizpide hauen arabera jokatu da:

-1., - 2. eta -3. faseak (aurrekariak/prestakuntza/jatorria): gertakaria 3. irizpidearen arabera esleitu da (bi polizia-indarretako edozeinen gertueneko baliabidearen gertutasuna). Gertuen dagoen baliabidea zein den argi ezartzea posible ez bada, premiazko arrazoiengatik, 4. irizpidea aplikatu da (deia jaso duen bi zerbitzutako edozein).

-4. fasea (bilakaera): fase horretan gertakaria egiaztatzen da eta behin- behineko titulartasun bat esleitzen du polizia-indar jardulearen zerbitzuburuak 1. eta 2. irizpideen arabera (eskumen eskusiboak eta/edo lurralde-eremua).

-5. fasea (kontrola): fase horretan lekua babesten da, ebidentziak segurtatzen dira, lekukoak egiaztatzen dira eta atariko informazioa jasotzen da polizia-indar jardulearen zerbitzuburuak titulartasuna ebatzi arte, behin- behinekoa berretsiz edo 1. eta 2. irizpideen arabera hura transferitzeko aginduz (eskumen eskusiboak eta/edo lurralde-eremua). Titulartasuna esleitzeko irizpideari buruzko gatazkarik badago, zerbitzuburuak aginduak eskatuko dizkio bere goragoko hurrenari.

Titulartasuna ebazten denean, titularra ez den polizia-indarrak jarduketak lagako dizkio indar titularrari eta laguntza eskainiko dio zerbitzuburuak amaitzeko agindu arte.

-6. fasea (ebazpena): dagokionean, gertakaria zuzenean ezagutzen duen lehen unitatea ordezkaturia izango da titularra ez denean, polizia-indar titularraren polizia-etxean berehala haren adierazpenak jasotzeko.

-7. fasea (dokumentazioa). Atxiloturik balego, atxiloteta egin duten agenteak titularraren polizia etxera joango dira, eta bertan atxilotuak eta objektuak aurkeztuko dituzte, atxilotetaren eginbidea egingo dute eta horretarako hasitako atestatuan adierazpenak egingo dituzte.

6.- Hainbat motatako gertakariak dituzten intzidentzietan, garrantzi juridikoari dagokionez, banako administrazio bakoitzaren eskumen eskusibo bakoitzari tratamendu hau emango zaio:

a) Gertakaria hainbat intzidentzietan banatuko da, eta bakoitzaren titulartasuna administrazio eskudunari esleitu zaio ezarritako irizpideen arabera.

b) Gertakarien artean harreman estua balego, hau da, banaka erreparatuz gero gertatu izan ez balira, titulartasuna ezarritako irizpideen arabera gertakaririk larriena ezagutzen duen polizia indarrari egokituko zaio, lotutako gertakarien eskumena duen polizia- indarraren azpititulartasunari kalterik egin gabe. Azken horrek laguntza eskaini beharko du, lehenengoaren zuzendaritzapean.

Bosgarrena.- Batera jarduteko protokoloak edo planak.

Ertzaintzak eta Udaltzaingoak batera jarduteko protokoloak edo planak prestatu ahal izango dituzte polizia- dispositibo eta -operazioak egiteko, poliziaren eraginkortasun handiagoa lortzeko bi polizia indarretako agenteen lankidetzaren beharrezkoa denean.

Batera jarduteko protokoloak edo planak helburu hauek izan ditzakete:

a) Polizia-indar baten edo bestearen titulartasun eskusiboa duten dispositibo edo operazioei laguntza ematea, agenteekin edo baliabide material zein teknikoekin poliziaren jarduna indartzeko.

b) Titulartasun partekatua edo polizia- indar baten zein bestearen titulartasuna duten unitate edo operazioetako jarduketako erantzukizunak banatzea, edo horiek sektorizatzea. Egokia denean, baterako jarduketak egiteko aukera planteatu ahal izango da.

c) Dispositibo edo operazio konplexuen koordinazioa planifikatzea, bere eskumenak gauzatzeko polizia-indar bakoitza bestearekin koordinatu beharko den kasuetan.



Seigarrena.–Presentzia polizialaren estandar orokorrak.

1.– Ertzaintzak eta Udaltzaingoak koordinaziorako irizpideak zehaztuko dituzte, eskura dauden baliabideak era egokian erabiltzen direla segurtatzeaz gain, udalerrri guztian poliziaren presentzia jarraitu eta nabaria bermatzeko.

2.– Udaltzaingoak patruila jarraituak antolatu beharko ditu hitzarmen honetan jasotako funtzio eta egitekoen arabera. Horretarako, zirkulazio- poliziaren, polizia-administratiboaren eta herritarren arazoan aurreko hurbileko poliziaren lanak lehenetsiko dira, eta arreta berezia emango zaie istripuen ondoriozko premiazko laguntza-eskaerei eta bizikidetzaren arauak betetzen laguntzeari, esleituta dituzten segurtasun poliziaren funtzioen kalterik gabe.

3.– Ertzaintzak, laguntzeko dituen betebeharrak eta funtzioen kalterik gabe, nahikoa patruila mantenduko ditu, delituek, herritarren segurtasunaren kontrako arriskuek eta desordena publikoek eragindako premiazko eskariei berehalako erantzun egokia emango zaiela bermatzeko, bai eta eskumen horien alorreko prebentzioa udalerrri guztian egiteko ere.

Era berean, Ertzaintzak Udaltzaingoari lagunduko dio herritarren lasaitasuna eta ongizatea kaltetzen dituzten giza legearen kontrako jarrerak zaintzeko.

Zazpigarrena.– Informazio-trukea.

1.– Ertzaintzak eta Udaltzaingoak koordinaziorako irizpideak zehaztuko dituzte, eskura dauden baliabideak era egokian erabiltzen direla segurtatzeaz gain, udalerrri guztian poliziaren presentzia jarraitu eta nabaria bermatzeko.

Horretarako tokiko polizia -koordinaziorako batzordeetan polizia- eta delitu-jardueren hileko laburpenak, informazioa eta datu estatistikoak trukatzeko prozedurak eta eduki zehatzak ezarriko dira, udalerrri bakoitzean udalerriko segurtasunerako garrantzitsutzat jotzen diren alderdiak zehaztuz.

2.– Bi polizia-indarrek berehala jakinaraziko dizkiote honako hauek elkarri:

- a) Manifestaldiak, ordena publikoaren istilu handiak, alarma soziala eragin lezaketen delitu larriak.
- b) Ibilgailu motordunen lapurretak edo desagertzeak.
- c) Lehergaiak jarri izanaren jakinarazpenak edo mehatxu terroristak.
- d) Ezbeharrak: etxebizitzetako eta eraikin industrialetako suteak, garraio publikoaren istripu larriak.

e) Mugikortasunaren gainean eragin larria duten bide publikoaren okupazio edo mozketak.

f) Koordinazio operatiboko mahaiak egokitzen dituzten beste egoera batzuk.

3.– Informazioa trukatzeko polizia- komunikazioen protokolo bat ezarriko da. Era berean, veste polizia-indarren lankidetzaren beharrezkoa den egoeretan hasierako gertakariaren ondoren gertatutako intzidentzien berri eman beharko da, eta horretarako zuzeneko harremanak ezarriko dira.

4.– Pertsona askoren presentzia edo parte-hartzea duten ekitaldi, egoera edo intzidentzietan, bi polizia-indarretako arduradunak denbora errealean koordinatu beharko dira, egokiak diren sareko lotura-sistemak erabiliz.

5.– Bi erakundeek instalatutako bideozaintza-zirkuituak batera erabiltzeko aukera aztertuko da.

6.– Aldian behin Segurtasun Sailak udalerriri herrian erregistratutako delinkuentziaren bilakaeraren laburpen bat emango dio. Bertan, datu hauen xehetasunak emango dira, besteak beste: ezagutzen diren delituen guztizko kopurua; mila biztanleko arau-hauste penalen indize ofiziala; delitu mota bakoitzaren bilakaera, etab. Horrela, egoeraren egiazko diagnostikoa egin ahal izango da eta beharrezkotzat jotzen diren politikak eta segurtasun-operatiboak abiarazi ahal izango dira.



Zortzigarrena.– Euskal Herriko Poliziaren Datu Bilketarako Zentroan parte hartzea.

1.- Hitzarmen honetako helburuak betetzeko, eta poliziaren datu-baseen sistema integratu bat artikulatzeko, bi aldeek neurri zehatzak hartuko dituzte Udaltzaingoa Euskal Herriko Poliziaren Datu Bilketarako Zentroan integra dadin, dagozkion protokoloak sinatuta.

2.- Integrazio horren helburua izango da Udaltzaingoiari sistemak duen informaziorako sarbidea ematea, ezartzen diren segurtasun-mailekin eta mugekin, eta Udaltzaingoa herritarren segurtasuneko lanak eta polizia judizialaren funtzioak betetzen ari denean sortzen duen polizia-informazio guztia aipatutako Euskal Herriko Poliziaren Datu Bilketarako Zentroan integratzea.

3.- Datu-baseetarako sarbidea eta kontsulta protokolo baten arabera egingo da (Hitzarmen honi eranskin gisa atxikiko zaio). Bertan zehaztuko dira ekipo eta programen ezaugarri teknikoak, sarbide mailak, datuen konfidentziasunaren segurtasun-mailak, datu pertsonalak babesteko indarrean dagoen araudia betetzeko modua eta datuak legez hirugarrenei lagatzeko baldintzak, beharrezkoa denean. Guzti hori datu pertsonalak babesteko araudiak ezarritako baldintzak betez egingo da.

4.- Herritarren segurtasunaren eta polizia judizialaren arloan udaltzaingoei egiten dituzten jarduerekin lotutako arau-hauste penalen, pertsonen eta ibilgailuen gaineko datuak, EAEko Poliziaren Datu Bilketarako Zentroaren bidez partekatuko dituzte udaltzaingoei, Segurtasun Sailak ezartzen dituen prozedura eta irizpideen arabera.

Bederatzigarrena.– Koordinazio operatiboa.

1.- Intzidentzia-tipologia askotarikoak sailkatzeko eta dispositibo eta operazioen titulartasuna esleitzeko koordinazio operatiboko mahai bat antolatuko da, bi erakundeetako ordezkariak osatutakoa.

2.- Organo hori hileroko bilduko da, deialdia alde batek zein besteak egin eta gero.

3.- Hauek dira bere zereginak:

a) Baterako dispositiboak eta operazioak planifikatzea, horien titulartasuna esleitzea, agintelanak egitea eta polizia-indarren arteko koordinazio eta laguntza antolatzea.

b) Intzidentzien tipologia zehaztea, eguneratzea eta berrikustea eta titulartasunak esleitzea.

c) Titulartasunak transferitzeko protokoloak ezartzea.

d) Aurreikusitako koordinazio- mekanismoen jarraipena eta bilakaera egitea eta martxan jartzea.

e) Koordinazio-sistemetak gabeziak zuzentzea eta hobekuntzak ezartzea.

f) Sistema operatiboak analizatzea, ikertzea eta homogeneizatzea.

g) Baliabideen kudeaketa garatzea eta bateratzea.

h) Tokiko polizia-koordinaziorako batzordeak koordinazioaren alorrean hartutako akordioak gauzatzea.

Hamargarrena.– Interkomunikazioa / aginte eta kontroleko zentrozen integrazioa.

1.- Beharrezko neurri teknikoak hartuko dira Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen komunikazio zentralen (UKZ) arteko interkomunikazioa bermatzeko. Era berean, kanal edo frekuentzia bateratuak antolatuko dira baterako segurtasun-dispositibo espezifikoak eta ohiz kanpokoak garatzeko.

Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen UKZek interkomunikazioa izango dute honako jarduerak egiteko:

a) Baliabide operatiboen kokapen geografikoari eta erabilgarritasunari buruzko informazioa trukatzeko.



- b) Patruila bakoitzaren zerbitzu- unitateei, horien kideei, esleitutako baliabideei, adierazleari eta patruilatzeko zonaldeari buruzko informazioa ematea, txanda bakoitzaren hasieran.
 - c) Polizia-intereseko mezuen hedapen orokor eta selektiboa erraztea.
 - d) Herritarrek egindako deiak azaldutako gertakariaren titulartasuna duen zerbitzuari bideratzea.
- 3.- Udaltzaingoa SOS-Deien Zentroan eta horren Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaaren taktika operatiboetan integratzea sustatuko da.
- 4.- Udaltzaingoa dagokion Ertzaintzaren aginte- eta kontrol-zentroan (Ardatz) integratzea erraztuko da, egokia denean. Horrek polizia-komunikazioko baterako zentral baten bidez egingo du lan.

Hamaikagarrena.– Polizia judizialaren funtzioetan parte hartzea.

1.– Segurtasun Sailak eta hitzarmen hau sinatzen duen udalariak adostu dute Udaltzaingoa polizia judizialaren funtzioetan parte hartzea, hitzarmen honetan zehazten diren baldintzetan, eta honako helburu hauekin:

- a) Udalerriko polizia-erantzuna hobetzea, arau-hauste penalak ikertzearen arloan Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaaren arteko koordinazioa handituz, herritarren segurtasuna indartze aldera.
- b) Udalerrian egiten diren edo poliziak ezagutzen dituen delituak ahalik eta hobekien argitzea.
- c) Biktima eta lekukoei lehentasunezko arreta ematea eta salaketak egiteko aukera ematea.
- d) Polizia-atestatuak kalitate gorenekoak direla bermatzea, prozedura penaletan eraginkorrak izan daitezen, batik bat azkar epaitzeko delitu eta falten kasuan.

2.– Udaltzaingoa bere gain hartuko dituen gaien zerrenda eta horietako bakoitzari buruz hartuko dituen ardura zehatzak, hala salaketak jasotzeari dagokionez nola gertakariak ikertzeari dagokionez, alde biek adostuko dute hitzarmen honen jarraipen-batzordean, jarraian azaltzen diren arau-hauste penalen inguruan, delitu arinak edo horiek baino larritasun txikiagoak direnean:

- a) Lesioak, biktima ospitaleratzea beharrezkoa ez denean.
- b) Etxeko indarkeria eta genero- indarkeria.
- c) Familia-harremanen kontrako delituak.
- d) Kondena urratzeak: une oroko lokalizazio-zigorrarenak; urruntze- aginduarenak eta gidatzeko baimenaren gabetzearenak.
- e) Ebasketak.
- f) Ibilgailuak berreskuratzeko salaketak, betiere horiek polizia-interesekoak ez badira.
- g) Udalaren ondare historikoa.
- h) Bide publikoan egiten diren izaera komertzialeko edo irabazi-asmoko jarduerak edo azoka txikiak, jabetza intelektual edo industrialaren kontrako delituak direnean.
- i) Elektrizitateko iruzurrak eta horien antzekoak.

- j) Trafiko-segurtasunaren aurkako delituak.
- k) Mehatxuak eta derrigortzeak.
- l) Sorospen-eginbearra ez betetzea.
- m) Kalteak oro har, eta bereziki hiri-altzarrietan egindakoak
- n) Osasun publikoaren aurkako delituak.

3.- Polizia judizialaren funtzioetan poliziek duten lankidetzeta-maila zehatza ebazteko honako alderdi hauek izango dira kontuan:

- a) Euskadiko polizia-indar bakoitzarentzat aurreikusitako eskumenen esparrua.
- b) Udaltzainen kopurua, herriko biztanle-kopuruaren arabera, bai eta alor horretan ardura gehiago hartzeko nahikoa gaitasun operatibo duten ere, faktore hauen arabera:
 - Udaltzainen prestakuntza-maila eta esperientzia polizia judizialaren funtzioak egiten;
 - Polizia judizialaren funtzioetan espezializatutako taldeak edo unitateak antolatze gaitasun teknikoa eta operatiboa;



- Polizia judizialaren funtzioak egiten laguntzeko beharrezkoak diren baliabide material eta teknikoen erabilgarritasuna.

4.- Udaltzaingoak polizia judizialaren funtzioak egiteko jarduera-eremua udalerrria izango da eta, poliziaren lehen auzialdian, hitzarmen honetan aipatutako arau-hausteetatik delitu arin edo hori baino larritasun txikiagoko delitu gisa jotzen direnei baino ez die eragingo, hala salaketak jasotzeari nola gertakariak ikertzeari dagokionez.

5.- Ikerketa bat egiterakoan udalerritik kanpoko jarduketak egiteko beharra sortzen duten elementu edo zantzuak aurkituko balira, egoeraren berri emango zaio berehala Ertzaintzaren ikerketa kriminal eta polizia judizialeko arduradunei, ikerketak eten egingo dira eta Ertzaintzaren arduradun horren esku utziko da egindako guztia, agintari judizialei jakinarazi eta gero.

6.- Poliziaren jarduketa guztiak Ertzaintzari transferituko dizkio Udaltzaingoak berehala, jarduketak egiterakoan honako egoera hauetako bat gertatzen ari dela ikusiko balitz: Ertzaintza gertakari bera dagoeneko ikertzen ari dela, gertakariak udalerritik kanpoko inplikazio garrantzitsuak dituela, Udaltzaingoaren eskumeneko lurralde-eremutik edo funtzioetatik kanpoko beste arau-hauste penal batzuk ere egin direla edo gertakariak horrelakoekin lotura duela, edo egileak antolatutako gaizkile taldeak izan litezkeela.

7.- Salaketak egitea:

a) Herritarrei salaketak egiteko erraztasunak emateko eta eskaintzen zaien polizia-arreta hobetzeko, Bulego Mugikorrek martxan jartzea komenigarria den aztertu eta erabakiko da. Horiek udaltzainek osatuko lituzkete, edo bestela udaltzainek eta ertzainek, modu bateratuan.

b) Gainera, salaketak telefonoz edo internet bidez jasotzeko beharrezko neurriak ere erabakiko dira, betiere teknikoki posible bada, eta horiek behar bezala formulatzen direla bermatuz betiere.

c) Era berean, salaketa-mota jakin batzuk gertakarien lekuan bertan egiteko aukera emateko neurriak ere aztertuko dira, salatzaileri dagokion formularioa eskainiz.

8.- Atestatuak egitea eta horiek telematikoki transmititzea:

a) Atestatuak eta eginbideak egiteko, indarreko legeria prozesal eta penalean ezarritako irizpideei jarraituko diete. Hori egiteko, beharrezkoa den guztia egin ahal izango da Udaltzaingoak Ertzaintzaren dokumentazio-euskarri normalizatu eta informatizatuak erabil ditzan, horiek egindako polizia- jarduketarako egokiak diren heinean.

b) Udaltzaingoak egiten dituen atestatuak idazteko eta polizia judizialaren arloko ofizioak eta idatziak egiteko, atestatuak egiteko Ertzaintzaren informatika-aplikazioa erabiliko da. Ondorio horietarako konexioa informatika-sistemen bidez egingo da.

c) Edozein kasutan ere, Udaltzainak egindako atestatuaren kopia bat bidaliko zaio Ertzaintzari, ezartzen diren protokoloen arabera. Horren harira, Udaltzaingoak prozedura bat ezarriko du dagokion Ertzaintzaren unitateko arduradunari egunero informazioa emateko.

d) Ikerketak eta atestatuak egiterakoan erabiltzen diren datuen tratamendu informatikoa egiterakoan datu pertsonalak babesteko araudian ezarritako xedapenak kontuan hartuko dira.

9.- Euskal Herriko Poliziaren Datu Bilketarako Zentroko integrazioa:

Udaltzaingoaren polizia judizialaren funtzioak indartu eta optimizatzeko, polizia judizialaren ikerketak eta jarduketak egiteko beharrezkoak diren Euskal Herriko Poliziaren Datu Bilketarako Zentroko datu-baseekin interkonektatuko da Udaltzaingoa, hitzarmen honetan ezarritako arau-hausteen alorrean.

Horretarako, Ertzaintzaren informatika- sistemekin integartzeko eta konektatzeko informatika aplikazioak instalatuko dira Udaltzaingoaren bulegoetan, batik batik polizia-atestatuak egiteari dagokionez, horrela Udaltzaingoak polizia judizialaren funtzioak betez egindako jarduketetako lankidetzeta eta koordinazioa erraztuz. Horretarako datu pertsonalak babesteko arloan indarrean dagoen araudia kontuan izango da.



Sarbide horren bidez, datu-baseetara sartu eta horiek erabiltzeko protokoloan zehazten diren datu baseetako datu administratibo, polizial eta judizialak kontsultatu ahal izango dira, eta modu mugatuan tratatu.

Udaltzaingoak delituak ikertzeko egiten dituen jarduera guztiak, bai agintaritza judizialarentzako atestatuarekin amaitzen direnak bai artxibatzen direnak, Euskal Herriko Poliziaren Datu Bilketarako Zentroan sartuko dira beharrezkoak diren jarraibide teknikoen arabera; segurtasun-baldintzekin gaituta dauden udaltzainek kontsultatu ahal izango dituzte, datu pertsonalak babesteko araudia errespetatuz.

10.- Polizia judizialaren oinarrizko prozedura operatiboak:

a) Atxiloketa, identifikazioa eta datuak hartzea.

Udaltzaingoak egindako jarduketan ondorioz pertsona bat atxilotuko balitz, atxiloketa Udaltzaingoak berak kudeatuko du pertsona hori epailearen eskuetan jarri arte, beharrezkoa balitz.

Atxilotua identifikatzeko eta haren datuak hartzeko, Udaltzaingoak baliabide propiorik ez balu, atxilotua ertzain-etxera eramane beharko da.

b) Atestatuak egitea eta atxilotua epailearen esku uztea.

Udaltzaingoak, polizia judizialaren funtzioak betez, beharrezkoak diren ikerketak eta atxiloketak egingo ditu, Konstituzioan eta ordenamendu juridikoan xedatutakoaren arabera.

Pertsona bat atxilotzerakoan, atestatuaren instruktoreak izango du atxilotua epailearen esku uzteko ardura edo, dagokionean, hura aske uzteko edo legez dagokion egoerara pasatzeko ardura, bai eta atestatu agintaritza judizialari bidaltzekoa ere.

Atxilotua epaitegira eramateko, gai horren inguruan epaitegietako gobernu- organoek emandako arauak errespetatuko dira.

Era berean, delitu jakin batzuk azkar epaitzeko prozedurako atestatu bat tramitatzen denean, epaitegietako gobernu-organo horrek erabakitakoa beteko da.

Atestatuaren instruktorearen ardura izango da eginbideak Fiskaltzari eta legean ezarritako gainerako organismo publikoei bidaltzea.

Atestatuaren instruktorearen ardura izango da, era berean, segurtasuneko plan estatistikoa betearaztea.

Edozein kasutan ere, Udaltzaingoak egindako atestatuaren kopia bat bidaliko dio Ertzaintzari, ezartzen diren protokoloen arabera. Horren harira, Udaltzaingoak prozedura bat ezarriko du dagokion Ertzaintzaren unitateko arduradunari egunero informazioa emateko.

c) Polizia zientifikoa, kriminala eta peritutzaren teknikoak.

Hitzarmen honen arabera egiazta eta iker ditzakeen delituen ikerketa egiteko, Udaltzaingoak gertakariaren lekuan bertan egingo du begi-ikuskeraren teknikoak, eta gertakariak argitzen lagundu dezaketen zantzu edo proba- elementu oro jasoko du.

Begi-ikuskeraren teknikoak egiten duten udaltzainek akta bat idatziko dute, eta horri krokisak, argazkiak eta/edo bideoak erantsiko dizkiote. Hori polizia- atestatuari gehituko zaio, eta arreta berezia emango zaio zaintza-katea bermatzeari.

Udaltzaingoak polizia zientifikoaren eta peritutzaren lanak egiteko nahikoa baliabide ez duenean, Ertzaintzaren Polizia Zientifikoaren Unitatearen lankidetzaren laguntza eskatuko da. Laguntza unitate horren bidez eman ezin denean bakarrik joko da beste zerbitzu batzuetara. Agintaritza judizial eskudunari intzidentzia horren berri emango zaio.

11.- Koordinazio operatiboa.

Esku hartzen duten bi aldeek adostasunez, polizia judizialaren arloko koordinazio operatiborako zentro bat sortu ahal izango da. Horren buru izango dira bi polizia- indarretako alor horretako arduradunak, eta helburua polizia- jardun koordinatua une oro bermatzea izango da.



Zentro horrek etenik gabe funtzionatu beharko du egunean 24 orduz eta bilerak antolatuko dira aldi berean behin ikerketa kriminal guztietan polizia eraginkorra dela bermatzeko eta hitzarmen honetan jasotako alor operatibo guztiak betetzen direla ziurtatzeko.

Udaltzaingoa polizia judizialaren alorrean egiten dituen jarduketan guztien berri emango dio egunero polizia judizialaren arloko koordinazio operatiborako zentroari dokumentu normalizatu baten bidez, atestatuaren transmisio elektronikoa kalterik gabe.

12.- Prestakuntza.

Polizia judizialeko talde edo unitateen parte diren udaltzainek gai horretan espezializatzeko ikastaro bat egin beharko dute, salbu eta egiaztatutako esperientzia badute.

Udaltzainei zuzendutako polizia judizialaren alorreko prestakuntza- ekintzak sustatuko dira. Horiek Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian egingo dira. Prestakuntza-ekintza horiek aurrera eramateko, agintaritzaren eta Fiskaltzaren lankidetzaren lortzeko ahaleginak egingo dira.

Polizia judizial lanetan espezializatzeko sarrerako ikastaroetan parte hartzeko, Udaltzaingoko funtzionarioen kasuan, ez da ezinbestekoa izango hitzarmen hau sinatzen den egunean funtzio horietan hiru urteko esperientzia dutela egiaztatzea.

Hamabigarrena.– Komunikazio instituzionala.

1.- Bi polizia-indarrek batera egiten dituzten esku-hartzei buruzko prentsa- oharra elkarri pasako dizkiote bi polizia-indarretako prentsa arduradunek argitaratu aurretik. Horrela, laguntza eman zuen polizia-indarrak prentsa- oharra osatu ahal izango du intzidentziaren titulatasuna duen polizia-indarrak oharra publiko egin aurretik, eta une oro bermatua geratuko da bi indarrek egindako lanaren aitortza.

2.- Egokia dela erabakitzen denean, prentsa-ohar bateratuak eman ahal izango dira.

3.- Edonola ere, komunikabideei informazioa eman behar dien polizia- indarra kontuz ibiliko da gertakarien ikerketan eragina izan lezaketen datuak publiko ez egiteko.

4.- Zerbitzuei buruz egiten diren estatistika eta ebaluazioen aurreko azterketa bat egin beharko da tokiko polizia-koordinaziorako batzordean, eta horiek argitaratu eta komunikabideei zabaltzeko batzorde horren adostasuna lortu beharko da aldez aurretik.

Hamahirugarrena.– Emaitzak ebaluatzeko adierazleak.

1.- Tokiko polizia-koordinaziorako batzordeetan edo, bestela, koordinazio operatiboko mahaletan, polizia- lankidetzaren emaitzak ebaluatzeko adierazleak ezarriko dira, hainbat irizpide erabilita: krimenaren eta indarkeriaren indizeak, segurtasun- faltaren pertzepzioa, poliziaren eta komunitatearen arteko harremanak, poliziaren jarduna eta horren kudeaketa instituzionala, besteak beste.

2.- Adierazle horien helburuak ere askotarikoak izan ahalko dira, hala nola abiarazi diren baterako programen eragina neurtzea, estrategia baten esparruko emaitzak edo helburu espezifikoak bete diren neurtzea edo aurreikusitako helburu estrategikoak betetzeko beharrezko jardura espezifikoaren inplementatze- edo aurrerapen-maila ezagutzeko.

Hamalaugarrena.– Jarraipeneko batzorde mistoa.

Hitzarmena behar bezala betetzen dela zaintzeko, Jarraipen Batzorde Tekniko bat eratuko da. Bi kidek osatuko dute; bata Segurtasun Sailaren ordezkaria, eta, bestea, Udalarena. Segurtasun Saileko ordezkaria izango da batzordeko presidentea.



Batzorde horren zereginak hauek dira: hitzarmena interpretatzean sor daitezkeen zalantzak argitzea, betearaztean eragin daitezkeen desadostasunak konpontzea, hitzarmenaren urratsak aztertzea eta, beharrezkoa izanez gero, hori hobetzeko proposamenak egitea.

Batzordea urtean behin bilduko da, gutxienez, aldeetako batek horrela eskatzen badu, eta adostasunez hartu beharko dituzte erabakiak.

Hamabosgarrena.– Hitzarmena aldatzea.

Lankidetza-hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean alda daiteke, bi alderdiek hala erabakiz gero, eta erabaki berriak gehigarri gisa erantsiko zaizkio dokumentu honi.

Hamaseigarrena.– Hitzarmenaren araubidea eta auziak.

Hitzarmen hau administrazio arlokoa da, eta, beraz, interpretatu eta garatzeko administrazio publikoen arteko lankidetza-hitzarmenei aplikatu beharreko administrazio-araubidea bete beharko da.

Hamalaugarren klausulan aurreikusitako Jarraipen Batzordeari esleitutako funtzioen kalterik gabe, hitzarmen hau garatu eta gauzatzera koan bi aldeen artean sortzen diren auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren esku utziko dira.

Hamazazpigarrena.– Indarraldia eta amaiera.

Hitzarmen honen indarraldia lau urtekoa da, sinatzen den egunetik zenbatzen hasita. Epe hori amaitu aurreko edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez adostu ahal izango dute hitzarmena luzatzea, beste lau urtez gehienez, edo hitzarmena azkentzea.

Lankidetza-hitzarmen hau irakurri ondoren, bertan esandakoarekin bat datozela adierazteko, aldeek bina kopia sinatu dituzte, testuaren idazpuruan aipatutako tokian eta egunean, eta ezarritako estipulazioekin bat.

BIGARRENA.- Alkateari ahalmena ematea hitzarmena sinatzeko.

HIRUGARRENA.- Gardentasun atarian eta web orrian argitaratzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du Ertzaintza eta Udaltzaingoa elkarlanean aritzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, Segurtasun Sailaren bitartez, eta Tolosako udalaren arteko lankidetza hitzarmena.



7. HASIERAKO ONARPENA EMATEA GOBERNANTZA, PARTAIDETZA ETA GARDENTASUN ORDENANTZARI.

Herritar batzorde informatiboaren 2021eko urriaren 20ko irizpena

AURREKARIAK

Tolosako Udalaren 2019-2023 Legealdirako Kudeaketa Planaren baitan, Herritarrak lan lerroko helburu estrategikoetako bat herritartasun aktiboa sustatzearena da, eta helburu hori lortze aldera martxan jarri beharreko ekintza estrategikoa Udal erakundea herritarrei zabaltzearena da.

Gobernantza onaren bidean, Tolosarako arautegi batean herritarren eskubideak, Udalaren zerbitzuak eta prozedurak definitzeko prozesua martxan jarri du Udalak 2021eko hasieran honako arlo hauek arautzeko: gardentasuna eta informazioaren kudeaketa, herritarren parte hartzea, eta herritar eta norbanakoen ahalduntzea eta trebakuntza herritartasunaren ikuspegitik, eta bereziki, gardentasun eta parte hartze arloetan.

Prozesu hau 2021eko urtarrilean hasi eta urte bereko urrian amaitu da.

AZTERKETA JURIDIKOA

1.- Oinarri juridikoa eta Udalaren eskumena

Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko entitateei aplikagarria zaien Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikulua udalerrien eskumen propioak arautzen ditu; bai eta horiek zein esparru materialetan erabili ahal izango dituzten ere; 17.1.31. artikulua araberak, udalerriek, besteak beste, esparru material hauetan erabili ahal izango dituzte eskumen propioak: «Herritarren partaidetza, gardentasuna, gobernu ona bultzatzeko eta teknologia berriak eskueran izateko azpiegiturak antolatzea eta kudeatzea. Administrazio elektronikoa, prozesuen arrazionalizazioa eta sinplifikazioa. Batez ere, herritarrek informazioaren teknologiak eta komunikazioak modu efiziente eta jasangarrian erabil ditzaten bultzatuko dute, beren udal-mugartean».

2.- Oinarrien izaera eta tratamendu juridikoa

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4.1 a) artikulua udalerriei esleitzen dizkie erregelamenduak eta Ordenantzak egiteko eta haien burua antolatzeko ahalak, lurralde-izaerako administrazio publikoak diren aldetik eta beren eskumenen esparruan. Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, VI. tituluari, legegintza-ekimenari eta erregelamenduak emateko ahalari buruzkoan, arauketa berri bat arautzen du, eta administrazioek legegintza-ekimenaren eta ordenantzak egiteko ahalaren egikaritza hartara egokitu beharko dute. Hala, 129. artikuluan ezartzen du administrazioek printzipio hauen arabera jardungo dutela: premia, eraginkortasuna, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia.



3.- Ordenantzaren edukia

Hau da Tolosako Gobernantza, Partaidetza eta Gardentasun ordenantzaren edukiaren eskema, zeina hiru bloke nagusitan banatzen den:

Gardentasuna eta informazioa: bertan jaso dira gardentasunaren eta publizitate aktiboaren aldetik herritarrei dagozkien eskubideak eta Udalaren betebeharrak zeintzuk diren. Bestalde, Tolosako Udalak informazioa kanalizatzeko dituen bideak eta baliabideak jaso dira.

Parte hartzea: arategiaren zati zentrala da, eta bertan jaso dira herritarrek partaidetzaren arloan dituzten eskubideak eta aukerak (herritar ekimenari eta herri kontsultei garrantzi berezia emanez), Tolosako Udalak partaidetza bideratzeko eraturik dituen bideak eta guneen deskripzioa eta, amaitzeko, partaidetza prozesuek bete beharko dituzten gutxienekoak zeintzuk diren kalitate parametroak bete ahal izateko.

Komunitatearen garapena: atal hau da ikuspegi berritzaileena jasotzen duena, aztertu ditugun gainerako ereduekin alderatuz gero. Partaidetza arategietan ohikoak diren elkartegintza sustatu eta babesteko neurriez gain, herritarren trebakuntza eta formazioa atalak gehitu dira, Tolosako Udalak azken urteetan garatu duen ibilbidearen ildotik, eta elkarlanerako espazio berriak zabaltzeko saiakera eginda kolaborazio publiko-sozialaren ikuspegitik.

Berdintasuna bermatzeko hartutako neurriak

Araudian zehar, hainbat neurri zehaztu eta txertatu dira gizonen eta emakumeen berdintasun erreala bermatzeko. Multzokatuta eta modu orokorrean, hauexek:

- Hizkera sexistarik ez erabiltzea, ez eta emakumeen diskriminazioa edo estereotipo sexistak erakusten dituzten irudiak ere, argitaratuko den dokumentazio, publizitate, irudi edo material orotan.
- Datuak generoaren arabera bereizita jasotzea eta adieraztea.
- Eratzen diren parte hartze gune edo organo egonkorretan kideen arteko oreka ziurtatzea genero aldetik.
- Partaidetza orekatua bilatzea, arreta berezia jarriz eremu maskulinizatu edo talde mistoetan emakumeak parte hartu dezaten.
 - Informazio eskubidea pertsona guztiei iristeko mekanismoak lantzea: eskubide hori bermatze aldera, Tolosako Udalak behar diren mekanismoak ezarriko ditu informazioa zabaltzeko sistemak berdin irits daitezten emakume eta gizonengana. Eta parte hartze honetan aniztasuna agerian utzi beharko du, emakumeen askotariko kultura-jatorri, adina, hizkuntza, klase soziala, testuinguruak dituzten pertsonen eta kolektiboen parte-hartzea indartuz.
- Prozesuetan erabiliko diren metodologia, adierazle, ebaluazio sistemak.... genero ikuspegia txertatuta izatea.



- Gaiak edo prozesuak horrela eskatzen duenez, 4/2005 Legeak araututako aurretiatzko genero inpaktuaren azterketa.

Kontraste saioak

Ordenantza parte-hartzean oinarrituta landu da eta helburu horrekin, Tolosako Udaleko teknikariek, ordezkariak duten udal alderdi politikoekin, herritar eta herri eragileekin (euskalgintzako eragileekin eta mugimendu feministako ordezkariekin) kontraste saioak egin dira prozesuan zehar.

4.-Oinarrien izapidetzea:

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan xedaturikoa ikusirik, ordenantza honen izapidetzeak pauso hauek izango ditu:

- Hasierako onespina, Osoko Bilkurari dagokiona, aipatu Legearen 22.2.d) artikuluan araututakoaren arabera.
- Informazio publikorako eta interesdunen entzunaldirako epea, 30 lanegunekoa, erreklamazio eta iradokizunak aurkez daitezten.
- Aurkeztutako alegazioak ebatzi, eta ordenantzaren behin betiko testua onartzea; Osoko Bilkurari dagokio.
- Informazio publikoko epean inolako erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat emango dute.

5.- Organo eskuduna

Goian aipatu den moduan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.d) artikuluan xedatutakoaren arabera, arautegi honen onespina Udaltzaren Osoko Bilkuraren eskumena da.

Tolosako Udaleko Herritarrek Batzordeak, 2021eko urriaren 20an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

- **Aldeko botoak:** Nerea Letamendia, Izarne Iglesias, Joseba Ormazabal, Jose Mari Villanueva, Aitzol Gartzia, Kristina Pelaez eta Xabier Martinez.

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udaltzaren Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

LEHENA.- Tolosako Udaleko gobernantza, partaidetza eta gardentasun Arautegiari hasierako onarpenera ematea, honako testuaren arabera:



ZIOEN AZALPENAK

Gero eta konplexuagoa den gizarte batean, gakoa elkarlanean dago.

Elkarlanak, batetik, gardentasuna, informazioa eta parte hartzea politika publikoaren parte bilakatzea eta, bestetik, herritarren eta botere publikoen arteko hartu-eman handiagoa eskatzen du.

Herri bezala ditugun gizarte erronka konplexuei ikuspegi berriarekin aurre egitea beharrezkoa da eta horregatik, elkarlan komunitarioaren bidetik jarduteaz gain, elkarrekin hausnartu eta esperimentatu beharra dago gizarte berrikuntzaren bidetik.

Horretarako, ezinbesteko balioak ditugu:

HERRIGINTZA ETA GARAPEN KOMUNITARIOA: *Agenda publikoan herritarren parte-hartzea eta ahalduak sustatuz. Tolosako gizartearen beharrezkoak ulertuz, herritarren inplikaziotik gizarte erronkei helduz, eragile ezberdinen arteko elkarlanetik abiatuta.*

LANKIDETZAZKO GOBERNANTZA: *Erakunde, herritar eta gizarte antolatuen arteko lankidetzaren sarea indartuz bakarrik erantzun ahal izango diegulako gizarte gisa ditugun erronkei. Erakundeen eta gizarte antolatuen artean gobernantza eredu berriak esploratuz, gizarte berrikuntzatik ikuspegi berriak txertatuz.*

GOBERNU IREKIA: *Kalitate instituzionala indartzeko eta Udalaren eta herritarren artean esparru berri bat ezartzeko bidea da gobernu irekia.*

Hauek dira gobernu irekia bermatzeko bitartekoak:

a) *Gardentasuna sustatzea eta arautegi honetan eta gardentasunaren arloko oinarrizko legerian jasotako publikitate aktiboko betebeharrak betetzea.*

b) *Informazio publikoa eskuratzea gardentasunaren arloko oinarrizko legeriak eta arautegi honek aurreikusitakoarekin bat etorrira.*

c) *Informazio publikoa datu ireki gisa eskueran jartzea; hau da, halatan non datuak eskueran eta irisgarri egon ahal izan daitezkeen erreproduzio, aldaketa edo beste datu batzuekiko integrazioarako arazoizko kostuarekin, eta ahalbidetu dadin informazio hori pertsona orok askatasunez erabiltzea, berrerabiltzea eta birbanatzea, erabat errespetatuz pribatutasun, segurtasun edo jabetzagatik eman daitezkeen murrizketak.*

d) *Herritarren partaidetzarako tresnak eta bideak garatzea.*

d) *Lankidetzaren Udalaren eta herritarren edo herritarren kolektiboen artean.*

f) *Kontuak ematea udal jardueren balantze ekonomikoa eta soziala ezagutu ahal izateko.*

Hauek guztiak kontuan hartu dira arautegi hau lantzerakoan, izan ere, udala da herritarrengandik gertuen dagoen erakunde publikoa, eta, horregatik, egoera pribilegiatua dago balio guzti hauek aintzat hartu eta sustatzeko politika publikoak garatzeko unean.



Aurrekariak

Tolosako Udala ez da hutsetik hasten, ibilbide luzea du egina herritarren partaidetzaren esparruan, azken hamarkadan aurrera eramandako egitasmoen bitartez: partaidetza prozesu desberdinak, auzo galdeketak, Tolosatzen 2017-2027 plangintza estrategikoa, Tolosatzen aurrekontu partehartzaileak, Tolosatzen Eskola Irekia, Tolosako Jabetze Eskola, Tolosaldeko Emakumeen Etxearen funtzionamendua diseinatzeko eta kudeatzeko parte-hartze prozesua, eta berriki martxan jarritako eta herritarrekin landutako Tolosatzen Aliantza dira horren adibide.

Aurrera eramandako egitasmo guztien asmoa gobernantza eredu berri baten eraikuntza ahalbidetzea izan da, herritarren eta udalaren arteko zubiak eraikitzen lagunduz eta udal politiken kudeaketa parte hartzaileagoei bidea emanez. Eta horixe da ordenantza honen helburua, esparru horiek guztiak zehaztu eta arautzea eta herritarren ahalduntzea sustatzea gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren eta herritar guztien irisgarritasun unibertsalaren printzipioetan oinarrituta.

Ekindako bideari jarraipena emateko eta gobernantza eredu berrietan sakontzeko mugari garrantzitsua da ordenantza baten bidez zerbitzuak eta prozedurak zehaztea partaidetzari, gardentasunari, informazioari, kontu emateari eta herritarren ahalduntzeari begira.

Bide hau, baina, ez du bakarrik egin nahi Tolosako Udalak. Parte-hartze soziala eta tokiko elkarte eta kolektiboen jakintza eta praktikek Tolosako historiari egin dioten ekarpena aitortu nahi du Udalak, herri mugimendu bizia izan duen eta duen herria da Tolosa, eta, bereziki, mugimendu feministaren, emakume-taldeen eta genero-berdintasunaren alde lan egiten duten kolektiboen legatua aitortu nahi du, eta ikasgai horiek arautegi honetan barneratu nahi izan ditu. Izan ere, prozesuaren hasieratik kontuan hartu nahi izan da genero ikuspegia eta emakumeek eremu publikoan parte hartzeko egiturazko oztopoak kontuan hartuz eta hauek eraisteko helburua ere baduelako arautegi honek.

Metodologia

Lan-prozesuari dagokionez, eta koherentziaz, ordenantzaren garapena metodologia parte-hartzaile eta kolaboratiboarekin planteatu da hasieratik.



Udal barneko lanketaren gidaritzarako talde eragile bat sortu da berriaz, eta bertan egon dira alkatea, idazkaria, Komunitatea eta Gobernantza arloko zinegotzia eta teknikaria eta Berdintasun arloko teknikaria.

Era berean, epe luzeko begiradarekin lan egin nahi izan da eta horretarako ezinbestekoa izan da udalean ordezkari-tza politikoa duten alderdi guztietako ordezkari-ekin elkarlanean jardutea, arautegi honetan jasotzen denak ikuspuntu politiko guztien oniritzia izan dezan. Helburu horrekin hainbat elkarlan bilera egin dira prozesuan zehar.

Honekin aski ez, eta udal langile eta teknikari-ekin ere kontraste bilerak egin dira behin eduki guztiaren lehen zirriborroa prestatu denean.

Kanpora begirakoa herritarrekin egindako kontrasteen bidez egin da. Behin zirriborroa landuta herritarrekin partekatu eta lantzeko bi lan saio ireki egin dira edukia ezagutzera emateko eta proposamenak eta hobekuntzak jasotzeko. Aurrez aurreko saioez gain, telematikoki ekarpenak egiteko aukera zabaldu da eta jasotako ekarpenen guztien azterketa burutu ondoren, azterketaren emaitzaren itzulketa egin da eta beharrezko aldaketak ordenantzan txertatu dira behin betiko arautegia idazteko.

Ildo berritzaile nagusiak

Arautegi honen lan ildo berritzaileak bi dira nagusiki:

Genero ikuspegiaren lanketa: horretarako, bi bide erabili dira; prozesuaren abiatu aurretik proposamenaren lehen kontrastea egin zen Tolosako Mugimendu Feministako kide batzuekin, eta, ondoren, dokumentua berdintasun sailko teknikari-ekin elkarlanean landu da bilera monografikoen bidez, estrategiak adosteko eta puntu zehatzak lantzeko.

Izan ere, Tolosako Udala kontziente da emakumeek oztopoak izan ohi dituztela gizonen baldintza beretan espazio publikoan parte hartzeko, hainbat faktore direla eta; hala nola, generoaren eraikuntza soziala, lanaren sexu-banaketa, denboraren erabilera desberdina, eta emakumeek zaintza-lanetan ematen duten denbora handiagoa gizonekin alderatuz. Ondorioz, emakumeen benetako parte-hartze eraginkorra bermatu eta sustatzeko, ezinbestekotzat jo da genero-berdintasuna zeharkakotasunez lantzea ordenantza garatzeko eta ebaluatzeko prozesu osoan zehar.

Gainera, kontuan hartu behar da toki-administrazioek berdintasun-printzipioa txertatu behar dutela beren arau- eta administrazio-jardueran, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako



otsailaren 18ko 4/2005 Legean xedatutakoaren arabera. Lege horren 19. artikuluan, administrazioei eskatzen zaie generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko, administrazio-arau edo -egintza bat egin aurretik. Horregatik, Tolosako Udalak, ordenantza hau onartu aurretik, udalaz kanpoko erakunde independente bati agindu dio ordenantza hau aztertzeko eta genero eraginaren berri emateko. Beraz, txosten honen aholkuak jarraituz, arautegi honek jasoa du azterketa horren oniritzia. Txosten horrek eragin positiboa aurreikusten du emakumeen eta gizonen berdintasunean; izan ere, ordenantzak esplizituki jasotzen du helburu hori, berdintasunaren arloko zeharkako aginduak betetzen direla ziurtatzen du eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko neurri espezifikoak proposatzen ditu.

Era berean, ertzetako begirada honi esker, ikuspegia zabaldu egin da eta espazio publikoan azpi-ordezkatuta egon ohi diren bestelako giza taldeen parte hartzeko bideak kanalizatu nahi izan dira. Horretarako, begirada intersektionala lagungarria izan da: adina, hizkuntza, klase soziala, jatorria, sexu- eta genero-aniztasuna, aniztasun funtzionala... Arautegi honen bidez hauek guztiak kontuan hartuko dituen parte hartze eredu inklusibo eta eraldatzailearen oinarriak finkatu nahi izan dira, kontuan hartuta honek bide bat markatzen duela eta, egun batetik bestera lortuko ez bada ere, norabidea markatzeko lagungarria izango zaigula.

Zentzu honetan, aipagarria ere bada euskararen normalizazioaren bidean arautegi honek egin nahi izan duen ahalegina eta informazioaren kudeaketa oro eta ekitaldi publikoen bidez edo partaidetza prozesu orotan euskal hiztunen hizkuntza eskubideak bermatzeko egin den ahalegina.

Era berean, herritar guztien aniztasun funtzionalak kontuan hartuta, pertsonen parte hartzea oztokatzen dituzten mugak ezabatze alderako neurriak hartu ditu Tolosako udalak; hala nola, gor-mutuentzako interprete zerbitzuak aurrez aurreko harremanetan zein webguneko informazioan.

Bigarren ildo berritzailea garapen komunitarioaren ikuspegia barmebiltzea izan da: partaidetza arautu ohi duten ordenantzetan elkartegintzaren babesa eta laguntza jaso ohi dira. Tolosako Udalak hori jaso eta zabaldu nahi izan du, bi aspektu berri gehituz: herritarren trebakuntza eta formazioa, alde batetik, Tolosako Eskola Irekiaren bidez gauzatzen ari dena 2020tik, eta elkarlan publiko sozialaren bidez, bestetik. Kasu honetan, gai publikoei buruzko kudeaketa eta inplikazio modu berriak bilatu nahi dira, komunitatea eta zibilaren inplikazioa eta elkarlana bilatuz guztion ondare diren gaien kudeaketari dagokionez.



Egitura

Arautegiaren edukiari erreparatuta, ordenantza honetan jaso dira gardentasuna eta herritarrekiko informazioaren kanalizazioa, herritarren parte-hartzearen aukerak eta komunitatearen ahalduntze eta garapenaren biderako aukerak.

Lehen titulua da “Gardentasuna eta informazioarekin kudeaketa Tolosako udalean”. Lehen atal honetan, informazio publikoa eskuratzeko bideak arautu dira eta herritarrek beren eskubideak gauzatzeko duten gaitasuna aztertu da.

Tolosako herritarrek udalarekin harremanetan jartzeko dituzten informazio eta komunikazio bideak ere zehaztu eta arautu dira.

Bigarren titulua “Herritarren partaidetza artikulatzeko bideak” du izena. Atal honetan tolosarrek parte hartzeko dituzten eskubideak, Tolosako Udalak parte hartzea bideratzeko eratuta dituen organoak eta espazioak, herritarren ekimen bidezko egitasmoak gauzatzeko prozedurak, parte hartze prozesuek bete beharreko baldintzak eta herri kontsultak gauzatu ahal izateko prozedurak zehaztu dira.

Hirugarren eta azken tituluak, “Komunitatearen garapena bultzatzeko egiturak” du izena. Bertan, ulertzen da komunitatearen garapenerako eta kalitatezko partaidetza eman dadin, herritarren ahalduntzea, trebakuntza eta formazioa ezinbestekoak direla, herritar aktibo eta antolatuen elkartegintza sare osasuntsuarekin batera.

Horretarako, egiturak sortu behar dira eta herriko elkarte sarea sustatu, herriko elkarte eta herriko kolektibo desberdinei esker baita Tolosa herri aktiboa eta parte-hartzailea, eta, hortaz, herri ondarea diren heinean horiek guztiak sostengatzeko baliabideak arautzea eta lankidetzako publiko-soziala sustatzeko borondatea arautu nahi izan du Udalak atal honen bidez. Herri modura, bakoitza bere eremutik, baina elkarlanean, elkarren arteko aliantzatik, etorkizuneko erronkei aurre egiteko modu bateratuan.

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea

1.- Araudi honen xedea da Tolosako Udalaren eta herritarren arteko harremanak eta parte hartzeko bideak arautzeko modu, bitarteko eta prozedurak zehaztea, eta, horrenbestez,



herritarrak ardatz dituen gobernantza ereduari sostengua ematea.

2.- Horrekin batera, Tolosako udalak gardentasun arloa betetzea eta herritarrekiko informazio eta komunikaziorako egiturak zehaztea du xede.

3.- Arautegi honetan ere zehazten dira Tolosako komunitatearen garapenerako funtsezkoak diren arloetarako moduak, bitartekoak eta prozedurak: hala nola, gizabanakoen eta giza taldeen ahalduentzeari buruzkoak, elkartegintzaren sostenguari buruzkoak eta elkarlan publiko-sozialerako markoak eta bitartekoak.

4. Azkenik, arautegi honetan jasotakoak printzipio hauetan oinarrituta daude: interes komunaren lehentasuna, aniztasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza, inklusioa, irisgarritasun unibertsala, datu pertsonalen babesa, eskuragarritasuna, gardentasuna, ulergarritasuna, publizitate aktiboa eta kontuak ematea.

2. artikulua. Aplikazio esparrua

1.- Gardentasunari dagokionean, Tolosako udalari berari eragiten dio, bai eta bere menpeko erakunde autonomoei eta udal titulartasunpeko sozietateei ere, barne egituran izan dezakeen eraginarengatik.

2.- Gainerako alorrei dagokienean, arautegi honen aplikazio esparrukoak dira, kasu bakoitzean ezarritako berezitasunekin, Tolosako biztanleak eta bertan jarduten duten herritarren elkarte eta kolektiboak.

Arau honetan arauturiko eskubide batzuk erabili ahal izateko, udalerriko biztanle izatea eskatuko da, edo herritarren elkarte, kolektiboen eta erakunde juridikoen kasuan, helbidea, egoitza edo jarduera esparrua Tolosan dutela egiaztatzea, eta beharreko ordezkagarritasuna izatea.

3.- Araudi honen ondorioetarako, bertako biztanletzat hartuko da Udaleko biztanleen erroldan inskribatua dagoen pertsona oro. Halaber, Tolosako herritartzat hartuko da udalerrian bizi den pertsona oro.

4.- Arau honen ondorioetarako, herritarren elkarte edo kolektibotzat hartuko da helbide soziala, egoitza edo jarduera esparrua Tolosako udalerrian duen oro. Halaber, arau honetako eskubideak egikaritzeko, herritarren elkarte eta kolektiboek emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioa bete beharko dute.

5.- Arau honen ondorioetarako, erakunde juridikotzat hartuko da helbide soziala, egoitza edo jarduera esparrua Tolosako udalerrian duen entitate oro.

6.- Udalerrian erroldatuta ez dauden pertsonak, kolektiboek edo langileek ere parte hartu ahal izango dute aurrera eramaten diren parte hartze prozesuetan, kasu bakoitzerako finkatuko diren baldintzen arabera.



3. artikulua. Helburuak

Honako helburu eta jarduera printzipio hauek ditu araudi honek:

1. Gobernantza onaren bidean zerbitzuak eta prozedurak definitzea partaidetza, gardentasuna eta informazioa eta ahalduntze eta trebakuntzaren bidean.
2. Partaidetzarako araudi esparrua zehaztea.
3. Herritarren eskubideak bermatzea.
4. Organo iraunkorren izaera eta funtzionamendua gaurkotzea Tolosako udalaren antolaketa instituzionala kontuan hartuz.
5. Partaidetzan oinarritutako prozesuen kalitatea bermatzea.
6. Lankidetzara publiko-sozialeko formulak zabaltzea eta sendotzea.
7. Gardentasun eta komunikazio eskubideak eta prozedurak definitzea
8. Udal teknikari eta politikarien prestakuntza eta trebakuntza aurreratzea.
9. Herritarrak eta eragileen ahalduntzean eragitea udalarekin izan behar dituzten jardueren inguruan.
10. Arautegi hau eratzeko partaidetza prozesuan zehar eta arautegi honetan bertan gizon eta emakumeen arteko berdintasuna eta interseksionalitatea aintzat izatea eta bere tresna eta prozedura desberdinen baitan, emakumeen eta gizonen parte hartze orekatua bermatzeko neurriak edota mekanismoak aurreikustea, modu errealean eta eraginkortasunez aplikatuak izan daitezten.

Zeharkako helburuak:

1. Tolosako udalean partaidetza kultura garatzeko beharrezko aldaketak sartzeara.
2. Partaidetzaren eragina behartzea udal politiketan eta erabaki hartzean.
3. Gobernantza publikoan berrikuntza sustatzea ondorengo lau ardatzetan:
 - Berrikuntza demokratikoa.
 - Berrikuntza soziala.
 - Berrikuntza zerbitzu publikoetan.
 - Berrikuntza metodologikoa.

4. artikulua: Jarduteko printzipio etikoak Tolosako udalean

Tolosako Udalaren zerbitzura ari diren pertsona guztiek, eta bereziki, dagozkien udal organoetan erabakiak hartzeko gaitasuna dutenek, ondoko jokaera printzipio hauen arabera jardungo dute: zintotasuna, eredugarritasuna, inpartzialtasuna, gardentasuna, zuzentasuna, berdintasuna, errespetua, zerbitzu publikoarekiko dedikazioa eta kontuak ematea. Funtzio publikoaren eta toki erregimenaren alorreko legeriak eta gobernu egokiaren, gardentasunaren eta herritarren parte hartzearen alorreko araudi espezifiko osoak haiei buruz egiten duen definizioaren arabera interpretatuko dira printzipio etiko horiek.



I. TITULUA: GARDENTASUNA ETA INFORMAZIOAREN KUDEAKETA TOLOSAKO UDALAN

I. KAPITULUA: GARDENTASUNA EKINTZA PUBLIKOAN

5. artikulua. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea

1.- Informazio publikoa da toki-erakundeen esku dagoen informazio oro, beren eginkizunen barruan landu edo eskuratu dutena, edozein dela ere informazio horren euskarria eta adierazpidea.

2.- Tolosako Udalak informazio publikoa eskuratzeko eskubidea bermatuko du toki erregimeneko legeriak eta gardentasunari, informazioa eskuratzeari eta gobernu egokiari buruzko legeria espezifikoak jasotako baldintzetan.

3.- Herritar guztiek dute informazio publikoa jasotzeko eskubidea, dagokion eskabidea egin ondoren eta baita informazio hori jasotzeko hizkuntza hautatzeko eskubidea ere, EAEko bi hizkuntza ofizialetako batean.

4.- Informazioa eskuratzeko eskaeren erregistroa eramango du Udalak. Informazio publikoaren eta gardentasunaren arloan sustapen eta koordinazio eskumenak dituen sail edo udal zerbitzuaren mende egongo da erregistroa.

5.- Era berean, gardentasunaren alorrean eskumena duen sail edo udal zerbitzuak urteko txostena egingo du, eta bertan, aurkeztutako eskaeren kopurua aipatuko du eta eskaera horiek nola erabaki diren zehatz azalduko du (zenbakia eta onartzeko, zati batean onartzeko, atzera botatzeko eta ez onartzeko arrazoiak); era berean, eskatzaileen profila azalduko du, sexua eta komunikazioan erabili duten hizkuntza bame.

6. artikulua. Gardentasuna

1.- Gardentasuna da herritarrei Tolosako udalaren esku dagoen informazio publikoa erraz ulertzeko moduan eskuratzeko bidea ematea.

2.- Gardentasunak udaleko jarduera publikoa ikustaraztea du helburu: antolaketari, ekonomia- eta aurrekontu-kudeaketari, araudi erregulatzaileri eta jarduera-datuei buruzko informazioa. Hartara, herritarrek jakin ahal izango dute Udala nola gobernatu eta administratzen den, zer erabaki, nola eta zergatik hartu diren eta baliabide publikoak zertan erabiltzen diren, jarduera publikoa ebaluatu ahal izateko eta boterea arduraz baliatzen dela bermatzeko. Horrez gain, informazioa eta gardentasuna funtsezko baldintza dira herritarren partaidetzarako.

3.- Gardentasuna bi modura ahalbidetu daiteke: publizitate aktiboaren bitartez eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea gauzatzearen bitartez.

4.- Gardentasuna bermatzeko, Tolosako Udalak bere jarduera ezagutzera emango du, betiere, aplikagarria zaion legeriak ezarritako esparru eta mugen barruan. Udal sail bakoitzak ziurtatu beharko du argitaratzen duen informazioa eguneratuta dagoela uneoro.



5.- Herritarren eskura jartzen den informazioa kalitate handienekoa izan dadin honako printzipioak zainduko ditu Tolosako Udalak: informazioa egiazkoa, objektiboa, argia, koherentea, denboran egokia, materialki nabarmena, egituratua, zehatza, ulergarria, osoa, segurua, erraz erabiltzeko modukoa, irisgarria, kanal anitzekoa, konparagarria, formatu anitzekoa, eta elkarreragingarria eta berrerabilgarria izatea, legeak ezartzen duen baldintzetan. Informazio horrek ez du hizkuntza sexista erabiliko eta Tolosako Udalak ezarrita dituen hizkuntza irizpideak beteko ditu.

6.- Eten digitala gainditzeko, egiturazko hainbat arrazoi medio direla eta; hala nola, adina, generoa, klasea edo jatorria, teknologiarako irisgarritasun neurriak ezartzea sustatuko da, eta, posible den neurrian, ordezeko bitartekoak jartzea aztertuko da.

7.- Tolosako Udalak gardentasunerako estrategia definituko du eta gardentasun-betebeharren jarraipena eta kontrola egingo du.

7. artikulua. Publizitate aktiboa

1.- Publizitate aktiboa herritarren interesekoa den informazio publiko guztia aldizka, eguneratuta eta modu ulergarrian publiko egitean datza, konpromisoak nola betetzen dituen modu frogagarrian ezagutaraziz eta tokiko botere publikoek herritarrei kontuak ematea gauzatuz, komunikazio-interakzioko prozesua sustatu ahal izateko.

2.- Udalak modu jarraituan, sortu ahala, zabalduko du herritarren interesekoa den informazio garrantzitsuena Interneteko atariaren, udal informazio zerbitzuen edota administrazio zerbitzuen bidez. Hori guztia herritarrek jakin dezaten tokiko gobernua eta administrazioa nola antolatzen diren, zein eginkizun dituen, bere erabakietan zein esparru eta politika lehenesten dituen, eta tokiko zerbitzu publikoen kudeaketan baliabideak nola esleitzen dituen.

3.- Garrantzi publikoko eta herritarren interesekotzat hartzen da gutxienez toki erregimeneko araudiak eta gardentasunaren alorreko legeria espezifikoak jasotzen duen informazio guztia, eta baita udal arduradunek, ofizioz edo herritarren interesak ordezkatzan dituzten erakundeek eskatuta, egokitzen hartzen duten informazio guztia.

Udalari eta antolamenduari buruzko informazioa.

Informazio juridiko-normatiboa.

Tokiko politika publikoen eta zerbitzu-zorroaren gaineko informazioa.

Kudeaketa publikoari buruzko informazioa.

Toki-erakundeen zerbitzurako langileei buruzko informazioa.

Informazio ekonomiko-finantzarioa eta aurrekontuei buruzko informazioa.

Interes orokorreko informazioa.



- 4.- 3. Puntuari zehaztu den informazio guztia datuak sexuaren arabera bereizita argitaratuko da Tolosako Udalak, hala dagokionean.
- 5.- Ez da hizkera sexista erabiliko, ezta emakumeen diskriminazioa edo estereotipo sexistarik erakusten duen irudirik ere argitaratuko den dokumentazio, publizitate, irudi edo material orotan.
- 6.- Artikulu honetan azaldu den informazio guztia euskaraz edo ele bitan (euskaraz eta gaztelaniaz) argitaratuko da.

8. artikulua.– Udalari eta antolamenduari buruzko informazioa.

1.– Arlo honetan, gardentasunari buruzko gutxieneko betebeharrak honakoak dira:

- a) Udalaren organoak, beharrezkoak eta osagarriak, honako hauek adierazita: beraien titularrak (osaera), horiek betetzen dituzten eginkizunak eta horiei aplikagarri zaizkien arauak. Era berean, publiko egingo dira organo bakoitzaren gai-zerrendak eta hartzen dituzten erabakiak.
- b) Udalean eta gobernu-taldeetan ardura politiko gorena duten pertsonen buruzko informazioa, curriculumeko datuak barne.
- c) Publiko egingo dira udaleko gobernu-plana, agintaldiko plana edo jarduera-plana eta bakoitzaren betetze-maila. Agintaldi plana agintaldiaren lehenengo urtean egingo da publiko eta urteko jarduera plana ekitaldi bakoitzaren hasieran argitaratuko da, eta jarduera planaren betetze maila ekitaldi bakoitzaren itxieraren aurretik argitaratuko da.
- d) Alkatearen eta zinegotzien arduraldi-araubidea.
- e) Udalean eta bere menpeko erakundeetan behin-behinekoak diren lanpostuen zerrenda.
- f) Udal ordezkarien ondasun eta jardueren buruzko urteroko aitorpenak, indarrean dagoen legerian ezarritako eran.
- g) Udaleko alderdi politikoen buruzko informazioa.
- h) Toki-erakunde arlo eta sailen antolamendu-egitura eguneratua; berariaz aipatu beharko dira zuzendaritzako edo erantzukizuneko lanpostuak, lanpostu horiek betetzeko zer profil behar den eta lanpostu horiek betetzen dituztenek zer ibilbide profesional daukaten.
- i) Aholku-organoak eta gizarte-partaidetzakoak, haien jarduera eta erabakiak barne.
- j) Edonolako erakunde instrumentalak, eta arduradun gorenak zein diren eta haien antolamendu-egitura zer-nolakoa den ere adierazi beharko da.
- k) Antolamendu-egituren plan eta programak –beren xede zehatzak eta horiek gauzatzeko aurreikusitako baliabideak eta epea identifikatuz–, eta plan eta programon betetze-maila eta emaitzak, zeinak aldizka ebaluatu eta argitaratu beharko baitira, toki-administrazio eskudunak zehazten duen eran, neurketa eta balorazioko adierazleekin batera.

9. artikulua.– Informazio juridiko-normatiboa.

Arlo honetan, gardentasunari buruzko gutxieneko betebeharrak honakoak dira:



- a) *Udal ordenantza, erregelamendu eta aurrekontuen proiektuak, beranduenera ere, hasierako onarpena eman eta berehala argitaratuko dira.*
- b) *Publikoak izango dira, halaber, udal-organoek onartutako erabakiak, baldin eta zuzenbidea interpretatzen badute edo ondorio juridikoak badituzte.*
- c) *Tolosako udaleko aholku-organoen txosten edo irizpenak ere publikoak izango dira.*
- d) *Herritarren partaidetzako prozesuen txostenak eta ondorioak, halakorik baldin badago.*
- e) *Hasita, martxan eta bukatuta dauden partaidetzako prozesuak. Eta bereziki, prozesu horiekin lotutako txostenak.*

10. artikulua.– Tokiko politika publikoen eta zerbitzu-zorroaren gaineko informazioa.

Arla honetan, gardentasunari buruzko gutxieneko betebeharrak honakoak dira:

- a) *Tolosako udalak modu argi, irisgarri, ulergarri eta errazean zabalduko du zer sartzan den herritarrei eskaintzen dieten zerbitzu-zorroan, eta berariaz zehaztuko du zer ondasun eta prestazio eskaintzen dituen zenbatekoa den horien kostua, bai osotara eta bai pertsona bakoitzeko.*
- b) *Era berean, publiko egingo ditu zerbitzu-kartak edo pareko dokumentuak, eta, halakorik dagoenean, zerbitzuen kalitatea ziurtatzeko edo egiaztatze prozesuak.*
- c) *Eskaintzen den zerbitzu bakoitzaren ordutegia eta ordaindu beharreko prezio publikoak edo udal-tasak zehaztuko dira.*
- d) *Gainera, informazio agregatua, laburra eta argia eskainiko da honako zerbitzu hauen gainean:*

Erregistroa eta Informazioa, Herritarren Arreta Zerbitzua (UDATE).

Hiritarren Segurtasuna.

Hirigintza.

Ingurumena, Mugikortasuna eta Trantsizio Energetikoa.

Obrak eta Zerbitzuak.

Garapen Ekonomikoa eta Enpleguaren Sustapena.

Gizarte zerbitzuak

Ekonomia-jarduerak eta lizentziak

Turismoa, Merkataritza eta Azokak

Euskara eta Euskaltegia.

Hezkuntza Politika.

Kirolak

Kultura eta festak

Gazteria

Komunitatea eta Gobernantza

Berdintasuna



11. artikulua.– Kudeaketa publikoari buruzko informazioa.

Arlo honetan, gardentasunari buruzko gutxieneko betebeharrak honakoak dira:

- a) Kontratu guztiak publikoak izango dira, honako hauek adierazita: xedea, iraupena, lizitazio- eta esleipen-zenbatekoa, zein prozeduraren bidez egin den, zein bitartekoren bidez iragarri den, prozeduran parte hartu duten lizitatzailen kopurua, esleipendunaren nortasuna, eta kontratuaren aldaketak eta luzapenak. Kontratuetan atzera egiteko eta kontratuari uko egiteko erabakiak ere argitaratuko dira.
- b) Datu estatistikoak sektore publikoko kontratuen legedian aurreikusitako prozeduretako bakoitzaren bidez esleitutako kontratuak aurrekontuaren gainean hartzen duten ehunekoari buruz.
- c) Ezarritako zigorrak, hala badagokio, kontratisten ez betetzeengatik.
- d) Suntsiarazitako kontratuen zerrenda. Bereziki, publiko egingo dira kontratuetan atzera egiteko eta uko egiteko erabakiak.
- e) Kontratu txikiak hiru hilabete behin argitaratuko dira, modu agregatuan, eta argitaratzen direnetik gutxienez 12 hilabetez emango da horien berri.
- f) Sektore publikoko kontratuei buruzko legerian aurreikusitako prozedura bakoitzaren bidez esleitutako kontratuak aurrekontuaren gainean zenbateko ehunekoa hartzen duten adierazten duten estatistika datuak argitaratuko dira.
- g) Sinatutako hitzarmenen zerrenda, honako hauek adierazita: sinatzaileak, xedea, iraupena, aldaketak, prestazioak eta adostutako betebeharrak ekonomikoak –halakorik baldin badago–.
- h) Sinatzen diren kudeaketa-gomendioak ere argitaratuko dira, honako datu hauek adierazita: xedea, aurrekontua, iraupena, betebeharrak ekonomikoak eta azpikontratazioak, berariaz aipatuz esleipendunak, esleipena egiteko jarraitutako prozedura eta esleipenaren zenbatekoa.
- i) Emandako diru-laguntza eta laguntza publikoak: zenbatekoa, xedea edo helburua, eta onuradunak.

12. artikulua.– Toki-erakundearen zerbitzurako langileei buruzko informazioa.

Arlo honetan, gardentasunari buruzko gutxieneko betebeharrak honakoak dira:

- a) Publiko egingo dira enplegu publikoaren eskaintzak, zenbateraino bete diren, eta funtzionario eta lan-kontratupeko langileentzako hautaketa-prozesuak –deialdiak, eta izendapenera arteko edo kontratua sinatu arteko egintza guzti-guztiak barne–.
- b) Toki-administrazioek edo beste erakunde mota batzuek emandako ikastaroak eta prestakuntza-programak.
- c) Sindikatu ordezkarietako organoak osatzen dituzten kideak eta horretarako liberatuta dauden pertsonen kopurua, berariaz aipatuko da zer ordu-kreditu duten.



- d) Lanpostuen zerrendek taula sinoptiko bat jasoko dute, non, kategoriaren arabera ordainsari individualizatua jartzeaz gainera, antolamendu-tresna horren elementu garrantzitsuenak laburtuko diren.
- e) Bateragarritasun-adierazpenen arloan eskumena duen organoaren ebazpenak.

13. artikulua.– Informazio ekonomiko-finantzarioa eta aurrekontuei buruzko informazioa.

Arlo honetan, gardentasunari buruzko gutxieneko betebeharrak honakoak dira:

- a) Tolosako Udalaren aurrekontuak argitara emango dira osorik eta eguneratuta, modu erraz, argi eta grafiko batean, partida nagusiak deskribatuko dira eta informazio zehatza emanez beraien exekuzio-maila ezagutzeko eta ekitaldian zehar onetsitako aurrekontu-aldaketak jakiteko.
- b) Argitaratu beharreko urteko kontuak, eta kanpo-kontrolako organoek horiei buruz egiten dituzten kontu-auditorien eta fiskalizazioen txostenak.
- c) Aurrekontu-egonkortasunerako eta finantza-jasangarritasunerako helburuak betetzeari buruzko informazioa.
- d) Diru-sarrera eta gastuei buruzko oinarritzko informazioa.
- e) Hornitzaileen ordainketaren arloko berankortasunaren gaineko legeria betetzeko epeak.
- f) Ondareko ondasun higiezin zerrenda, hala bere jabetzakoak direnena nola haien gaineko eskubide errealeen bat duenena.
- g) Kontzeptu guztiak hartuta toki-erakundeko ordezkari politikoek eta zuzendaritzako langileek jasotzen dituzten ordainsariak, eta kargua edo eginkizuna utzi ostean jasotzen dituzten kalte-ordainak –halakorik izanez gero–.

14. artikulua.– Interes orokorreko informazioa.

- 1.– Herritarrentzako interesekoa den informazioa ere argitaratuko da, ahaztu gabe betiere dagokion arautegi espezifikoak ezarritako informazio-betebeharrak.
- 2.– Ezagutzera emango dira herritarren arretarako eta partaidetzarako zerbitzuak eskaintzeko dauden kanalak.

15. artikulua.– Datuen irekitasuna.

Arautegi honen aplikazio-eremuak eragindako subjektuek beharrezkoak diren ekintzak sustatu beharko dituzte beren eskura dauden datuen benetako irekitasunerako, berrerabiliak izan daitezen, betiere pribatutasun-, segurtasun- eta jabego-murrizketak erabat errespetatuz. Datu-irekitasuntzat ulertzen da datuak eskuera jartzea web-bidez eskuragarri izango den formatu digital, estandarizatu eta irekian, egitura argi eta esplizitu bati jarraituta, herritarrek eta agente konputazionalek ulertu eta berrerabili ahal izateko eran.



16. artikulua.– Informazioaren berrerabilpena.

1.– Tolosako udalak informazio publikoa berrerabil dadin bultzatuko du, sektore publikoko informazioa berrerabiltzearen inguruko oinarrizko legeriarekin bat, herritarrek toki-erakundeen esku dauden eta nahi erara erabiltzeko diren datuak baliatu ahal izan ditzaten.

2.– Berrerabilpena da Tolosako Udalaren esku dauden datuak eta informazioa herritarrek erabiltzea helburu komertzial edo ez-komertzialekin, betiere erabilera hori administrazio publikoaren jardura bat ez bada eta arlo horretan aplikatu beharreko legerian aurreikusitakoarekin bat etorritik burutzen bada.

II. KAPITULUA: HERRITARREKIKO INFORMAZIO, KOMUNIKAZIO ETA ORIENTAZIO EGITURAK

17. artikulua. Herritarrekiko informazio, komunikazio eta orientazio bideak

1.- Tolosako Udalak informazio, komunikazio eta orientazio kanalak jarriko ditu herritarren eskura, udal jarduerak eta zerbitzuak ezagutu ditzaten, eta edozein pertsonaren eskariak modurik egokienean asetzeko orientabideak eman ahal izateko.

2.- Herritarrei behar duten informazioa zabaltzeko Udate zerbitzuak oinarrizko bide hauek erabiliko ditu, Tolosako udaleko Herritarren arreta zerbitzua arautzen duen ordenantzaren 16. artikuluan zehazten den bezala:

a) Aurrez aurreko arreta Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan.

b) Telefono bidezko arreta

c) Udaleko webgunea

d) Udaleko iragarki-taula

e) Argitalpenak, buletinak, bandoak, informazio panelak.

f) Sare sozialak, SMSak, aplikazioak eta bestelakoak.

3.- Informaziorako eskubidea bermatze aldera, Tolosako Udalak behar diren mekanismo guztiak ezarriko ditu informazioa zabaltzeko sistemak berdin irits daitezten emakume eta gizonengana, bai eta erregistroan inskribatuta dauden herritarren talde, kolektibo eta erakunde guztiengana ere, eta hizkuntza inklusiboa erabiliko du horretarako.

4.- Era berean, Udalak beharrezkoak diren baliabideak jarriko ditu arrakala digitalaren ondoriozko desberdintasunak eta gizarte-, ekonomia-eta lurralde-baldintzatzaileak zuzentzeko eta gainditzeko.

5.- Tolosako Udalean indarrean dauden hizkuntza irizpideak beteko dira informazioa zabaltzeko eta herritarrekiko komunikazioa eta orientazio lanak gauzatzeko. Hau da, euskaraz edo ele bitan bideratuko dira, betiere herritarrek aukeratutako hizkuntzaren arabera.



18. artikulua. Herritarrei zuzendutako arreta integrala eta zentralizatua

1.- Herritarrek Udalarekin duten harremana hobetu eta arintzeko, Tolosako Udalak arreta integrala eta zentralizatua eskainiko die herritarrei, Udateren (HAZ) bitartez.

2.- Herritarrentzako erreferentziazko zerbitzua da Udate, eta bertatik eskainiko zaizkie herritarrei esku-hartze tekniko espezializatua behar ez duten udal zerbitzu gehienak: udalerrari eta udalari buruzko informazioa eman, izapideak egin eta kudeatuko dira bertatik.

3.- Herritar guztien ezaugarri eta beharretara bermatzeko asmoz, zerbitzu honek kanal anitzeko formulak erabiliko ditu. Horretarako, aurrez aurreko, telefono bidezko eta bitarteko elektronikoen bidezko arreta moduak konbinatuko ditu.

4.- Informazio guztia euskaraz egongo da, eta aurrez aurreko zerbitzuan, udal langileak lehen hitza euskaraz egingo du. Nolanahi ere, herritarren hizkuntza aukeraren arabera arreta egingo da.

5.- Era berean, beharrezkoa izanez gero, pertsonen komunikazio eta informazio eskubideak betetzeko beharrezkoak diren baliabideak jarriko ditu Tolosako Udalak, hala nola, zeinu hizkuntza bidezko interpreteak edo bestelakoak.

19. artikulua. Interneteko ataria

1.- Tolosako Udalak informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera bultzatzeko betebeharra du, espediente elektronikoaren eta bere udal webgunearen garapenaren bidez, honako hauek lortzeko:

Udal administrazioarekiko kudeaketak ahalik eta gehien erraztea.

b) Erakundearen eta gobernu organoen jarduerari buruzko informazio eguneratua eskaintzea.

c) Administrazioaren eta herritarren artean komunikabide interaktiboa ahalbidetzea.

d) Herritarren parte hartzea bultzatzea, herritarren ekarpenak jasotzeko eta erantzunkidetasun soziala bultzatzeko proiektu garrantzitsuetan erabakiak hartzeko.

e) Interneteko atariko informazio guztia EAEko bi hizkuntza ofizialetan egongo da eta erabiltzaileak aukeratu ahal izateko nahiago duen hizkuntza.

20. artikulua. Egoitza elektronikoa

1.- www.tolosa.eus helbide elektronikoa finkatu da udal Administrazioaren egoitza elektronikoro orokor gisa, eta bertatik zuzeneko sarbidea egongo da Udalak herritarrei zerbitzu elektronikoak emateko sortzen dituen egoitza espezifiko guztietara, bai eta aurrez aurreko (Udate) eta telefono bidezko (010 zenbakia) informazio eta kudeaketa sistemen osagarri gisa ere.

21. artikulua. Udal komunikabideak

1.- Tolosako Udalak udal mailako komunikabideak sustatuko ditu herritarrentzako informazio esanguratsua argitaratzeko baliabide gisa. Argitalpenerako kanal konbentzionalak zein



informazioaren teknologia berrietan oinarrituriko bideak baliatuko dira haien erabilera eta garapena ahalik eta gehien bultzatzeko.

2.- Hiru hilean behineko maiztasunarekin udal aldizkaria argitaratuko du udalak interes publikokoa den udal informazioa herritarrengana helarazteko.

3.- Komunikabide hauetako edukietan ez da hizkera sexista erabiliko, ezta emakumeen diskriminazioa edo estereotipo sexistarik erakusten duen irudirik ere.

4. Komunikabide hauetan euskararen presentzia bermatuko da Tolosako Udalean hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko hizkuntza irizpideak jarraituz.

22. artikulua. Udal ordezkariengana iristeko aukera

1.- Alkateak eta haren ordezkariak araudi honetan jasotako baldintzetan erantzungo diete hitzordu eskaerei.

2.- Udal Taldeen bozeramaileek eta kideek, planteatzen zaizkien hitzordu eta elkarrizketa eskaerei erantzungo diete, dituzten giza baliabideek eta baliabide materialek horretarako aukera ematen duten heinean.

3.- Udal ordezkariengana telefono bidez edo bide telematikoen bidez iritsi ahal izateko, Udalak harremanetarako telefono zenbaki bat eta posta elektronikoko pertsonalaren helbide bat jarriko ditu gutxienez eskura, hitzorduak zehazteko helburuarekin.

II. TITULUA: HERRITARREN PARTAIDETZA ARTIKULATZEKO BIDEAK

I. KAPITULUA. HERRITARREN ESKUBIDEAK

23. artikulua. Parte hartzeko eskubidearen edukia

1.- Pertsona guztiek udal eskumeneko gai publikoetan norbanako nahiz kolektibo gisa parte hartzeko eta esku hartzeko eskubidea dute, arau honetan ezarritakoa betez.

2.- Udalari dagokio parte hartzeko eskubidea bermatu eta bultzatzea eta erabaki politikoak hartzeko prozesuetan herritarren esku-hartzea erraztea. Horretarako, bide eta tresna nahikoak sustatu behar ditu, irekiak, malguak eta denboraren erabilera egokituak, ahalik eta jende gehien eta askotarikoagoa parte hartu ahal izateko egokiak, eta genero ikuspegiarekin diseinatuak; bide eta tresna horiek zailtzen dituzten oztopoak kendu behar ditu, eta bitarteko bereziak jarri behar ditu, inguruabar edo baldintzengatik zailtasun gehiago izan ditzaketen pertsona eta taldeengana iristeko.

3.- Tolosako Udalak emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua bermatuko du berdintasun-baldintzetan, modu erreal eta eraginkorrean. Arreta berezia jarriko du eremu maskulinizatuak edo talde, kolektibo eta erakunde mistoetako emakumeek parte har dezaten.



4.- *Udal gai publikoetan parte hartzeko eskubidearen barnean honako eskubide hauek sartzen dira, gutxienez:*

- a) *Eskatzeko eskubidea.*
- b) *Entzuna izateko eskubidea.*
- c) *Kexak, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko eskubidea.*
- d) *Osoko Bilkuretan eta bestelako udal organoetan hitz egiteko eskubidea.*
- e) *Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak eskuratu eta erabiltzeko eskubidea.*
- f) *Biltzeko eskubidea.*
- g) *Herritar ekimenerako eskubidea.*
- h) *Kontsultarako eskubidea.*
- i) *Parte hartze eskubideak eraginkortasunez sustatzeko eskubidea.*

24. artikulua. Eskatzeko eskubidea

1.- *Pertsona guztiek Tolosako Udalaren eskumeneko edozein gairi buruz eskaerak edo eskabideak egin ahal izango dizkiote udal gobernuari, edo udalaren jardueren gainean argibideak eskatu, bai eskatzaileari bakarrik dagozkion gaietan eta baita interes kolektibo edo orokorra dutenetan ere. Eskaerak, jarduera zehatzen inguruko proposamenez eta argibideez gainera, bakarkako edo taldekako iradokizunak eta ekimenak jaso ditzakete.*

2.- *Eskaera egiten duen pertsonaren edo kolektiboaren nortasuna eta eskaeraren gaia modu fede emaillean jasota uzteko baliozko edozein baliabide erabiliz gauzatu daiteke eskubide hori.*

3.- *Eskaerak behar bezala beteta aurkeztuko dira, idatziz eta administrazio prozeduraren alorrean indarrean dagoen araudiaren arabera baliagarria den edozein bide erabilita, izan aurrez aurre nahiz telematikoki. Horretarako, argi adierazi beharko dira izena, abizenak, jakinarazpenerako helbidea eta modua, helbide elektronikoa, nortasun agiri nazionala edo pasaporteak, eta baita eskaeraren helburua ere.*

4.- *Taldeka egindako eskabideetan, aurreko baldintza horiek betetzeaz gainera, eskatzaile guztiek sinatu egin beharko dute, eta sinadura horren ondoan horietako bakoitzaren izen abizenak eta Nortasun Agiriaren zenbakia adierazi beharko dute. Pertsona horien datuen konfidentzialtasuna ziurtatuko du udalak.*

5.- *Udalak eskabidea jaso izanaren agiria egingo du aurkeztu den unean eta gehienez ere 10 eguneko epean onartuko du tramiterako, eta eskatzaileari jakinaraziko dio, nortasuna behar bezala egiaztatzea ez den kasuetan ezik. Horrelakoetan, 10 eguneko epea emango da okerra zuzentzeko, eta ohartaraziko da, epe hori igarotakoan ez bada erantzunik jaso eskaera ez dela onartuko.*

6.- *Eskaerak ez dira onartuko honako kasu hauetan:*

- a) *Eskaeraren gaia Tolosako Udalaren eskumenekoa ez denean.*



b) Eskerak berriazko administrazio tramitea duenean.

Azken bi kasu horietan, legeak ezarritako epean, eskaera aurkezten den egunaren hurrengotik aurrera kontatuta, ebazpen arrazoitua emango da eskaera ez dela onartu adierazteko.

7.- Eskaera tramiterako onartzen bada, Udalak gehienez ere hiru hilabeteko epean erantzun beharko du, eta hala badagokio, horretarako hartutako neurrien edo aurreikusten diren esku hartzeen berri emango du.

25. artikulua. Entzuna izateko eskubidea

1.- Legezko interesa duten edo nolabait ere ukiturik suertatzen diren pertsona guztiek dute udal prozeduren tramitazioan edo udal ekintzak egitean entzunak izateko eskubidea.

2.- Entzuna izateko eskubidea ondorengo bideen bidez gauza daiteke:

a) Alkatearen ekimenez edo udalbatzako kide kopuruaren gehiengo soilak hala eskatuta, topaketen edo berriazko bilkuren bidez.

b) Herri ekimenaren bidez, herritarren elkarte eta kolektiboek eskatuta, baita herritar partikularrek eskatuta ere, baldin eta, gutxienez, 16 urtetik gorako herritarren %2-n sinadurak aurkezten badira.

3.- Entzunaldi publikoa eskatzen dutenek arrazoiak, eta, hala badagokio, eskaerak biltzen dituen idazki bat aurkeztu beharko dute administrazio prozeduraren alorrean indarrean dagoen araudiaren arabera baliagarria den edozein bide erabilita. Eskabideari jorratu nahi den gaiari buruzko txostena erantsiko diote, baita lortutako sinadurak ere, bertan sinatzaileen nortasuna adierazita.

4.- Agiriak jaso ondoren, Alkateak Entzunaldi Publikorako deia egingo du hurrengo 30 egunen barruan. Deialdiaren eta entzunaldiaren artean 15 eguneko tartea izango da.

5.- Topaketa edo bilkurek honako funtzionamendua izango dute:

a) Eskatzaileak aztertu beharreko gaiari buruzko azalpena ematea, gehienez ere hogeita hamar minutuz.

b) Udal arduradun politikoen iritzia eta jarrera agertzea, gehienez ere hogeita hamar minutuz.

c) Bertaratuek beren iritzia eman dezaten hitz-txanda irekia, 30 minutu gehienez ere, hitza hartu nahi dutenen artean banagarriak; denbora hori laburtu daiteke hitza eskatu nahi duten pertsonen kopuruaren arabera, saioak ez dezan bi ordu eta erdi baino gehiago iraun.

d) Udal arduradunek erantzuteko txanda, hala nahi izanez gero, eztabaidan agertu diren gaiak argitzeko; gehienez ere hamar minutuko iraupena izango du.

e) Ondorioak, halakoak egonez gero.

6.- Udalbatzan ordezkariak duten talde politiko guztiek, ordezkariak txikienetik handienara ordenatuta, esku har dezakete, hitzen txanda irekiaren ondoren eta erreplikaren aurretik. Aldez aurretik adostu behar da talde bakoitzak zenbat denboran esku hartuko duen, gainerako denborak errespetatuz.

7.- Eztabaida horiek plataforma digitalaren bidez egiten direnean, ez da aipatutako denboretara egokitu beharko, haien funtzionamendua etengabea baita. Deialdi zehatzak zehaztuko du bere



dinamikaren erregulazioa, eta, nolahi ere, diskriminaziorik ezaren eta adierazpen askatasunaren printzipio demokratikoa errespetatuko du. Debekatuta dago iraingarriak izan daitezkeen adierazpenak egitea edo pertsonen buruzko oinarrizko arauak errespetatzen ez dituztenak egitea.

8.- Entzute publikoaz gain, Alkateak eta udal gobernu esparru jakin baten Ordezkarikargua dutenek hilean gutxienez 8 ordu izango dituzte Tolosako Udalak ezarritako aurretiko hitzorduen agendaren bidez herritarrek artatzeko. Hala ere, udal ordezkarik politiko orok prest egon behar du herritarrekin eta haien ordezkariekin hitzorduak eta bilerak hitzartzeko, gaiak behar bezala kudeatzeko premiazkotzat edo/eta beharrezkotzat hartzen badira. Hori guztia beren irizpide askearen arabera telefonoz edo telematika bidez pertsonekin edo erakundeekin izan dezaketen komunikazioaren kalterik gabe.

26. artikulua. Kexak, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko eskubidea

1.- Pertsona guztiek dute bakarka nahiz taldean udalaren eta tokiko zerbitzu publikoen jardueraren aurrean kexak, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko eskubidea.

2.- Abisuak, kexak eta iradokizunak aurkezteko, Tolosako Udalak, Udate zerbitzuaren (HAZ) bidez, leihatila bakarraren kanal anitzeko sistema ezarria du eta honako hauek jasotzen ditu: aurreko aurreko bidea, Herritarren Arreta Zerbitzuaren bulegoetan; bide telematikoa, egoitza elektronikoaren bidez; eta telefono bidea, 010 telefonoaren bidez.

3.- Udatek (HAZ) kexak, erreklamazioak eta iradokizunak jaso eta dagokien organora edo zerbitzura bideratuko ditu, bertan azter ditzaten.

4.- Kexak, erreklamazioak eta iradokizunerako eskubideak erabiltzen dituzten pertsonak erantzun idatzi bat jasoko dute, arrazoiak azalduz, 3 hilabeteko gehienezko epean. Edozein kasutan, 10 eguneko epean, kexa, erreklamazioa edo iradokizuna aurkezten den egunaren hurrengotik aurrera kontatuta, komunikatuko zaio eskatzaileari bere idatzia dagokion sailera bideratu dela.

27. Osoko Bilkuretan hitza eskatzeko eskubidea

1.- Udalbatzaren Osoko Bilkurak publikoak dira.

2.- Edozein herritarrek hitza eskatu ahal izango du osoko bilkuretan, idatziz egiten bada osoko bilkura baino gutxienez 8 ordu lehenagotik. Eskaera gai zerrendako puntu gisa jasoko da Idazkaritza Nagusiak horren berri izaten badu Osoko Bilkura egin baino 72 ordu lehenagotik, deialdiko gai zerrendan sartu ahal izateko; bi epe hauen barnean sartuko ez balitz, galderen eta eskarien txanda amaitutakoan eztabaidatuko da gaia.

3.- Eskaeran argi adierazi beharko dira izena, abizenak, nortasun agira edo pasaportearen eta jakinarazpenerako telefonoa eta helbide elektronikoa.

4.- Eskaera egin duen pertsonak 10 minutu izango ditu eta alkateak edo dagokion zinegotziak erantzun ahal izango dio, erantzuteko eta erantzunari erantzuteko aukera bakarrarekin, hurrenez hurren. Eskatzaileak denbora gehiago beharko balu, eskaerarekin batera adierazi beharko du



zenbateko denbora tarte estimatua beharko duen, artikulua honetako bigarren puntuan adierazten diren baldintzetan.

5.- Publikoan dagoen edonork hitza hartu ahal izango du galderen eta eskarien tarte baliatuz.

6.- Osoko Bilkura berezietan herritarrek ezin izango dute hitz egin.

28. artikulua. Batzorde informatiboetan hitza eskatzea

1. Udaleko Batzorde Informatiboetako kide egonkorak politikari hautetsi eta udal teknikariak dira.

Beren garapenari dagokionez Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 30.3 artikulua hartuko da kontuan.

2.- Gai-zerrendak, bileretan eskuarki parte hartu ohi dutenei bidaltzeaz gainera, iragarki taulan argitaratuko dira 48 ordu lehenago. Gai zerrenda horretako punturen batekin inguruan hitza hartzeko interesa duen herritarrek edo kolektiboak batzordeko idazkariari edo lehendakariari eska diezaioke, gutxienez 8 ordu lehenagotik, hartan parte hartzea. Lehendakaritzak parte hartzeko aukera eman edo ukatu ahal izango dio horren arrazoiak emanda.

3.- Eskaera egin duen herritarri hitz egiteko tarte utziko zaio eta batzordekideek erantzungo diote.

4.- Premiazko tramitearen bidez deitutako batzordeetan herritarrek ezin izango dute hitz egin.

29. artikulua. Biltzeko eskubidea

1.- Herritar orok du biltzeko eskubidea helburu edo interes publikoko gaiak gauzatzeko udal lokal, ekipamendu eta espazio publikoak erabiltzeko eskubidea, horiek lehenesteko irizpide gisa espazioen erabilgarritasuna izanik. Haietan biltzeko eskubidea gauzatu ahal izateko baldintzatzaile bakarrak espazioaren ezaugarriak eta udal arautegiak dira; baita jendea ibili ohi den leku publikoetan biltzeko eta/edo manifestatzeko eskubidea arautzen duen estatuko eta autonomia erkidegoko araudia ere.

2.- Aretoen erreserba aurrez-aurre zein telematikoki egin ahal izango da udalaren web atariaren bitartez.

3.- Udalak, ahal duen neurrian, bilerak egiteko behar bezala prestatutako ekipamenduak izango ditu. Haietako erabiltzeko baldintzak ezagutzera emango ditu herritarrek haietarako sarbidea izan dezaten eta ahalik eta hoberen erabili ditzaten.

30. artikulua. Herritarren ekimenerako eskubidea

1.- Herritarren ekimena Udalak interes orokorreko eta udalaren eskumeneko jardura jakin bat sustatzera bideratutako herritarren esku hartzea da.

2.- Ekintza zehatzak eskatzen dituzten ekimenak, bakarkakoak eta taldekakoak izan ahalko dira, beste asmorik eta formalitaterik gabe, eskaeratzat hartuko dira eta Araudi honen 24. artikuluan zehaztutako prozeduraren arabera izapidetuko dira.



31. artikulua. Herri kontsultarako eskubidea

1.- Herritarren kontsultekin, Udalak herritarren iritzia eskatzen du bere eskumeneoak diren garrantziko gaien inguruan. Iritzi hori boto zuzen, aske, berdin eta isilpekoaren bidez adierazten da, horretarako ezarritako hautestontzi presentzial edo elektronikoetan, indarrean dagoen udal, autonomia eta estatu mailako araudiaren esparruan.

32. artikulua. Udal ordenantzak edo araudi proiektuei buruz informazioa jaso eta iritzia emateko eskubidea

1.- Udal ordenantza edo araudi proiektu bat prestatu aurretik, eztabaida eta kontsulta prozesua eramango da aurrera Araudi honetan xedaturiko edozein baliabide edo kanal erabilia eta betiere udalaren Internet atarian gardentasun atalean islatuta; bertan, etorkizuneko araudiak ustez ukituko dituen pertsonen eta erakunde garrantzitsuenen iritzia jasoko da gutxienez. Honako kontu hauek eztabaidatuko eta kontsultatuko dira: arauaren helburuak eta harekin konpondu nahi diren arazoak, hura onartzeko beharra eta aukera, eta betiere, egon daitezkeen soluzio alternatiboak eta haiek islatzen dituzten testuak. Prozedura hori gauzatzeko arautegi honen 38. artikulua (eta ondorengoak) hartuko dira oinarritzat.

2.- Administrazio-arau edo egintza bat egiten hasi aurretik, hori sustatzen duen administrazio-organoak ebaluatu egin behar du zein den proposamen horrek emakumeek eta gizonek kolektibo gisa bizi duten egoeran izan lezakeen eragina.

3.- Udal ordenantzak eta araudiak onartu aurreko eztabaida eta kontsulta tramite hori aurrekontu edo antolakuntza arauetan bakarrik baztertu ahal izango da, edo interes publikoko arrazoi larriak daudenean, eta justifikazio hori jasota utziko da Osoko Bilkurari aurkezten zaizkion legezko tasun txostenetan.

33. artikulua. Parte hartzeko eskubideak eraginkortasunez sustatzeko eskubidea

1.- Udalak eraginkortasunez sustatuko du kapitulu honetan araututako parte hartze eskubideen erabilera, horiek betetzeko eragozpen diren trabak kenduz.

2.- Legeek zehaztutako esparruaren barnean, emakumeen parte hartzea erraztuko duten berriazko neurriak hartuko dira gizonek eta emakumeek berdintasunezko baldintzetan parte hartu ahal izan dezaten.

3.- Udalak bereziki kontuan izango ditu haurren eta gazteen parte hartzea egiaz bultzatzen duten neurriak, kasu horretan barne-erregelamendu bat ezarri beharko da, eta haren funtzionamendurako beharrezko tresnak jarri, bai bere jardueretan, bai herritarrek hasten eta garatzen dituztenetan.

4.- Oro har, parte hartu behar duten pertsonen profilek ahalik eta aniztasun handiena izan behar dute, eztabaidatuko den gaiaren ezaugarrien arabera, bai eta genero-berdintasun eraginkorra ere.



5.- Parte hartuko duten pertsonak, bai informazioa jasotzeko, eta baita hitza hartzerakoan ere, hizkuntza aukeratzeko eskubidea izango dute, EAEko hizkuntza ofizialen artean. Tolosako udalak sustatuko dituen parte hartze prozesu eta gune guztietan euskararen erabilera ahalbidetuko da.

6.- Era berean, pertsona guztien parte hartzeko eskubidea gauzatu ahal izateko baliabideak jarriko dira ezintasun funtzionalak dituzten herritarren partaidetza ahalbidetzeko.

II. KAPITULUA: PARTE HARTZEKO GUNEAK

34. artikulua. Herritarren parte hartzeko guneak

1.- Herritarren parte hartzeko gune egonkorak herritarren parte hartzea bideratzeko espazio edo elkargune egonkor eta iraunkorrek dira. Udala eta herritar norbanako zein antolatuak edo bestelako erakundeak elkarrekin erlazionatzen eta lanean aritzen dira sektorekako nahiz lurraldekako ikuspegia duten gaien inguruan.

2.- Arautu edo arautu gabeak izan daitezke. Iraupen mugagabeak edo mugatukoak izan daitezke.

3.- Eginkizun horiek betetzeko, udal-jarduketegi edo eztabaidagaiei buruzko informazio nahikoa jaso behar dute, eta udalak zuzenean eman behar du, bere ekimenez edo gune horretako kideek berariaz eskatuta.

4.- Gune horien kalitate demokratikoa eta eraginkortasun-maila neurtzeko, lortutako emaitzak ez ezik, horiek eskuratzeko aukera eta bertaratutako pertsona guztien benetako parte-hartzea ere hartuko dira kontuan. Hori dela eta, udalerrian dauden ahotsen aniztasuna agerian utzi beharko dute, emakumeen eta askotariko kultura-jatorri eta -testuinguruak dituzten pertsonen eta kolektiboen parte-hartzea indartuz. Horretarako, espazio bakoitzak bere berezitasunei erantzuten dieten irizpideak eta estrategiak definitu beharko ditu.

5.- Era berean, genero-desberdintasunari eta beste desberdintasun sozial batzuei aurre egiteko neurriak sartuko dituzte, honako hauen bidez:

a) Herritarren partaidetzarako espazio orok genero ikuspegia duela bermatzea, eztabaidarako, hausnarketarako, kontsultarako eta erabakiak hartzeko eduki publikoetan.

b) Parte-hartzaileen horizontaltasuna, errespetua, adierazpen-askatasuna eta tratu-berdintasuna bermatzeko erraztasun-mekanismoak sartzeko, eta artatutako herritarrek parte hartzeko espazio ireki eta egokia garatzea, batez ere genero-ikuspegia kontuan hartuta.

c) Hitza banatzearen eta ahots desberdinen legitimitaterako entzute aktiboaren aldeko dinamikak sartzeko.

d) Azpiordezkatuta dauden pertsona eta kolektiboen irisgarritasuna: emakumeak, haurrak eta gazteak, ezgaitasun edo dibertsitate funtzionalak dituzten pertsonak, jatorri eta kultura desberdineko pertsonak, edo zaintza lanetan erantzukizuna dituzten pertsonak.

e) Gune hauetan berariazko hizkuntza kudeaketa egingo da herritarren hizkuntza eskubideak bete daitezkeen, eta euskaraz parte hartu nahi duten herritarrek horretarako eskubidea gauzatu ahal izan dezaten.



f) Era berean, pertsona guztien parte hartzeko eskubidea gauzatu ahal izateko baliabideak jarriko dira ezintasun funtzionalak dituzten herritarren partaidetza ahalbidetzeko.

35. artikulua. Herritarren partaidetzarako organoak

1.- Herritarren partaidetzarako organoak toki-antolamenduaren kide anitzeko organo osagarriak dira, antolaketa egitura eta funtzionamendu formalizatukoak. Udalaren eta herritar norbanakoen zein antolatutakoen arteko topagune egonkor eta iraunkorrak dira eta nolabaiteko erregulartasunez biltzen dira, udal jarduerari, zerbitzu programei, planei edo politikei buruzko iritzi eta proposamenen gainean dialogatu, debatitu edo eztabaidatzeko. Organo hauek kontsultiboak dira.

2.- Organo horiek lurralde eremukoak izan daitezke, baldin eta beren eginkizunak herri osoarekin edo herriaren zati zehatz eta mugatu batekin lotuta badaude, auzo bat edo batzuk kasu; edo sektore eremukoak, baldin eta beren eginkizunak gizartearen zati batekin, udal-jarduketaren eremu funtzional jakin batekin edo udal ekipamendu edo zerbitzu publikoren batekin lotuta badaude.

3.- Tolosako Udalak neurri egokiak hartu beharko ditu emakumeen eta gizonen presentzia orekatua eta ahotserako sarbidea lortzeko, herritarrek parte hartzeko organoetan ordezkatuta egon daitezten.

4.- Organo hauetan berariazko hizkuntza kudeaketa egingo da herritarren hizkuntza eskubideak bete daitezten, eta euskaraz parte hartu nahi duten herritarrek horretarako eskubidea gauzatu ahal izan dezaten.

5.- Era berean, pertsona guztien parte hartzeko eskubidea gauzatu ahal izateko baliabideak jarriko dira ezintasun funtzionalak dituzten herritarren partaidetza ahalbidetzeko.

36. artikulua. Herritarren partaidetzarako organoen funtzioak eta osaera

1.- Organo horiek ondorengo funtzioak izan ditzakete:

- a) Auzo eskalako edo sektorekako ikuspegiaren araberako gomendio eta proposamenak egitea.
- b) Udalak proposaturiko asmo edo proiektuen gaineko eragozpenak edo aldaketa proposamenak egitea.
- c) Proiektu edo gauzatuta jarduerari buruzko txostenak egitea.
- d) Jardueraren bat egiten laguntzea.
- f) Parte hartze prozesuak sustatzea.

2.- Organo horien osaera, antolamendua, eskumenak eta funtzionamendua beren Arau bereziei jarraituz arautuko da, eta arau horiek Udalbatzak onartuko ditu. Nolanahi ere, Arau honetan xedatutakoa bete beharko dute beti eta ahal den guztietan beren agintaldian lan egiteko plan bat izan beharko dute.

3.- Organo horrek genero-ikuspegia txertatu beharko du bere politika eta ekintza guztietan, halako moduz non guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen benetako berdintasun eraginkorra sustatzeko helburu orokorra ezarriko duen.



4.- *Organo horien funtzionamendu-erregelamenduek, besteak beste, honako hau zehaztu behar dute:*

- a) *Parte hartzeko organoaren izena.*
- b) *Jarduketaren eremua eta xedea.*
- c) *Helburuak.*
- d) *Osaera.*
- e) *Funtzionamendurako oinarritzko arauak: deialdiak, bilkurak, erabakiak hartzeko eta txostenak egiteko modua eta egiten zaizkion kontsultei buruzko erantzunak emateko modua.*
- f) *Kideen eskubideak eta betebeharrak, eta esleitzen zaizkien berariazko eginkizunak.*
- g) *Iraupena.*
- h) *Desegiteko arrazoiak eta modua.*
- i) *Jardueren garatzeko eskura dauden baliabideak.*

5- *Organo bakoitzaren funtzionamendu-erregelamenduak haren osaera zehatza zehaztu behar du. Nahitaez, udalarekin lotura duten pertsonak eta udalarekin loturarik ez duten pertsonak osatuko dituzte organo horiek.*

Udalarekin lotura duten pertsonak ordezkari politikoak eta udal langileak izan daitezke. Udalarekin loturarik ez dutenak beste administrazio publiko bateko kideak edota herritar, antolatu naiz antolatu gabeak, izan daitezke, organoaren xede-eremuarekin lotutakoak. Organo horiek adingabeak ere izan ditzakete kide.

6.- *Aukeran, organoaren eremu espezifikoan adituak eta aintzatetsiak diren pertsonak ere izan daitezke kide. Adituen artean generoaren arloko ezagutza dutenak sartzera sustatuko da.*

7.- *Organo horien izaera parte-hartzailea kontuan hartuta, gehiegizko pisu politikoa saihestuko da.*

8.- *Oro har, herritarren partaidetza organoen osaerak berdintasun-aukera eta aniztasun-irizpideetan oinarritu beharko du, aukera eta iritzien pluraltasun zabalena ziurtatzeko, betiere bere izaerarekin inkongruentea ez bada; kasu horretan, organoaren xedearekin koherentea izango den osaera berezia bilatuko da.*

9.- *Kasu guztietan, eta organoko kideen arabera, beharrezkoa izango da kideen esku-hartzea errazteko eta beren eginkizunak garatzeko berariazko tresnak ezartzea funtzionamenduaren barne-erregelamenduan.*

10.- *Kideen gehiengoak hala erabakitzen duenean, kide ez diren pertsonak gonbidatu ahal izango dira. Hala ere, partaidetza organoak erabakiren bat hartu behar badu, bertako kideek baino ezingo dute hartu erabakia.*

11.- *Organo horien eraketa herritarren ekimenez zein Udalaren ekimenez gauzatu daiteke. Eratu aurretik, egokitasunari buruzko txosten bat eta hura sortzeko gomendioak eskatuko zaizkio herritarren parte-hartzearen arloan eskumena duen arloari.*



12.- Osoko bilkurari dagokio organo horiek sortzeko eta dagozkien funtzionamendu-erregelamenduak onartzeko erabakia hartzea. Sortzeko modu bera erabiliko da hauek aldatu edo ezabatzeko.

13.- Dialogo, debate edo eztabaidetan ahalik eta ikuspegi, iritzi eta interes gehien adieraztea erraztuko da, ahaleginak egingo dira akordioak adostasunez har daitezen. Hori ezinezkoa denean, bozketa bidez hartuko ditu organoak erabakiak. Edonola ere, boto partikularrak ere eman ahalko dira eta hartutako erabakiarekin bat ez datozenek dituzten eragozpenak jasotzea eskatu.

14.- Udalak, zuzenean edo zeharka, ohiko administrazio-laguntza eman beharko die partaidetza organoei, funtzionamendu zuzena eta autonomia handiena bermatzeko. Organo horiek idazkaritza bat izango dute partaidetza organoaren aktibitatearen akta jasotzeko. Horrez, gain, erreferentziako teknikariak izendatuko dira herritarren partaidetzako organo bakoitzerako.

Udalak hala erabakiz gero, Komunitate eta Gobernantza arloak parte hartze organoak sustatu, antolatu, deitu eta artatzeko lanetan lagunduko du.

15.- Alkateari dagokio partaidetza organoen lehendakaritza, edo hark eskuordetzen duen zinegotziari. Partaidetza organoko kideek hautatuko dute nor izango den lehendakariorde kargua beteko duen pertsona, arlo sozial, tekniko edo politikokoa izan ahalko delarik.

16.- Parte hartzeko organoek lantaldeak sor ditzakete, bai eta lanerako gune puntualak ere, gai zehatz bati heltzeko. Lantalde horietan, parte hartzeko organoko kide ez diren baina horretan laguntzeko interesa duten pertsonak parte hartu dezakete. Kasu horietan, organoko kide bat izango da beti talde horien koordinazioaren eta emaitzak partaidetza organoari helarazteko erantzulea.

37. artikulua. Ausaz aukeratutako herritarrekin osatutako eztabaida mahaiak

1.- Tolosako udalak egoki ikusten duen kasuetan, eta eztabaidagai izango den gaiak garrantzia publikoa nabaria duenean, ausaz aukeratutako herritarrekin eztabaida eta deliberazio mahaiak osatuko dira.

2.- Herritarrak aukeratzeko udal errolda erabiliko da oinarri gisa, eta sexua, adina eta bizitokia bezalako faktoreen arabera aukeratuko da lagina ahalik eta ordezkagarritasun sozial handiena lortzeko asmoarekin.

3.- Eztabaida mahai hauek ez dira inolaz ere erabakitzaileak izango, euren xedea izango delarik gai zehatz baten gaineko azterketa eta deliberazioa gauzatzea Tolosako Udalbatzari bere iritzia emateko. Azken erabakia Tolosako Udal Plenoan hartuko da.

4.- Eztabaida mahaiak hornitzeko, aztergai izango den gaiaren arabera adituak gonbidatu ahal izango dira informazioa eta ezagutza mahaikideen esku jartzeko. Era berean, eztabaida bideratzeko erraztaileak egongo dira, hitzak modu orekatuan banatzen direla eta iritzi guztiak mahai gaineratzen direla ziurtatzeko.



5.- Eztabaida mahai hauetan berriazko hizkuntza kudeaketa egingo da herritarren hizkuntza eskubideak bete daitezen, eta euskaraz parte hartu nahi duten herritarrek horretarako eskubidea gauzatu ahal izan dezaten.

6.- Era berean, pertsona guztien parte hartzeko eskubidea gauzatu ahal izateko, beharrezkoa balitz, beharrezkoak diren baliabideak jarriko dira ezintasun funtzionalak dituzten herritarren partaidetza ahalbidetzeko.

III. KAPITULUA: PARTE HARTZE PROZESUAK

38. artikulua. Partaidetza prozesuak

1.- Partaidetza prozesuak denbora jakin batean mugatutako prozesuak dira, herritarren artean edo herritarren eta udal arduradunen artean eztabaida eta argudio kontrastea sustatzera bideratuak, udal jarduera jakin bati buruzko iritziak eta proposamenak jasotzeko.

2.- Prozesua abiatu aurretik ondo zehaztu beharko da ekintza hori motibatu duten arrazoiak zeintzuk diren, bai eta zein helburu lortu nahi den prozesuaren bidez eta zein irismen izango duen. Horretaz gain, parte-hartze prozesu horrek generoan izango duen eraginaren berri ere emango dute. Aldi honi definizio fasea deituko zaio. Fase honetan parte hartze prozesu bakoitzaren irismen maila eta azken emaitzekiko konpromiso maila zehaztuko da eta publiko egingo da.

3.- Prozesuaren helburuak bat edo bat baino gehiago izan daitezke, hala nola:

- a) Egoera jakin baten diagnostikoa egitea, dagokion jarduketa publikoa antolatzeke oinarri gisa.
- b) Udal jardun jakin bati buruzko ideia sormena edo ideia berritzaileak bilatzea.
- c) Egoera jakin batean esku hartzeko proposamen zehatzak egitea edo baloratzea.

Partaidetza prozesu horiek dimentsio, izaera eta formatu desberdinekoak izan daitezke, gaiaren eta bestelako aldagaien arabera.

4.- Parte hartze prozesuaren emaitzak ez dira lotesleak izango. Hala ere, partaidetza prozesu bakoitzean emaitzak azken erabakian nola aplikatuko diren zehaztuko dira idatzi. Udalak prozesuaren ondorioetatik aldentzea erabakitzen duen kasuetan idatziz arrazoitu beharko du bere posizionamendua.

5.- Udalak partaidetza prozesuetan bitarteko elektronikoen erabilera sustatzearen egokitasuna baloratu beharko du, kasu bakoitza bere aldetik aztertuz. Halaber, logika bikoitz presentziala eta digitala erabiltzen denean, edo soilik ingurune birtualen erabilera, bazterketa digitala murrizteko neurriak ezarriko dira, aukeren barruan.

6.- Parte hartzeko prozesuetako komunikazio eta zabalkunde kanpainetan, aurrez aurreko saioetan nahiz digitaletan, euskara erabiliko da, eta genero-ikuspegia hartuko da kontuan, hizkuntza inklusiboa eta estereotiporik gabeko irudiak erabiliko direla bermatzeko. Era berean, herritar guztiek informaziorako sarbidea izango dutela bermatuko duten komunikazio-bideak sustatuko dira, eta, beharrezkotzat joz gero, baliabide digitalak erabiltzeko prestakuntza ere bai.

6.-Partaidetza prozesuak Udalaren bidez zein herritarren ekimenaren bidez sustatu daitezke.



7.- Herritarren ekimenez sustatutako partaidetza prozesuak, prozesu horietan parte hartzeko legitimazioari dagokionez, prozesu horiek izapidetzeko, eskaera aurkezteko eta sinadurak bildu, autentifikatu eta aurkezteko behar den sinadura kopuruaren arabera arautzen dira, erregelamendu honen 52. artikuluan xedatutakoaren arabera.

39. artikulua. Talde sustatzailea eta eginkizunak

1.- Talde sustatzailea.

Udala sustatzailea den kasuetan, prozesuaren izaeraren arabera talde sustatzailearen funtzioak administrazio unitate bati edo gehiagori esleituko zaizkio.

Parte hartze prozesua herritarren ekimenez sustatzen den kasuetan, ekimena sustatzen duen batzordeak izendatutako pertsonak parte hartzeko prozesua sustatzen duen taldeko kide izango dira.

2.- Talde sustatzaileari eginkizun hauek dagozkie:

a) Parte hartzera deitutako pertsonen profilak identifikatzea eta proposatzea, beti ere herritar eta kolektibo anitzen parte hartzeko aukera berdintasuna zainduz eta gizon nahiz emakumeen parte hartzea bultzatuz edota bermatuz.

b) Pertsona horien parte hartze eraginkorrerako genero ikuspegia txertatuta **duten** metodologia egokienak definitzen laguntzea.

c) Jarraipen Batzordeko kide izatea, partaidetza prozesuan sor daitezkeen kexei edo desadostasunei irtenbidea aurkitzen laguntzeko.

d) Partaidetza prozesua ebaluatzeko adierazleak definitzen laguntzea. Adierazle horiek genero-ikuspegia jasoko dute, eta sexuaren arabera bereizitako datuak sortuko direla bermatuko dute.

e) Aurrez aurreko saioetako hizkuntza kudeaketa definitzea herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko.

f) Aniztasun funtzionala duten herritarren parte hartzea ziurtatzeko beharrezkoak izan daitezkeen baliabideak aurreikustea eta aplikatzea.

40. artikulua. Prozesuaren onarpena

1.- Alkatetzari dagokio partaidetza prozesua onartzea, eta tokiko Gobernu Batzordearen, zinegotzien eta administrazio betearazleko organo eta zuzendaritza karguen esku utz dezake eskumen hori.

2.- Onarpen ebazpenak honako hau adierazi beharko du:

a) Prozesuaren xedea, herritarren iritzipean jartzen den jarduera publikoa zein den zehaztuta, eta horren inguruan egin daitezkeen ekarpenak mugatzen edo baldintzatzen dituzten esparru tekniko, ekonomiko, juridiko eta politikoak, baldin badaude.

b) Herritarren ekimena sustatzen duen batzordeak edo Udalak planteatzen dituen alternatibak, halakorik badago.

c) Partaidetza prozesuaren udalerriko eremua.



- d) *Partaidetza prozesuaren funtzionamenduaz arduratzen den administrazio organoa.*
- e) *EAEko berdintasun legeak eta Tolosako 2008ko Emakumeen eta gizonezkoan arteko berdintasunerako udal ordenantzak zehazten dituen baldintzak betez gero, aurretiatzko genero inpaktuaren azterketa egin beharko da.*
- f) *Ez da onartuko emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzen ez duen prozesurik.*
- g) *Ez da onartuko euskararen normalizazioaren bidean atzerapauso nabarmenik ekarriko duen prozesurik.*

41. artikulua. Printzipio gidariak

1.- *Partaidetza prozesuen printzipio gidariak honako hauek dira:*

- a) *Pluraltasun zein aniztasun handiena bilatzea zainduko da, eztabaidatuko den gaiaren ezaugarrien arabera, eta aniztasun hori kudeatzeko laguntza bitartekoak ezarriko dira.*
- b) *Baldintza indibidual edo sozialengatik (adibidez, sexu-generoa, adina, ezgaitasuna, edo jatorria) zailtasun bereziak dituzten pertsonak prozesuan laguntzeko behar diren laguntza-bitartekoak ezarriko dira, eragindako lurralde-eremuaren gizarte- eta biztanleria-osaera kontuan hartuta.*
- c) *Prozesu guztian zehar hizkuntza eskubideak errespetatuko dira, eta hizkuntza eta iruditegi ez-sexista erabiliko da.*
- d) *Prozesuen kalitate demokratikoa eta eraginkortasun-maila neurtzeko, lortutako emaitzak ez ezik, prozesuetara iristeko aukera eta bertaratutako pertsona guztien benetako parte-hartzea ahalbidetzeko neurriak hartuko dira.*
- e) *Horretarako, aldakortasun zabalena kontuan hartuko da, bai komunikazio-motei dagokienez, bai herritarrengana iristeko eta udalerrian dauden ahotsen aniztasuna ikusarazteko hautatutako bideei dagokienez.*
- d) *Gainera, parte-hartzaileen horizontaltasuna, errespetua, adierazpen-askatasuna eta tratu-berdintasuna errazten dituzten metodologiak txertatuko dira, eta herritarrek parte hartzeko espazio ireki eta egokia garatuko da. Horregatik, prozesu bakoitzak bere berezitasunei erantzuten dieten irizpideak eta estrategiak zehaztuko ditu.*
- e) *Emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko parte-hartzea bermatzeko, Tolosako Udalak, parte-hartze prozesuak garatzen diren bitartean, herritarren eskura jarriko ditu partaidetza eta bizikidetzaren eta zaintza-izaerako betebeharrak bateratzeko behar diren zerbitzuak.*
- f) *Genero-adierazleak eta datuak bereizita bildu eta aztertuko dira, espazio bakoitzaren agertokia genero-ikuspegitik ezagutzeko.*

42. artikulua. Faseak

1.- *Parte hartze prozesu guztiek fase edoaldi jakin batzuk bete beharko dituzte:*

- a) *Definizio aldia.*



b) *Informazio aldia, zeinaren bidez herritar interesdun guztiei zabaltzen baitzaie zer gairi edo proiekturi buruz eskatu nahi den parte hartzea, bitarteko egokiak erabiliz.*

c) *Sormen eta eztabaida aldia, metodologia egokiak erabiliz, elkarrizketa eta argudioen kontrastea sustatzeko, eta parte hartzaileen ekarpenak jasotzeko.*

d) *Itzulera aldia, parte hartzaileei eta herritar guztiei prozesuaren emaitzak jakinarazteko.*

e) *Ebaluazio aldia.*

f) *Jarraipen aldia, prozesuaren emaitzen garapenaren jarraipena errazteko.*

2.- *Fase hauetan guztietan errespetatutako dira herritarren partaidetzaren alorreko ezagutzak ezartzen dituen uneak eta edukiak. Era berean, genero-ikuspegia txertatuko da fasetako bakoitzean, eta sexuaren eta intereseko beste ardatz batzuen arabera bereizitako datuak sortuko direla bermatuko da.*

3.- *Eztabaidetako edukiek aniztasuna eta genero-berdintasuna ere errespetatuko dituzte*

43. artikulua. Jarraipen taldea

1.- *Jarraipen taldea eratuko da, eta besteak beste, honako funtzioak beteko ditu:*

a) *Proposatutako eztabaidarako tresnei eta metodologiari buruzko iritzia ematea eta egokitzat jotzen dituen aldaketak iradokitzea.*

b) *Eztabaida tresnen funtzionamenduaren eta eraginkortasunaren jarraipena egitea eta hobekuntzak gomendatzea eta kalitate bermeak ziurtatzea.*

c) *Prozesuaren emaitzen txostena ezagutzea. Aurkeztu beharreko txostenak datuak sexuaren arabera bereizita jaso beharko ditu, eta hizkera inklusiboa erabili beharko du.*

d) *Jarraipen Batzordeko kide izango diren pertsonen hasierako kopurua eta profila kasu zehatz bakoitzerako zehaztuko da, eta ahal den neurrian ahalik eta aniztasun handiena bilatuko da generoari, adinari eta jatorriari dagokienez.*

44. artikulua. Aurrekontu parte hartzaileak

1.- *Aurrekontu parte hartzaileko prozesuek gastu publikoaren inguruko eztabaidan eta erabakian udal ordezkariak gain herritarrek ere parte hartzea ahalbidetzen dute. Ekimen honek herritarrei udal aurrekontuan eragiteko aukera ematen die egituratutako prozesu parte hartzaile baten bidez.*

2.- *Udal aurrekontuan jaso beharreko egituraketari eta lehentasunei buruzko proposamen, gogoeta eta eztabaida prozesuak egin daitezzen bultzatuko du Udalak, eta ondorioz, zenbateko ekonomiko jakin batzuk zertarako erabiliko diren zehaztu.*

3.- *Udal aurrekontuen lanketa eragileekin modu iraunkorragoan jardunez eta gardentasun printzipioa betez burutu dadin, ondoko prozedura jarraituko da:*

a) *Lehenengo hausnarketa, udal gobernu taldearekin: hurrengo ekitaldiko asmoak eta ideiak zehazteko.*

b) *Foku-ideia horiek oposizioko taldeekin alderatuko dira.*

c) *Foku-ideia horiek udaleko sailletako teknikariekin eta ordezkari politikoekin alderatuko dira dagokion lege markoa eta eskumen arloa ebazteko.*



- d) Foku-ideia horiek herritarrekin landuko dira foro-saio ireki bateratuan. Foro horiek herritar orori irekiak izango dira eta hurrengo urterako beharrak eta aukerak identifikatzea izango dute helburutzat. Bertan barneratuko dira Tolosako udalean une horretan lantzen ari diren gainerako plangintzen helburuak, eta baita aurreko ekitaldietan planteatu diren baina landu ez diren fokuak ere. Ondorio guztiak txosten batean jasoko dira.
- e) Une horretara arte jaso diren foku-ideien gaineko bilera teknikoa egingo da udaleko sailtako teknikariekin.
- f) Herritarrei komunikazioa egingo zaie eta bide telematikoen bidez aukerak zabalduko dira ekarpenak jasotzeko. Komunikazio hauek baliatuko dira aurrez jasotakoaren berri emateko eta ekarpen berriak egiteko moduak prestatuko dira.
- g) Foku-ideien inguruko txostena idatziko da une honetara arte prozesuan landu eta jaso den guztiarekin.
- h) Txostenaren aurkezpena eta lanketa egingo da udal gobernu taldearekin eta udaleko sailtako teknikariekin. Aurkezpen bilera honetan ebatziko dira hurrengo ekitaldiari buruzko foku nagusiak zeintzuk izango diren eta erabakiko da saio sektorialak nola antolatu, aurrekontuetara eramateko proposamen zehatzak egitea errazteko asmoarekin.
- i) Saio sektorialak: aurreko urratsetan identifikatutako fokuen arabera, gaikako bilerak egingo dira herritarrekin eta eragileekin. Saio horien helburua izango da hurrengo urtera begirako beharrak, fokuak eta aukerak aurrekontuetan txertagarriak izango diren proposamen zehatzera eramatea. Saio horietan udaleko ordezkari politiko eta tekniko baten presentzia ziurtatuko da, gutxienez, eta eurek eramango dute saioaren gidaritza. Saio bakoitzaren txostena idatziko da 7 eguneko gehienezko epean.
- j) Saio sektorialen emaitza gisa, egindako egitasmo-proposamenen txosten bateratua idatziko du prozesuaren ardurapeko arloko teknikariak.
- k) Prozesuan zehar jasotako egitasmo-proposamenen txostenaren lanketa egingo da udal barruan: departamentuetako teknikariekin, udal gobernuordezkariekin eta udalean ordezkariak duten gainerako alderdien ordezkariekin.
- l) Udal gobernu taldeak egitasmo-proposamenen txostenaren lanketa egingo du aurrekontuen prozedura ofizialean proposamen hauek txertatuak izan daitezen.
- m) Prozesuan landu eta jaso den guztiaren komunikazioa egingo zaie Tolosako herritarrei, bai eta aurrekontu proposamen berriarena ere, herritarren partaidetza bidezko ekarpenak barneratuta dituela.
- n) Une honetatik aurrera, ohiko aurrekontuen prozedura administratiboa garatuko da Udalean.
- o) Aurrekontu parte hartzaileen prozesuaren fase guztietan errespetatutako dira herritarren partaidetzaren alorreko ezagutzak ezartzen dituen uneak eta edukiak. Era berean, genero-ikuspegia txertatuko da fasetako bakoitzean, eta sexuaren eta intereseko beste ardatz batzuen arabera bereizitako datuak sortuko dira.



p) Era berean, fase bakoitzean azpiordezkatuta egon diren kolektiboen parte hartze erreal eta eraginkorra bermatzeko mekanismoak garatuko dira.

VI. KAPITULUA. HERRI-EKIMENA GAUZATZEKO PROZEDURA

45. artikulua. Kontzeptua eta xede diren gaiak

1.- Herri-ekimena interes orokorreko eta udalaren eskumeneko jarduera jakin bat sustatzera Udalak bideratutako herritarren esku-hartzea da. Herri ekimen bidez jasotzen diren proposamenak bere gain hartzeko derrigortasuna du udalak, kapitulu honetan zehazten diren baldintza guztiak betetzen baldin badituzte.

2.- Interes orokorraren edo kolektibo zabalaren konkurrentzia egiaztatzea 53. artikuluan zehazten den sinadura-kopuruaren bidez egiten da.

3.- Tolosan erroldatutako 16 urtetik gorako pertsona guztiak parte hartu ahal izango dute herri ekimenean.

4.- Herritar ekimenean objektuak udal eskumen arlokoa izan behar du, eta ezingo ditu mugatu edo murriztu oinarrizko giza eskubide eta/edo askatasunak (Espainiako Konstituzioaren I tituluko II kapituluan jasota daudenak). Halaber, ezingo da udal erregelamendu organikoaren berezko gaiei, udal zergei eta prezio publikoei eta jada onartuta dauden aurrekontuei buruzkoa izan.

5.- Herritarren ekimena xede hauetarako izan daiteke:

a) Entzunaldi publikoa eskatzeko.

b) Ordenantzak edo araudiak bezalako testu artikuludunak aurkezteko, haien onarpena tramita dadin.

c) Ordenantzak edo araudiak egin daitezen proposatzeko.

d) Proiektu teknikoak aurkezteko, haiek onartu eta gauza daitezen.

e) Herri kontsultak egin daitezen proposatzeko.

f) Deliberazio edo partaidetza prozesu jakin bat gauzatu dadin.

g) Partaidetza organo bat sortu dadin.

h) Udal interes publikoko edozein jarduera egin dadin eskaera egiteko, alderdi eskatzaileak baliabide ekonomikoak, ondasunak, eskubideak eta lan pertsonala jartzeko konpromisoa hartuta kolaborazio edo lankidetzaren hitzarmen baten esparruan.

6.- Herri ekimen bakoitzak aurreko atalean adierazitako aukeretako bati bakarrik egin beharko dio erreferentzia. Salbuespen gisa, xedapen orokor bat onartzeko ekimenean xede berari buruzko kontsulta egiteko eskaera ere jaso dezake, Udalak proposatutako xedapen orokorraren onarpena ukatzen badu. Kasu horretan, sinadurak biltzeko pleguak argi eta garbi adierazi behar du sinadurek helburu bikoitza dutela.

46. artikulua. Izapidetzeko sinadurak

1.- Herri ekimen baten tramitaziorako beharrezkoak da Tolosan erroldatutako 16 urtetik gorako pertsonen sinadura baliadunen gutxieneko babesa lortzea. Honi dagokionez, kontuan izango da Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak ezarritakoa.



Ekimen motaren arabera, baliozko sinaduren gutxieneko sinadurak jaso beharko dituzte:

- a) Entzunaldi publiko bat abian jartzea proposatzea bada, bildutako sinaduren kopuruak 16 urtetik gorako udal-errolan jasotako biztanleen % 2 gainditu behar du.*
- b) Ordenantzak edo araudiak bezalako testu artikuludunak aurkezteko bada, haien onarpena tramita dadin, bildutako sinaduren kopuruak 16 urtetik gorako udal-errolan jasotako biztanleen % 10 gainditu behar du.*
- c) Herri-kontsulta baterako deialdia proposatzea edo xedapen orokor bat onartzea bada, bildutako sinaduren kopuruak 16 urtetik gorako udal-errolan jasotako biztanleriaren %10 gainditu behar du.*
- d) Partaidetza-prozesu baten hasiera proposatzea edo partaidetza-organo bat sortzea bada, bildutako sinaduren kopuruak 16 urtetik gorako udal-errolan jasotako biztanleriaren % 5 gainditu behar du.*
- e) Udal interes publikoko edozein jarduera egin dadin eskaera egiteko, bildutako sinaduren kopuruak 16 urtetik gorako udal-errolan jasotako biztanleriaren % 5 gainditu behar du.*

47. artikulua. Batzorde sustatzailea

1.- Herritarren ekimena sustatzeko batzordea osatu beharko da. Herritarren ekimenaren sustatzaileek Tolosan bizi diren 18 urtetik gorako hiru pertsona izan behar dute, gutxienez. Sustatzaileak adin nagusidunak izan behako dira, sinadura bilketaren prozesuan irregulartasunen bat betez gero, ondorio legal eta penalak egon daitezkeelako. Pertsona hauek ezingo dira izan udal hautetsiak, ez eta Batzar Nagusietakoak, Eusko Legebiltzarrekoak, Gorte Nagusietakoak eta Europako Parlamentukoak ere.

2.- Herritarren kontsulta bat sustatzeko herritarren ekimenaren kasuan, indarrean dagoen legeriak euskal erakundeetako hautetsientzat eta goi-kargudunentzat ezartzen dituen hautaezintasun- edo bateraezintasun-arrazoietakoa batean erortzen diren pertsonak ere ezin dira Batzorde Sustatzaileko kide izan, ezta Eusko Jaurlaritzako edo Estatuko kideak ere.

3.- Era berean, herritarren ekimenaren sustatzaile izan daitezke edozein herritar-erakunde, irabazi-asmorik gabeko elkarteak, enpresa-erakundeak, sindikatuak eta Tolosan jarduera-eremua duten elkargo profesionalak, baldin eta haien zuzendaritza-organoak aldez aurretik hala erabakitzen badu, eta ez badute administrazio-zehapen irmorik jaso, ez eta kondena-epai irmorik ere, sexuagatik, generoagatik edo giza eskubideengatik bereizkeriazko jardunbiderik egin edo onartu izanagatik edo beren jardueretan berdintasun-printzipioa ez betetzeagatik.

4.- Sustatzaileek herritarren ekimena sustatzen duen batzordea osatzen dute. Batzorde horrek aurreko artikuluan eskatutako gutxieneko sinadurak biltzeko konpromisoa hartzen du.

5.- Udalak aholkularitza tekniko eskainiko die herritar ekimenak sustatzeko interesa duten pertsona eta entitateei. Eta landu beharreko eremuaren arabera, genero arloko adituen parte-hartzea sustatuko da.



6.- Udalak laguntza teknikoa eskainiko dio batzorde sustatzaileari bere eginkizuna euskaraz garatzeko helburuarekin, horrela nahi izatekotan.

48. artikulua. Eskabidea aurkeztea eta sinadurak biltzeko pleguak

1.-Herri ekimena onartzeko eskaera ondorengo bideak erabiliz aurkeztu ahal izango da: aurrez aurreko bidea, Udaten; bide telematikoa, egoitza elektronikoaren bidez.

2.- Eskaerarekin batera sinadura presentzialak biltzeko pleguen proposamena edo plataforma digitalaren bidez jasotzeko inprimakia eta artikulua honetan aipatzen diren dokumentuak ere aurkeztu beharko dira.

3.- Sinadura presentzialak biltzeko pleguen proposamenak elementu hauek izan beharko ditu:

- a) Sustatzaileen iritziz ekimena onartzea gomendatzen duten arrazoiak azaltzea.
- b) Proposatzen den ekimenaren testu osoa, sinadurak testutik bereiz egon ez daitezen.
- c) Sinatzaileak, sinaduraz gain, bere izen-abizenak, nortasun-agiri nazionala edo, Europako Erkidegokoak ez diren atzerritarren kasuan, pasaportearen edo atzerritarren identifikatzeko txartela, jaioteguna eta posta-kodea idatzi ahal izateko behar besteko tartea. Aurreikuspen hori ez da beharrezkoa inprimaki digitaletan.
- d) Argi eta garbi ulertzeko moduko informazio-klausula, eskatzen diren datu pertsonalak biltzearen xedeari buruzkoa eta datu pertsonalak babestearen arloan indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen gainerako baldintzei buruzkoa. Klausula hori datuak biltzeko inprimaki eta formulario digital bakoitzean agertu behar da.
- e) Tolosako udalak sinadurak biltzeko eredu gisa balioko duen txantiloia eskainiko die eskatzaileei, horretarako beharrik izanez gero.

4.- Gainera, eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Herritarren ekimena sustatzen duen batzordea osatzen duten kideen zerrenda eta haien datu pertsonalak, ordezkaria nor den adierazita.
- b) Ekimena bestelako erakundeetatik badator, bere idazkari nagusiak eta erakundeko presidentek sinatutako ziurtagiri bat, bere gobernu-organoaren bilera-aktarena, non eskatzen den herritarren ekimena sustatzeko akordioa jasotzen baita.
- c) Espazio publikoa erabiltzeko baimena eskatzea, erabilera hori aurreikusten bada.

49. artikulua. Xedapen orokorraren kasurako baldintza bereziak

1.- Herritarren ekimena xedapen orokor baten onarpena proposatzea bada, ekimenak bere iritzia eman ahal izateko behar diren aurrekariak jaso behar ditu, eta, aurreko puntuetan ezarritakoaz gain, plataforma digitaleko pleguen proposamenak edo eskaera-inprimakiak, non sinadurak jasoko baitira, honako elementu hauek jaso behar ditu:

- a) Xedapenaren testu artikulatua edo xedapenaren xedea zehaztasunez zedarrizten duten oinarriko ildoak, eta artikulatua inspiratu behar duten printzipioak eta irizpideak.
- b) Sustatzaileen iritziz komenigarriak diren arrazoiak azaltzea, eta xedapen orokorra izapidetzea eta onartzea.



50. artikulua. Udal-konsulten kasurako baldintza bereziak

1.- Baldin eta herritarren ekimena bada herri-konsulta bat egitea proposatzea, aurreko puntuetan ezarritakoaz gain, ekimenaren eskaerarekin batera honako hauek aurkeztu beharko dira: herritarrek egin nahi dituzten galderak edo proposamenak, parte hartuko duten pertsonak, herri-eremua, eta ekimena gauzatzeko arrazoiak azaltzen dituen memoria, sustatzaileen arabera.

Konsultaren xedeak eta herritarrei galderak edo proposamenak egiteko moduak arautegi honen 54. artikuluan ezarritako eskakizunak bete behar dituzte.

51. artikulua. Eskuera egiaztatzea eta izapidetzea onartzea

1.- Behin eskaera jasota, eta sinadurak bildu aurretik, Udalak egiaztatu beharko du proposatzen den herri ekimena araudi honetan ezarritako baldintzetara egokitzen dela, eta eskaerarekin batera beharrezko agiriak aurkeztu behar direla. Errekerimendu formala egin aurretik, Udalak Batzorde Sustatzaileari dei egin diezaioke bere proposamenaren nondik norakoak argitzeko eta izan ditzakeen zirkunstantzia eta baldintzen berri emateko.

2.- Herritarren konsulta bat sustatzeko herritarren ekimena bada, egiaztatu behar da, halaber, ez dela gertatzen 54.5 artikuluan aurreikusitako kontsultetatik baztertzeko kasuetako bat ere.

3.- Proposamenak Idazkaritza Nagusiaren, Kontu-hartzailearen, eraginpeko sailaren eta Komunitate eta Gobernantza sailaren txostenak izan beharko ditu.

4.- Era berean, tramitera onartu aurretik, Udalak txosten ekonomiko bat eska dezake, kontsultaren emaitzak udal jardueraren aurrekontuan eta plangintzan izan dezakeen eragina neurtu ahal izateko.

5.-Gastuak 500.000 € baino gehiagoko aurrekontua badu, Udalak bi aukera ditu: kontsultaren emaitza gauzatzeak baiezko botoen gehiengoa lortuz gero izan ditzakeen baldintzatzaileak Batzorde Sustatzaileari jakinaraztea eta eskaera izapidetzea ez onartzea.

6.- Aurkeztutako dokumentazioa osatugabea bada, horren berri eman behar dio Udalak Batzorde Sustatzaileari, 10 lan-eguneko epean, gehienez ere, nahitaezko agiriak erants ditzan, eta, hala egin ezean, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela adierazi.

7.- Eskabideak betekizun guztiak betetzen baditu, aurkeztutako sinadura-pleguak zenbakitu eta zigilatu beharko dira, bilketa aurrez aurre egiten denean. Bilketa modu digitalean egiten bada, aldeztu behar dira formularioa eta bilketa sistema.

8.- Gehienez ere hilabeteko epean, eskabidea aurkeztu denetik zenbatzen hasita, Batzorde Sustatzaileari jakinaraziko zaio eskaera onartu dela eta sinadurak aurrez aurre jasotzeko pleguen proposamena eta inprimaki digitala baliozkotu direla, edo, bestela, izapidetzeko onartu ez direla, betiere arrazoituta. Epe hori etenda geratuko da Batzorde Sustatzailea argibide gehiagorako deitzen den bitartean, artikuluko honen 1. puntuan adierazten den bezala, eta, bilerak amaitutakoan jarraituko du zenbaketak.

7.- Eskuera onartua izaten bada, web atarian argitaratu beharko da.



52. artikulua. Sinadurak biltzea, autentifikatzea eta aurkeztea

1.- Sinadurak honela jaso daitezke:

a) Aurrez aurre.

b) Plataforma digitalaren bidez.

c) Aurreko biak konbinatuz.

2.- Herritarren ekimena babesten duten pertsonen aurrez aurreko sinadurak biltzeko pleguetan, izen-abizenak, jaiotze-data, posta-kodea eta nortasun-agiri nazionalaren zenbakia jaso behar dira, edo, erkidegokoak ez diren atzerritarren kasuan, pasaportearena edo atzerritarren identifikazio-txartelarena.

3.- Aurrez aurreko sinadurak honako hauek egiaztatu behar dituzte: notario batek, Justizia Administrazioako abokatu batek, idazkari judizial batek, Udaleko idazkari nagusiak edo hark eskuordetutako pertsonak, edo Batzorde Sustatzaileak izendatutako fede-emaile bereziek, aurreko puntuan xedatutakoaren arabera. Sinadurak plataforma digitalaren bidez biltzeko sistema idazkariak edo hark eskuordetutako pertsonak baliozkotu behar dute.

4.- Sinadura digitalaren bidez sinatzeko, interesdunek aldez aurretik plataforma digitalean inskribatuta egon behar dute, artikulua honetan adierazitako dokumentazioarekin. Plataforma erregistro honetan inskribatzeak sinatzailearen nortasuna egiaztatuko du.

5.- Batzorde Sustatzaileak bi hilabeteko epean jaso beharko ditu sinadurak, udal-zerbitzuek baliozkotutako agirien lehen multzoa itzultzen dioten egunetik zenbatzen hasita. Alkatetzak, edo hark eskuordetzen duen organoak, epe hori beste bi hilabetez luza dezake, justifikatutako arrazoiengatik.

6.- Sinadurak aurrez aurre eta autentifikazioarekin batera aurkeztu behar dira sortan, ezarritako gehieneko epearen barruan.

7.- Udalak aurkeztu eta gehienez hilabeteko epean egiaztatu behar ditu sinadurak, ahal dela bitarteko elektronikoen bidez. Plataforma digitala eta sinadurak biltzeko aurrez aurreko sistema erabiliz gero, lehenik aurrez aurrekoak egiaztatuko dira, digitalekin gurutzatzeko eta bikoiztuak ezabatu ahal izateko, bakarra zenbatu ahal izateko.

53. artikulua. Sinadurak modu eraginkorrean biltzearen ondorioak

1.- Udaleko Idazkaritza Nagusiak egiaztatu ondoren herritarren ekimenak eskatutako sinadura balioudunen kopurua bildu duela, honako ondorio hauek izango ditu:

a) Entzunaldi publikoa proposatzeko bada ekimena, Udalak gehienez ere 30 eguneko epean egin behar du deialdia, ez bada kontrarik adosten talde sustatzailearekin.

b) Herritarren ekimena xedapen orokor bat onartzea proposatzea bada, hurrengo hiru hilabeteetan izapidetzea agindu behar da, udal-erregelamendu organikoan eta barrutien funtzionamendua arautzen duten arauetan ezarritakoari kalterik egin gabe.



c) Herritarren ekimena herri-kontsulta baterako deialdia proposatzea bada, proposamena Udalbatzak onartu beharko du, eta ekimena ordenamendu juridikoarekin bat datorrela egiaztatu beharko du, 50. artikulua arabera.

d) Herritarren ekimena partaidetza-prozesu baten hasiera proposatzea bada, Udalak gehienez ere hiru hilabeteko epean deitu behar du, ez bada izango kontrarik adosten talde sustatzailearekin.

e) Herritarren ekimena partaidetza-organo bat sortzea proposatzea bada, organo eskudunera bideratu behar da. Organo horrek bere erabakiaren berri eman behar du jendaurrean, eta, proposatutako partaidetza-organoa sortzearen aurkakoa bada, ezezkoaren arrazoiak adierazi behar ditu jendaurrean, modu arrazoituan, gehienez ere 30 eguneko epean, hargatik eragotzi gabe, hala badagokio, udaleko arautegi organikoan eta barrutien funtzionamendua arautzen duten arauetan ezarritakoa.

Nolanahi ere, ekimena izapidetzeko, txostenak lortu beharko dira, eta dagokion erabakia hartzeko eska daitezkeen prozedurak osatu.

2.- Herritarren ekimena Udaleko Osoko Bilkuraren onespina behar duten jarduketak direnean, Batzorde Sustatzaileko kide bat bilkurara joan daiteke proposamena azaltzeko, udal-erregelamendu organikoan ezarritako eztabaidak antolatzen sistemaren arabera.

3.- Herritarren ekimenak izaera orokorreko xedapen bat onartzea proposatzean datzanean, Batzorde Sustatzaileak proposamena atzera bota dezake behin betiko onartzeko bozketa egin aurretik, baldin eta uste badu arau-proposamenaren azken edukia funtsean aldatu dela, izapidetzen ari den bitartean hasierako proposamenari dagokionez.

VII. KAPITULUA: UDAL KONTSULTA GAUZATZEKO PROZEDURA

54. artikulua. Kontzeptua eta xede diren gaiak

1.- Udal kontsultak herritarrek parte hartzeko mekanismo bat dira, zeinaren bidez herritarrek iritzia eman dezaketen garrantzia berezia duten udal eskumeneko interes orokorreko gaiei buruz, erreferendum mailako edukirik ez duen bozketa-sistema unibertsal, zuzen, aske, berdina eta isilpekoaren bidez.

2.- Toki erregimeneko oinarrizko eta autonomiako legeriak xedaturikoarekin bat, bi udal kontsulta mota bereiz daitezke:

a) Herri kontsulta, toki erregimeneko oinarrizko legeriaren arabera.

b) Sektoreko edo lurralde-eremu mugatuetakoko kontsulta, herritarren zati bati bakarrik bideratutakoak.

3.- Herri kontsultetan, kontsultaren gaia udalaren eskumeneko eta toki izaerako kontuekin loturik egongo da nahitaez. Toki Ogasunari buruzkoak eta toki erregimeneko oinarrizko legeriak galarazitako beste edozein izan ezik. Kontsultaren xede diren gaiak garrantzi berezikoak izango dira bizilagunentzat.



4- Kontsulta sektorialetan edo lurralde esparru mugatua dutenetan, herritarren parte bat edo udalerriko biztanleen parte bat bakarrik ukitzen duen arazo zehatz batean oinarritu behar du, argi eta garbi, kontsultaren xedeak.

5.-Inolaz ere ez dira kontsultaren gai izango honako hauekin loturiko galderak:

a) Pertsonen duintasuna, giza eskubideak edo oinarrizko eskubideak zein askatasun publikoak urratzearekin edo zalantza jar ditzaketenean.

b) Ez dira onartuko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa urratzen duten ekimenak.

c) Toki Ogasunaren diru sarrera publikoei nahiz Udalaren finantza iraunkortasunari buruzkoak.

55. artikulua. Lotesletasuna

1.- Kontsulta horiek ez dira lotesleak izango Udalaren ordezkari organoentzat, kontrako adierazten duen legerik egon ezean. Nolanahi ere, arau honetako 76. artikuluan xedatutakoarekin bat, Udaleko Gobernu Batzarrak publikoki eta arrazoiak emanez azaldu beharko du nola eragingo dion horren emaitzak kontsultapean jarritako gaiari, eta posible den kasuetan, kontsultaren lotesletasuna udal plenoaren gehiengo osoaren bidez erabakiko da.

56. artikulua. Printzipioak

1.- Udal kontsultek ondoko printzipio hauek errespetatuko dituzte: hizkuntza eskubideak, gardentasuna, publizitatea, argitasuna, informaziorako aukera, erakunde-neutraltasuna, interes kolektiboaren nagusitasuna, dibertsitatea, deliberazio publikoa, eztabaida publikoa, berdintasuna eta diskriminazio-eza, inklusioa, irisgarritasun unibertsala, eraginkortasuna, izaera pertsonaleko datuen babesa eta kontu-ematea.

2.- Tolosako Udalak herritarren parte-hartze prozesuak bultzatuko ditu, garrantzi bereziko gaiak helburu dituzten arau eta araudien aurreproiektuak egiteko, besteak beste, generoarekin eta berdintasun printzipioarekin zerikusia duten gaiak.

3.- Araudi honetan ezarritakoarekin bat etorritik, printzipio hauek obligazio dira Udalarentzat, eta eskubide eta berme, aldiz, kontsulta-prozesuan parte hartzeko legitimazioa duten subjektuentzat.

3.-Entzute aktiboan eta akordioen bilaketan oinarritutako metodologia eraldatzaileen aldeko ikuspegi dialogikoak izango dituzte gidari.

57. artikulua. Mugak

1.- Urtero egin daitezkeen kontsulta-prozesuen kopurua ez da bat baino handiagoa izango, prozesu horietako bakoitzean kontsultapean gai bat baino gehiago jarri ahal izango den arren.

2.- Kontsulta-ekimen desberdinak kontsulta-prozesu beraren baitan biltzen ahaleginduko da Udala, baliabide publikoak eraginkortasun handiagoarekin kudeatu ahal izan daitezen.

3.- Kontsulta bat sustatzeko izapideak abiarazi ondoren, ezingo da gai berari buruzko beste kontsultarik sustatu kontsulta egiten denetik edo ekimena ezesten denetik lau urte igarotzen diren arte.



58. artikulua. Kotsultaren sustapena eta onestea

1.- Herri kotsultak udalaren ekimenez zein herritarren ekimenez sustatu ahal izango dira, Araudi honetan xedaturikoaren arabera, herri ekimenaren alorrean indarrean dagoen legeriari jarraiki, Udalbatzaren Osoko Bilkurak gehiengo osoaren botoekin hartutako erabakiaren bidez.

Udalbatzaren gehiengoak ezesten badu, arrazoiak eman beharko ditu eta errekurtsua jarri ahalko zaio erabaki horri dagokion administrazio errekurtsu edo errekurtsu jurisdikzionalen bidez.

2.- Sektoreko edo lurralde-eremu mugatuetako kotsultak udalaren ekimenez sustatu ahal izango dira, behin Udalbatzaren Osoko Bilkurak gehiengo osoz onartu ondoren.

59. artikulua. Erakunde ekimena aurkezteko modua eta onestea

1.- Erakunde ekimena udal talde politikoei dagokie.

2.- Kotsulta proposamena aintzat har dadin, honako dokumentu hauekin batera aurkeztu beharko da: kotsultapean jarriko den galderaren edo galderen testu zehatza eta kotsulta hori komenigarri bihurtzen duten arrazoiak buruzko azalpen memoria eta hori gauzatzeko eskumen eremua.

3.- Proposamenak Idazkaritza Nagusiaren, Kontu-hartzailearen, eraginpeko sailaren eta Komunitate eta Gobernantza sailaren txostenak izan beharko ditu.

4.- Kotsulta egiteko erabakia hartzeko Udalbatzaren gehiengo osoak alde bozkatu beharko du eta Osoko Bilkuraren erabakian honako alderdi hauek jasoko dira gutxienez: galdeketa-gai den xedapen, politika edo erabakia publikoaren testu osoa, kotsultapean jarriko d(ir)en galdera edo galderak, eta, hala badagokio, baita hautesleak nortzuk izango diren ere.

5.- Erabakiaren aurka errekurtsua jarri ahalko da organo beraren aurrean eta/edo dagokion administrazio errekurtsuen edo errekurtsu jurisdikzionalen bidez.

60. artikulua. Herri ekimena aurkezteko modua

1.- Udal hauteskundeetan bozkatzeko eskubidea duten pertsonak, hots, 18 urtetik gorakoek, sustatu ahalko dute herri kotsulta egiteko proposamena. 47. artikuluan xedatutakoari jarraiki

2.- Ekimen horiek Tolosan erroldaturiko bizilagunen % 10ek onetsi beharko dituzte, gutxienez.

61. artikulua. Botoa emateko legezkatuta dauden pertsonak

1.- Oro har, kotsulta horietan botoa eman ahal izango dute Tolosako Biztanleen Udal Erroldan inskribatuta dauden 16 urtetik gorako pertsonak, baldin eta bozketa hasterako urte horiek beteak badituzte eta Kotsultaren deialdia egiten den unean udalerrian erroldatuta badaude.

2.- Edozein kasutan, Biztanleen Udal Erroldaz arduratzen den bulegoak osatuko du boto emaileen errolda, Idazkaritza Nagusiak gainbegiratuta eta oniritzia emanda.

3.- Kotsultaren lurralde esparruak kotsultaren tramitazioa abian jartzen duen udalbatzaren osoko bilkuraren akordioak mugatu beharreko udalerriarren parte bat hartzen duenean, dagokion esparruko Erroldan edo boto emaileen erroldan inskribatuta dauden pertsonak bakarrik egongo dira botoa emateko legezkatuak.



62. artikulua. Galdera egiteko eta erantzuteko modua

1.- Modu zehatz, argi eta ulerterrazean egindako galdera baten edo batzuen bidez egingo da kontsulta, herritarrek horien hedadura osoa ulertu ahal izan dezaten.

2.- Boto hori baiezkoa edo ezezkoa izan daiteke.

3.- Salbuespen gisa, kontsultak zenbait erantzun alternatibo planteatu ahal izango ditu, botoa haietako baten ingurukoa izan dadin.

4.- Galdera bakar bati ere erantzuten ez zaionean, edota laukitxorik ez bada markatzen, botoa zurian izan dela ulertuko da.

Aitzitik, hainbat laukitxo markatu badira edo boto txartelean iruzkinak, urratuak edo zuzenketak baldin badaude, botoa baliogabetzat hartuko da.

63. artikulua. Deialdia egiteko eta kontsulta gauzatzeko epealdi baliogabeak

1.- Hauteskunde orokorren edo autonomiakoen deialdiaren eta horiek egiteko epearen arteko denboran ezin izango da inolako kontsultarik deitu, ez eta aurrera eraman ere.

2.- Udal hauteskundeen kasuan, hauteskundeak egin aurreko 90 egun naturalen eta Udal Gobernu berriak kargua hartu ondoko 90 egunen arteko denboraldira luzatzen da ezin egite hori.

64. artikulua. Deialdia eta informazio kanpaina

1.- Udalbatzaren osoko bilkurak kontsulta egitearen aldeko erabakia hartu ondoren, kontsultaren deialdiaren izapidetuko da, herri kontsultak alde aurreko tramite gisa Estatuko Gobernuari baimena eskatzea eskatzen badu ere, eta hark xedaturiko prozeduraren arabera bideratuko da eskaera hori.

2.- Deialdiaren ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, gardentasun atarian eta Tolosako lurralde esparruan hedatuen dauden komunikabideetan argitaratuko da, eta honako alderdi hauek definitu behar ditu gutxienez:

a) Kontsultaren izaera eta haren lurralde esparrua, hala badagokio.

b) Kontsultapean jarritako galdera edo galderak.

c) Bozketa sistema.

d) Kontsultaren epeak eta ezaugarriak eta kontsultarekin loturiko aukera desberdinei buruzko informazio bideak jakinaraziko dituen informazio kanpaina.

Kanpaina denboraldia ez da 30 egun naturaletik beherakoa izango, ez eta 90 egunetik gorakoa ere.

e) Bozketa aldia. Denbora tarteak ez da izango da izango 15 egun jarrai edo txandakakoa baino luzeagoa. Kontrako kasuan, udalbatzaren osoko bilkurak erabakia hartu beharko du arrazoiak behar bezala justifikatuta.

f) Bozketa lekuak.

g) Kontsulta mahaien izendapena.

h) Prozesuaren berme eta kontrol sistema.

i) Udal langile gaituak.



3.- Kontsulta egin beharko da deialdia GAOn argitaratzen den egunaren hurrengo 90 egunen eta urte baten arteko epe luzaezinean.

4.- Argitalpenaren hurrengo 5 egun naturalen barruan, deialdi hori Udalaren web atarian, iragarkitaulan eta dagokion lurralde-eremuan zabalkunderik handiena duten hedabideetan argitaratuko da.

5.- Araudi honen 86. artikulua xedaturikoaren arabera herri ekimena bultzatzeko gaitutako gizarte erakundeak kontsultaren ondorioetarako interesduntzat hartuko dira, baldin eta haien helburu soziala kontsultak gai duen kontuarekin loturik badago. Kasu horretan, informazio kanpaina aurrera eramateko jarritako epean, beren jarrera adierazteko ekintzak aurrera eraman ahal izango dituzte erakunde interesdunek.

65. artikulua. Informazio kanpaina eta eztabaida publikoa

1.- Informazio-kanpainak eztabaida publikorako epe bat jaso beharko du, eta horren barruan, ekitaldi mota desberdinak antolatu daitezke metodologia desberdinekin, iritziak eta argudioak trukatu daitezela errazteari begira.

Eztabaida Publikoa egiteko ezarritako epearen barruan, Sustapen Batzordeak, talde politikoek eta gizarte-eragile nahiz elkarte profesional interesatuek beren jarreraren inguruko informazio-jarduerak egin eta azalpenak eman ahal izango dituzte.

Informazio eta eztabaida publikorako epea ezin daiteke 30 egun naturalekoa baino laburragoa izan, ezta 90 egun naturalekoa baino luzeagoa ere.

66. artikulua. Bermeen sistema

1.- Bermeen sistemaren helburua da kontsulta prozesuaren fidagarritasuna, gardentasuna, neutraltasuna eta objektibotasuna bermatzea, eta aplikagarri zaion erregimen juridikoa betetzen dela ziurtatzea. Kontsultaren Jarraipen eta Kontrol Batzordeak garatuko du bermeen sistema.

2.- Udalak Kontsultaren Jarraipen eta Kontrol Batzordearen eskura beharreko baliabide pertsonalak eta materialak jarriko ditu bere eginkizunak behar bezala gara ditzan, aplikatu beharreko legeriak xedaturiko erregulazioaren eta kontuen berri emateko mekanismoen arabera betiere.

67. artikulua. Kontsultaren Jarraipen eta Kontrol Batzordea

1.- Kontsulta prozesuaren argitasuna, gardentasuna eta eraginkortasuna zaintzeaz arduratuko den organoa da.

2.- Kontsultaren Jarraipen eta Kontrol Batzordeak autonomiaz eta independentziaz jardungo du bere eginkizunak betetzerakoan.

3.- Kontsulta-prozesu bakoitzeko Kontrol Batzorde bat eratuko da, kontsultapean izango diren ekimenen eta gaien kopurua edozein izanik ere .

4.- Deialdiaren ebazpenak haren osaketa aurreikusi behar du, bakarra izango da kontsulta bakoitzerako.



68. artikulua. Kotsultaren Jarraipen eta Kontrol Batzordearen osaera

1.- Batzorde horrek kide kopuru bakoitia izango du, bost baino gutxiago ez eta hamabost baino gehiago ez, eta presentzia orekatua bermatuko da emakumeen eta gizonen artean, bi sexuak gutxienez ehuneko 40an ordezkatuak egon daitezten.

Udaleko kideen kopurua ezin izango da Batzordeko guztizko kideen erdia gehi bat baino handiagoa izan. Batzorde jendetsuetan Udalbatzaren indar korrelazioa hartuko da kontuan udal ordezkariak esleitzerakoan.

2.- Deialdia egiten den unean 30 eguneko gehienezko epea zabalduko da, eta gizarte erakunde interesdunek epe horretan adierazi behar dute Batzordeko kide izateko asmoa, beren ordezkari izango den pertsona izendatuta.

3.- Batzordean ordezkaria izendatzeko interesa duten erakundeen kopurua Araudi honetan aurreikusitako gehieneko kide kopurua baino handiagoa bada, erakunde interesdunaren artean zozketa publikoa egingo da Batzordearen azken osaketa finkatzeko, eta Alkatetzaren edo hark eskuordetutako organoaren ebazpenaren bidez onartuko da hura.

4.- Herri Administrazioen eta administrazio prozedura erkidearen erregimen juridikoaren alorrean indarrean dagoen legeriak organo kolegiatuetarako xedaturikoa izango du arau Batzordearen funtzionamenduak.

5.- Haren izendapena erabaki zuen organoaren aurrean errekurritu ahal izango dira Batzordearen erabakiak.

69. artikulua. Kotsultaren Jarraipen eta Kontrol Batzordearen eginkizunak

1.- Honako eginkizun hauek izango ditu kotsultaren Jarraipen eta Kontrol Batzordeak:

a) Kotsulta prozesua behar bezala gara dadin arduratuko da, Araudi honen eta deialdian jasotako arau espezifikoen arabera.

b) Udalaren jardueren jarraipena egingo du kotsulta prozesuan.

c) Kotsulta prozesua hobetzeko gomendioak eta iradokizunak egingo ditu.

d) Emaizten zenbatze jarduerak berrikusiko ditu eta aktak nahiz gorabehera buruzko, horrelakorik baldin badago, txostena Alkatetzari helaraziko dizkio, emaitzak adieraz daitezten.

e) Deialdiaren ebazpenak esleitu diezaiokeen beste edozein.

2.- Udalak kotsultaren emaitzari begira duen posizionamendua publiko egin ondoren bukatuko da batzordearen agintaldia.

70. artikulua. Udalaren espazioak eta baliabideak

1.- Udalak erabakiko du informazio kanpainaren eta eztabaida publikoaren eskura zein espazio publiko jarriko dituen, eta baita haien banaketa ere, posizio interesdunen artean berdintasun eta proportzionaltasun printzipioak errespetatuz betiere. Espazio horiek irisgarritasun-printzipioa bermatu beharko dute.

2.- Udal web atarian atal bat jarriko da kotsultaren gaiari buruzko aukera desberdinetarako.



3.- Udalak azalpen-buletin bat prestatuko du eta etxeetan banatuko du. Buletinean, kontsultagaiaren inguruan egon daitezkeen jarrera desberdinei espazio bera eskainiko zaie, bozeramaileen Batzordean entzun eta eztabaidatu ondoren. Jarrerei buruzko azalpen horiek udal talde politikoei, ekimenaren sustatzaileek edo interesatu gisa kreditatutako eragile nahiz kolektiboek egin ahal izango dituzte.

71. artikulua. Bozkatzeko moduak

1.- Aurrez aurreko bozketa kontsultarako mahaian edo mahaietan egingo da deialdiaren ebazpenean adierazitako egunean edo egunetan, hartan jasotako ordutegian.

2.- Aurrez aurreko bozketa boto txartelen bidez egingo da eta gutun azal itxian. Gutun azal hori hautetsontzian sartu beharko da.

3.- Honako irizpide hauek errespetatuko dira betiere: parte hartzaileen identifikazioa, hauteskunde erroldan edo zerrendan inskribatuak daudela egiaztatuz; botoaren isilekotasuna eta botoak daramatzaten gutun azalen osotasuna, zaintza sistema egokiaren bidez zenbatzeko unera arte.

4.- Aurrez aurrekoa ez den bozketa baliabide elektronikoen bidez egingo da batik bat. Salbuespen gisa posta bidez bozkatu ahal izango da, eta horretarako, hauteskunde araudi orokorra hartuko da erreferentzi gisa, jarritako baliabideak soil-soilik udalarenak izango badira ere.

5.- Aurrez aurrekoa ez den bozketak honako hauek bermatu behar ditu, betiere:

a) Segurtasuna parte hartzen duen pertsona identifikatzerakoan.

b) Pertsona bakar batek bi aldiz edo gehiagotan ez bozkatzea.

c) Botoaren isilekotasuna, eman den iritzia eta iritzi hori eman duen pertsonaren artean inolako loturarik ezarri ez dadin.

d) Boto elektronikoen eta posta ziurtatuaren bidezkoaren segurtasuna, parte hartzea edo emandako botoak alda ez daitezen.

e) Gardentasuna, behaketa eta gainbegiratze independentea eta oinarritua aurrera eraman ahal izateko.

72. artikulua. Kontsulta mahaiak

1.- Kontsulta mahaiak deialdiaren ebazpenean finkatuta egongo dira eta gutxienez 3 kide eta gehienez 5 izango dituzte, dagozkien ordezkoei. Kideetako bi gutxienez udal langile izaera izango dute eta mahaiko lehendakari eta idazkari eginkizunak beteko dituzte.

2.- Udal langileen artean boluntarioki aurkeztutako zozketaren bitartez hautatuko ditu mahai-kideak Kontsultarako Organo Izapidegileak. Boluntariorik ez balego, gainerako kideak Tolosako biztanleak izango dira, baina ez dute parte hartzeko obligaziorik eta horrenbestez askatasun osoz uko egin diezaizkete izendapenari. Udal langileen izendapena behartua izan daiteke langile boluntario aski aurkezten ez badira.

3.- Mahaietan prozesuaren behatzaile gisa egon ahal izango dira udal talde politikoei eta kontsultan interesaturiko erakundeek proposatutako pertsonak. Haiek, deialdia egiten denetik



30/45 eguneko epean gehienez, eman beharko diote pertsona horien zerrenda herritarren parte hartze alorrean eskumena duten udal organoari. Era berean, behatzaile gisa mahaietan egon ahal izango da hala nahi duen Tolosako edozein herritar, aipaturiko epe horretan eta organo berari jakinarazi badio nahi hori.

4.- Bozkatzeko mahaia osatzen duten pertsonen beren zerbitzuak ordainduko zaizkie Udalak deialdi bakoitzean finkatutako zenbatekoekin. Euskadiko administrazio autonomikoak Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan jarritako zenbatekoak hartuko dira erreferentzia gisa.

5.- Bozkatzeko mahaiei administrazio organo kolegiatuen alorrean eta hauteskunde legeria orokorrean indarrean dagoen araudia izango zaie aplikagarri, beren izaerarekin bateragarria den guztian.

6.- Herri esparruko kontsultetan, gutxienez aurrez aurreko kontsulta mahai bat bermatuko da Tolosako auzo bakoitzeko, eta mahai batek ez ditu, inolaz ere, 3.000 biztanle baino gehiago izendatuak izango.

73. artikulua. Kontsulta mahaien eginkizunak

1.- Kontsulta-mahaien eginkizunak ondorengo hauek dira:

a) Parte hartzen duten pertsonen araudi honek aitortzen dien partaidetza-eskubidea egoki erabil dezaten laguntzea.

b) Parte hartzera deitutako pertsonak identifikatzea.

c) Parte hartzera deitutako pertsonen zerrenda zaintzea, botoa eman dadila baimentzea eta parte-hartzaileen erregistroa eramatea.

d) Erantzunen behin-behineko kontaketa publikoki egitea eta dagokion aktan agerraraztea, izandako gorabeherekin batera.

e) Kontsulta gauzatzeko beharrezkoa den materiala erabiltzeko moduan dagoela zaintzea.

f) Kontsulten Organo Izapidegileak edo Udalak agintzen dizkioten gainerakoak.

Kontsulta-mahaiaren lehendakariak agintari publiko gorenaren izaera edukiko du bere jardueraren barruan, eta langile publikoaren izaera edukiko du.

74. artikulua. Botoen zenbaketa

1.- Botoa emateko denbora amaitutakoan, mahaiek botoak zenbatuko dituzte, eta baliogabetzat hartuko dituzte alde aurretik deialdian adostutako ereduarekin bat ez datozen boto txartelak edo edozein eratako aldaketak izan dituztenak, emandako iritziaren inguruan okerra eragin edo hura baldintzatu dezaketelako.

2.- Mahaiak botoen zenbaketaren akta idatziko du eta kontsultaren Jarraipen eta Kontrol Batzordeari emango dio. Akta horretan, bozketa prozesuko edozein alderdiri buruzko alegazioak jasoarazi ahal izango dituzte Mahaia osatzen duten pertsonen, baita behatzaile gisa egon direnek ere.



3.- *Kontsultaren Jarraipen eta Kontrol Batzordeak, hala badagokio, aktan jasotako alegazioei buruzko txostena egingo du eta Alkatetzari helaraziko dio botoen zenbaketaren aktekin batera, dagokien ebazpenaren bidez erabaki daitezen.*

75. artikulua. Emaitzak argitaratzea

1.-*Akta jasotzen den egunetik, eta gehienez ere 7 eguneko epean, Alkateak ebazpenaren bidez adieraziko ditu emaitzak. Ediktuen taulan, gardentasun atarian eta Alkatetzak egokitzen hartzen duen beste edozein baliabidetan argitaratuko da ebazpena.*

2.-*Tolosako Udalak kontsultan lortutako emaitzak argitaratuko ditu, datu teknikoak zehaztuz eta sexuaren arabera bereiziz.*

3.-*Emaitzak adierazteko ebazpenaren aurka, eta baita izan diren alegazioak edo/eta gorabeherak erabakitzen dituenaren aurka ere, errekurtso administratibo eta juridikozional arruntak aurkeztu ahal izango dira.*

76. artikulua. Udalaren posizionamendua emaitzari begira

1.-*Bozketaren emaitzarekin loturiko ebazpena egin denetik edo gertatutako gorabeheren ebazpena egin denetik hasi eta gehienez ere 60 egun naturaleko epean, Gobernu Taldeak edo Osoko Bilkurak (organo eskudunak), Bozeramaileen Batzordearen bidez, publikoki eta behar bezala arrazoituta adieraziko du emaitzak zer-nolako eragina izango duen kontsultapean jarritako jarduera publikoan duen izaeraren eta lotura mailaren arabera.*

III- TITULUA: KOMUNITATEAREN GARAPENA BULTZATZEKO EGITURA

I. KAPITULUA: HERRITARREN TREBAKUNTZA ETA AHALDUNTZEA

77. artikulua. Herritartasun aktiboa

Tolosako Udalak herritarren artean herritartasun aktiborako informazioa eta prestakuntza bultzatuko ditu balio demokratikoak eta parte hartzea gara daitezen gizarte balio gisa, arreta berezia jarritzera guztietako aniztasunetan eta genero-berdintasunari buruzko printzipioetan.

78. artikulua. Gizarte zibila indartzea

1.-*Tolosako Udalak gizartearen borondatezko ekintza parte-hartzaile, inklusibo eta eraldatzailearen errealitate desberdinak ezagutu eta sustatuko ditu, arlo horretan indarrean dagoen legerian jasotako moduan, eta gizarte indartzeko gizartearen parte hartzeko beste modu batzuekin duen lotura bultzatuko du.*

2.-*Tolosako Udalak udalerrriak dituen gaitasun ekonomikoen arabera baliabide eta ekipamendu egokiak emango dizkie boluntariora eredu horien esparruan diharduten taldeei*

79. artikulua. Tolosatzen eskola irekia

1.-*Tolosako udalak "Tolosatzen Eskola Irekia" eratu du pertsona erdigunea jarritzera, herri agenda partekatua garatzeko udalaren, eragileen, taldeen eta herritarren arteko sinergiak indartzeko asmoarekin.*



2.- Tolosatzen Eskola Irekia hiru lan esparru nagusitzan ardaztuko da:

- a) Herritarrei formazioa eskaintzea herritartasuna eta trebetasun sozialetan sakontzeko.
- b) Gizartearen eta komunitatearen sendotzea ahalbidetzen duten proiektuak eta egitasmoak sustatzea.
- c) Udal zerbitzuen, Udalerriaren eta herri-ingurunearen ezagutza sustatzea.

3.- Eskola irekiaren jardueren publiko hartzailea Tolosako herritarrak dira, nahiz eta irekia dagoen parte hartu nahi duen pertsona ororentzat: xede talde gisa Tolosako herritarrak, Tolosako elkarteak eta kolektiboak, Tolosako udaleko langileak eta Udaleko ordezkari politikoak identifikatu dira.

80. artikulua. Tolosatzen eskola Irekiaren kudeaketa eta funtzionamendua.

1.- Tolosako Udaleko Komunitatea eta Gobernantza sailaren ardurapekoa izango da Tolosatzen Eskola Irekia.

2.- Tolosatzen Eskola Irekiak ikasturtearen arabeko programazioa osatuko du ekitaldi bakoitzean, eta horren bidez burutuko du bere jarduera.

3.- Eskolaren kudeaketarako Talde Sustatzailea eta Talde Motorra eratuko dira, eta talde hauek izango dira eskolaren jardueraren diseinuaz, jarraipenaz eta ebaluazioaz arduratuko direnak.

81. artikulua. Tolosatzen Eskola Irekiaren talde sustatzailearen osaera

1.- Tolosatzen Eskola Irekiaren Talde sustatzailearen funtzioa da eskolaren helburu estrategikoak ezartzea eta hauek urtez urte betetzen direla gainbegiratzea.

2.- Talde Sustatzaile pertsona hauekin osatuko da: Komunitatea eta Gobernantza saileko arduradun teknikoa, idazkari rola jokatu duenari, Komunitatea eta Gobernantza saileko arduradun politikoa, alkatea eta Udalbatzan ordezkari politikoak duten alderdietako ordezkari bana.

82. artikulua. Tolosatzen Eskola Irekiaren talde motorraren osaera

1.- Tolosatzen Eskola Irekiaren Talde Motorraren funtzioa da eskolaren edukien lanketa egitea, gaiak proposatzea eta ikasturte bakoitzeko helburuak eta plangintza zehaztea.

2.- Tolosako edozein herritar izan daiteke talde motorreko kide. Horretarako deialdi irekia egingo du ikasturte bakoitzean Komunitatea eta Gobernantza sailak. Talde honetan parte hartuko duten pertsonak norbanako gisa hartuko dute parte bertan. Herritar boluntarioez gain, Udalbatzan ordezkari politikoak duten alderdietako ordezkari bana egongo da taldean eta Komunitatea eta Gobernantza saileko ordezkari teknikoak egingo ditu idazkaritza lanak.

3.- Talde honen osaera parekidea izatea sustatuko da.

83. artikulua. Bestelako formazio eta trebakuntza ekintzak

1.- Tolosatzen eskola irekia Tolosan garatzen diren bestelako formazio jarduerak publikoekin elkarlana eta osagarritasuna landuko ditu, hala nola, Hezkuntza komunitatea, Jabetze eskola, KZgunea, eta antzeko bestelako formazio guneekin, formalak zein ez formalak.



II. KAPITULUA: ELKARTEGINTZA SUSTATU, INDARTU ETA SARETZEA

84. artikulua. Elkarte-sarea

1.- Tolosako herritarren elkarte eta kolektiboen sarea udalerriak duen gizarte kapitalaren elementu garrantzitsua da, izan ere, elkartegintza pertsonak bere udalerriarekin duten konpromisoaren adierazpen kolektiboa da. Elkartegintzak, gainera, balio erantsia du, interes publikoko eta sozialeko xedeak dituelako.

2.- Udalak hainbat baliabide publiko erabiliko ditu ehun-sozialak sustatutako proiektuen garapena eta indartzea sustatzeko, bereziki, berdintasunaren eta justizia sozialaren ikuspegitik lan egiten dutenak, komunitatea eta komunitario dena indartzea helmuga dutenak eta bazterketa-arriskuan dauden pertsona eta kolektiboen partaidetza eta inklusiorako bide direnak.

3.- Tolosako Udalak herriko eta interes publikoko gaietan parte hartzeko bidea emango die udalerriko herritarren elkarte eta kolektiboei, eta baliabideak bideratuko ditu hauek garatu eta egonkortu daitezken, beti ere elkarte eta kolektibo bakoitzaren ekinbiderako autonomia errespetatuz.

85. artikulua. Herritarren elkarte eta kolektiboen fitxategia

1.- Herritarren elkarte eta kolektiboen-sarearekin harremanak errazteari begira, udalerrian jarduten duten irabazi asmorik gabeko eta elkarte-araubide espezifiko baten mende ez dauden herritarren elkarte eta kolektiboen fitxategia sortu eta zainduko du sail edo zerbitzu eskudunak, baita eguneratuta mantendu ere.

2.- Fitxategiak helburu hauek izango ditu:

- a) Udalerrian dagoen elkarte-sarea ezagutzeko eta hauen balio publikoa aitortzea.
- b) Arau honetan aitortutako eskubideak erabiltzeko erraztasunak ematea, kasu bakoitzean zehazten den moduan.
- c) Udalari eta, oro har, Tolosako gizarteari aukera ematea une oro ezagutzeko zein diren kolektiboen ordezkari buruzko daturik garrantzitsuenak, haien jardueren interes-maila edo herri erabilera, berdintasunarekin edo aniztasunarekin duen lotura, edo sareak eta aliantzak sortzea errazten duen beste edozein datu, beti ere Datuen Babeserako 3/2018 Lege Organikoak dioena aintzat hartuz.

86. artikulua. Herritarren elkarte eta kolektiboen izaera

1.- Arau honen ondorioetarako herritarren elkarte eta kolektibo kontsideratzen dira:

- a) Herritarren elkarte izaera dute: dagokion erroldan formalki eraturako eta inskribaturako irabazi asmorik gabeko izaera juridikodun elkarte-izaera duten erakundeak, elkartzeko eskubidea arautzen duen erregimen orokorarekin bat datozenak, baldin eta beren egoitza edo jardura nagusia Tolosako udalerrian kokatua badago eta beren funtsezko helburua, Estatutuetan jasota duten moduan, herritarren interes orokorrak edo sektorialak ordezkatzeko eta sustatzeko eta herritarren bizi-kalitatea hobetzea bada.



b) Herritarren kolektibo izaera dute: herritarren elkarte izan gabe, irabazi-asmorik gabeko hiru pertsona fisiko edo gehiagoko taldeak, baldin eta Tolosako udalerrian esku hartzen badute, herrian sustraituta badaude, eta xedeen artean herritarren interes orokorrak edo sektorialak sustatzea eta herritarren bizi-kalitatea hobetzea badute.

87. artikulua. Fitxategiaren informazioa

1.- Formalki erregistratutako elkarteen kasuan, honako informazioa jasoko du fitxategiak:

a) Erakundearen estatutuak, honako hauek adierazita: izena, jarduteko lurralde-eremua, egoitza soziala, helburuak eta jarduerak, hasierako ondarea, erabili ahal izango dituen baliabide ekonomikoak, erakundearen funtzionamendu demokratikoa bermatzen duten irizpideak, eta edozein Erregistro Publikotan inskribatzeko indarrean dagoen araudian zehazten diren alderdi guztiak.

b) Dagokion Erregistro Publikoko inskripzioa eta inskripzio-zenbakia egiaztatzea.

c) Bazkide-kopurua (generoaren, adinaren eta testuinguru zehatzean garrantzitsutzat jotzen diren ardatzen arabera sailkatuta).

Oinarrizko elkarteen federazio, konfederazio edo batasunen kasuan, gainera, elkarte osatzen duten erakundeen kopurua egiaztatzen duen agiria aurkeztuko da, bai eta horien zerrenda ere, helbidea Tolosan dutenak eta horietako bakoitzaren bazkide kopurua adierazita.

2.- Herritarren kolektiboen kasuan, honako hauek jasoko ditu fitxategiak:

a) Talde edo kolektiboko kideen izen-abizenak eta nortasun-agiria (generoaren, adinaren eta testuinguru zehatzean garrantzitsutzat jotzen diren ardatzen arabera bereizita).

b) Hala badagokio, kolektiboak hartzen duen izena.

c) Fitxategian izena emateko borondatea adieraztea.

d) Talde edo kolektiboaren xedearen edo xedeen deskribapena

e) Talde edo kolektiboak nagusiki Tolosako udalerrian egiten dituen jarduerak.

f) Jakinarazpenetarako helbidea.

g) Aplikatzekoa den sektoreko araudiaren arabera legezko ordezkari gisa jarduten duen pertsona, edo, halakorik ezean, talde edo kolektiboak ordezkari gisa izendatutako pertsona. Ordezkaritza Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 5. artikuluan aurreikusitako bitartekoen arabera egiaztatu beharko da.

Bi kasuetan, fitxategian inskribatzea formulario normalizatuen bidez egin beharko da.

3.- Fitxategian inskribatutako herritarren elkarte eta kolektiboen direktorioa publiko egingo du udalak, beti ere Datuen Babeserako 3/2018 Lege Organikoak dioena aintzat hartuz.

88. artikulua. Tolosan elkartegintza indartzeko eta sendotzeko tresnak

1.- Herritarren elkarteek eta kolektiboek beren jarduerak berme guztiekin garatu ditzatela erdiesteko, Tolosako Udalak zenbait bitarteko juridiko eta material erabili ahalko ditu. Horretarako, laguntzez, dirulaguntzez, hitzarmenez edo horretarako egokia den bestelako lankidetzeta molde guztiez baliatu ahal izango da.



2.- Interes orokorra sustatzeko xedea duten elkarte-proiektuak bultzatuko dira, herritar guztientzat irekiak, inklusiboak, irisgarritasun unibertsala eta desberdintasunen murrizketa bermatzera bideratuak eta, ahal dela, doakoak, edo, gutxienez prezio politika arrazoizkoak izango dituztenak; gizarte-egituraketa eta herritarren erakunde eta kolektiboen arteko lankidetzak sustatzen dutenak; lurralde-orekan, berdintasunean eta justizia sozialean eragiten dutenak; eta erabakiak hartzeko gune irekia dutenak.

3.- Elkartegintza sustatu eta indartzeko beharrezko neurriak jasoko dituen programa bat prestatuko du Tolosako Udalak, genero ikuspegia kontuan hartzen duena. Programa horren barruan argi adieraziko dira lortu nahi diren helburuak eta ondorioak, eta horiek lortzeko behar diren epeak eta eskura jarriko diren bitarteko edo baliabideak.

Programa horretan ondoko hauek sartu ahal izango dira:

- a) Elkartegintza mugimendua kudeatzeko, dinamizatzeko eta sustatzeko heziketa eta gaikuntza, herritar-mugimenduaren inplikazioarekin antolatuta, hainbat formatu eta modalitatetan.
- b) Aholkularitza-zerbitzua, partaidetzaren eta kudeaketaren maila desberdinetan.
- c) Elkarreentzako baliabide bereziak.

4.- Arreta berezia emango zaie gizonen eta emakumeen partaidetzan dauden desberdintasunak gainditzeko prestakuntza-ekintzei.

II. KAPITULUA. LANKIDETZA PUBLIKO-SOZIALA

89. artikulua. Lankidetzak publiko-sozialak

1.- Lankidetzak publiko-sozialak joko dira herritarren eta 84. artikuluan definitutako irabazi-asmorik gabeko herritarren elkarte eta kolektiboen eta Tolosako Udalaren eta haien erakunde publikoen arteko lankidetzak-moduak, bientzako interes komuneko jarduerak garatzeko, onura orokorra sortzea dakartenak.

2.- Zerbitzu publikoak emateaz bestelako jarduerak sustatuko dira lankidetzak publiko-sozialaren bitartez.

3.- Lankidetzak publiko-sozialaren esparruan garatzen diren jardueren printzipio hauek izango dituzte buru: gardentasuna eta publikotasuna, lehia eta objektibotasuna, erantzunkidetasuna, elkarrekikotasuna eta osagarritasuna, ingurumen, ekonomia eta gizarte-iraunkortasuna, autonomia, lankidetzak, konfiantza, irisgarritasun unibertsala eta arrazoizko doikuntzak, ekitatea eta berdintasuna eta koherentzia.

90. artikulua. Sustapena

1.- Honako subjektu hauek parte hartu ahal izango dute lankidetzak publiko-sozialeko jardueretan:

- a) Tolosako Udalaren aldetik, sustatu nahi den gai bakoitzean eskumena duen edozein organo.
- b) Herritarrak, erakundeak eta irabazi-asmorik gabeko herritarren kolektiboak.

2. Lankidetzak publiko-sozialeko jardueren garapenean parte hartu ahal izango dute, osagarri gisa:

- a) Beste administrazio publiko batzuk edo zuzenbide publikoko erakundeak.
- b) Pertsona fisiko edo juridikoak, zuzenbide pribatuko subjektuak, artikulua honetako 1.b paragrafoan aipatutakoez bestelakoak, gizarte-ekonomiako erakundeak barne.



91. artikulua. Esku-hartze eremuak

1.- Udalak lankidetzatza publiko-soziala sustatuko du interes orokorreko jarduerak garatzeko, baldin eta, bere eskumenen barruan, onura orokorra edo komuna ekarriko badute. Jarduera horiek, besteak beste, 2030 Agenda eta Garapen Jasangarriko Helburuekin lerrotatuko dira eta zeharkakoak izan daitezkeen eremu hauetan egin ahal izango dira, beti ere eremuok zabalak izan daitezkeela ulertuz eta hauen arteko elkarrekin eman daitezkeela ahalbidetuz:

a) Parte-hartzea sustatzea: elkartegintza, boluntarioria, parte-hartze komunitarioa eta belaunaldiartekotasuna sustatzea eta alor hauetan egindako lana gizartean ikustaraztea eta gizartean zabaltzea.

b) Hirigintza: espazio publikoak edo ondasun komunak kontserbatu, birgaitu edota berronertzeari buruzkoak (orube hutsak, lokalak, ekipamenduak, berde komuna).

c) Hiri-ingurumena: ingurumenaren babesa, ingurumen-hezkuntza, baliabide naturalen kudeaketa jasangarria eta erabilera eraginkorra, hondakinen gutxiagotzea, birziklapena, berrerabilpena edota klima larrialdiaren eta haren ondorioen aurka egiteari buruzkoa.

d) Mugikortasuna: mugikortasun eredu iraunkorrako eta sozialagoetarako trantsizioa ahalbidetuko duten estrategiak garatzea.

e) Elikadura, ekonomia eta kontsumo alternatibak sustatzea.

f) Herritarren elkartasunerako jardunbideak sustatzea: zaintza sareak edota denbora-bankuei buruzkoak.

g) Osasun publikoa babestea: bizi-ohitura osasungarrien hobekuntza eta osasunerako hezkuntza sustatzeari buruzkoak, bai lurraldean eta komunitateekin jardunez, bai ingurune eta politika osasungarriak sustatuz.

h) Kirola sustatzea: balio pertsonalen eta sozialen garapenari eta aisialdiaren okupazioari lotutakoak, gizarte-kohesiorako, komunitate-garapenerako eta balio zibiko-sozialen sustapenerako tresna gisa.

i) Kultura sustatzea: kultura-sorkuntza bultzatzeari eta hiriko kultura-proiektuak eta esperimenduzko eta sormen artistikoko proiektuak garatzeari buruzkoak, kultura-jaialdiak, jaiak eta kultura-ekimenak garatzeari buruzkoak, hurbileko kultura-eredu bat garatzeari buruzkoak eta herritarrek kulturarako sarbidea izateari buruzkoak.

j) Balio demokratikoak, giza eskubideak, kulturartekotasuna, justizia soziala eta berdintasuna sustatzea eta genero-indarkeriaren eta LGBTIQ+ fobiaren aurkako borroka egitea.

k) Euskararen biziberritzearen aldeko lana egitea.

l) Tokiko garapen ekonomikoa sustatzea, enplegarritasuna, gizarteratzea eta laneratzea bultzatuz.

m) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea.



n) Herritarrei edo beren ezaugarri bereziengatik gizarte-bazterkeriako ingurune aurreikusgarrietan dauden taldeei eragiten dieten gizarte-arriskuko egoeren prebentzioa eta gizarte- eta laguntza-ongizatearen sustapena.

o) Politika publikoak hobetzea eta herritarren eskaeretara egokitzea.

p) Alfabetizazio digitala edo arrakala digitala murriztea helburu duten jarduerak.

q) Udal eskumenekoa den eta zerrenda honetan aipatu ez den beste arloren bateko jarduerak.

92. artikulua. Elkarlan publiko-soziala bideratzeko tresnak

1.- Indarrean dagoen araudian aurreikusitako tresnetatik edozeinen bidez eta horren arabera artikulatu ahal izango da lankidetzak publiko-soziala, ordenantza honetan xedatutakoaren aurka ez doan bitartean; baina, bereziki, ondorengo tresnak zehaztu dira lankidetzak hau gauzatzeko:

1.1.- Esparru juridikoa ezartzeko tresna konbentzionalak:

a) Tolosako Udalak irabazi asmorik gabeko herritar-erakunde eta -kolektiboekin hitzarmenak sinatu ahal izango ditu, lankidetzak publiko-sozialaren esparruan interes komuneko helburu eta jarduerak bateratuak garatzeko, *Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean eta aplikatu beharreko udal-xedapenetan ezarritakoaren arabera.*

b) Lankidetzak publiko-sozialaren esparruan sinatzen diren hitzarmenek *Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49. artikuluan adierazitako alderdiak jaso beharko dituzte.*

1.2.- Sustapen-tresnak:

a) Tolosako Udalak dirulaguntzak eman ahal izango ditu dirulaguntzei buruzko *Legean xedatutakoaren arabera, betiere Kontratuen Legearen xede ez badira eta onura publikoko edo gizarte-intereseko helburuak lortzen laguntzen badute.*

b) Era berean, udalak zerga-onurak ezarri ahal izango ditu, edo kasu bakoitzean aplikatu beharreko araudiak baimentzen dituen salbuespenak, murrizketak, hobariak edo kenkariak erabaki.

c) Tolosako Udalak elkarlan publiko-sozialeko jarduerak izango duen parte-hartze ekonomikoa artikulatu ahal izango du, udal-aurrekontuetan behar bezala kontsignatzea eskatuko duten hornidurak eta/edo zerbitzuak emanez edo obrak eginez.

1.3.- Ondarea kudeatzeko tresnak:

a) Tolosako Udalak bere ondasun higigarri edo higiezinen erabilera baimendu edo laga ahal izango die irabazi-asmorik gabeko herritarrei elkarlan publiko-sozialeko jarduerak garatzeko, *Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legean, ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamenduan eta ondarearen arloan indarrean dagoen gainerako legerian aurreikusitakoaren arabera.*

BIGARRENA.- Ordenantza hau eta dagokion espedientea jendaurrean jartzea hogeita



hamar laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita, herritarrek aztertu eta erreklamazio edo iradokizunak aurkez ditzaten.

HIRUGARRENA.- Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta Tolosako Udalaren webgunean argitaratzea.

LAUGARRENA.-Xedatzea, epe horretan ez badago alegaziorik, behin betiko onartutzat hartuko dela.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **hasierako onarpena eman dio** Gobernantza, Partaidetza eta Gardentasun Ordenantzari.

8. TOLOSAKO HIRI-EKONOMIA INDARBERRITZEKO DIRULAGUNTZA-PROGRAMA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA: ERREKLAMAZIOAK ERANTZUTEA, ZUZENKETAK OFIZIOZ EGITEA ETA ORDENANTZA BEHIN BETIKO ONARTZEA.

Herritar batzorde informatiboaren 2021eko urriaren 20ko irizpena

AURREKARIAK

Udalbatzak 2021eko uztailaren 29an egindako Osoko Bilkurak, **Tolosako hiri-ekonomia indarberritzeko dirulaguntza programaren Ordenantzari** hasierako onespena eman zion.

Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen 49.b artikulua xedatzen duena betez, jendaurrean ikusgai jarri da hogoita hamar egunez, iragarpen hau Gipuzkoako **ALDIZKARI OFIZIALEAN** argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, zehazki, 2021eko irailaren 17ra arte, erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.



Denbora tarte horretan, zehazki, 2021eko irailaren 15ean, 8273 sarrera erregistro zenbakiarekin, erreklamazio bat aurkeztu du Edit Etxezarreta Urrate andreak, Tolosa&Co merkataritza elkartearen izenean. Hitzez hitz, honela dio:

“Queremos realizar las siguientes reclamaciones. En el programa EKIN a la hora de las valoraciones no se han tenido en cuenta los siguientes puntos que creemos que son importante:

- 1. Cambio Generacional. La realidad de Tolosa es que muchos negocios ya están mayores y necesitan de personas nuevas para seguir adelante; creemos que el emprendimiento respecto este tipo de negocios tendría que ser valorable, mas incluso de la localización del negocio en Tolosa (parte vieja o ensanche).*
- 2. Relacionado con el punto anterior, también debería ser valorado la edad de la persona que vaya a emprender o renovar su negocio/local.*
- 3. Seguimos sin estar de acuerdo con realizar diferente valoración a la localización de un local, sea parte vieja o no. Ya que, están en desigualdad de oportunidades los que están fuera del casco antiguo.*
- 4. A personas que hayan solicitado esta ayuda anteriormente y están a la espera porque justo toco la disolución de erretengibel, hay que aplicar estas condiciones? Y si no cumplen, se quedan sin la ayuda cuando llevan esperando en algunos casos casi año y medio? Cuando ellos solicitaron los requisitos eran muy diferentes a las actuales...”*

Era berean, Garapen ekonomikoa, Turismoa, Merkataritza, Azokak eta Enpleguaren Sustapeneko Sailak, legeak emandako ahalmenak hala baliatuaz, ofizioz hainbat zuzenketa eta zehaztapen egin nahi ditu.

KONTUAN HARTURIK

- Ezarritako erreklamazioaren inguruan:

Toki-ordenantzak onartzeko prozedura betetzeko, Toki-araubidearen oinarriak arautzeko Legeak 49.c. artikuluan xedatzen du beharrezkoa dela: *“epe barruan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizun guztiak erabakitzea eta osoko bilkurak behin betiko onarpena ematea”.*

Bestalde, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen ingurukoak, 4.2. artikuluan, interesdunaren kontzeptuaren inguruan, honakoa jasotzen du: *“Ekonomia- eta gizarte-interesen ordezkari diren elkarte eta antolakundeak interes legitimo kolektiboen titular izango dira Legeak aitortutako moduan”.*



Hortaz, aurreko bi puntuak kontuan hartuz, zilegi da Tolosa&Co merkatari elkarteak ezarritako erreklamazioa, epe barruan jarri baitu, eta herriko merkatari elkartearen denaldetik, interesduntzat onartzen da.

- Ezarritako erreklamazioaren edukiaren inguruan:

Puntuaz puntu aztertuko da:

1. *Cambio Generacional. La realidad de Tolosa es que muchos negocios ya están mayores y necesitan de personas nuevas para seguir adelante; creemos que el emprendimiento respecto este tipo de negocios tendría que ser valorable, mas incluso de la localización del negocio en Tolosa (parte vieja o ensanche).*

“Tolosako hiri-ekonomia indarberritzeko dirulaguntza programaren ordenantza”ren baitan, hiru programa arautu nahi dira: 1) Berriz Tolosa 2) Ekin 3) Gune Biziak.

Proiektuak baloratzerako unean, Ekin programan ez da belaunaldien arteko aldaketa irizpide gisa aintzat hartu, horretarako Udalak herritarren eskura eskusiboki programa oso bat jarri baitu: Berriz Tolosa. Horren helburua da Tolosako negozio baten arduraria hartu nahi duten pertsonen dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea.

Gainera, onuradunek Udalaren programan parte hartu ahal izateko baldintzetako bat da aurretik Merkataritza Ganberaren *Berriz Enpresa* programan parte hartu izana; horrela onuradunak dirulaguntza jasotzen du eta prozesu integral baten partaide bihurtzen da, eskualdaketa egiteko beharrezko aholkularitza eta akonpainamendu profesionala jasoz.

Hala eta guztiz ere, onartu beharra dago Berriz Enpresa programan soilik eta, ondorioz, Berriz Tolosa programan, honako arloetako jarduerari dagoela zuzenduta: merkataritza, ostalaritza eta ostalua. Hortaz, hortik kanpo geratzen diren jarduerak Ekin programan izango lukete sarbidea. Eta negozioen biziraupenerako belaunaldi ezberdinen eskualdaketa garrantzia azpimarratzea ezinbestekoa da.

Beraz, elkartearen erreklamazioa aintzat hartuta, Ekin programaren barnean, proiektuak baloratzerako orduan irizpide berri bat txertatzea proposatzen da: ***Belaunaldi-segida: 5 puntu.***

2. *Relacionado con el punto anterior, también debería ser valorado la edad de la persona que vaya a emprender o renovar su negocio/local.*

Ekin programan proiektuak baloratzerako orduan finkatu diren irizpideak proiektuari edo ekintzailearen ibilbide profesionalari lotutakoak izan dira. Hau da, balorazioa egiteko orduan, ahalik eta neurri neutroenak bilatu nahi izan dira, ekintzailearen baldintza fisikoetatik harago.



Gainera, proposamena egiteko unean, ez da daturik edo oinarririk adierazten. Hots, ez da zehazten gaur egungo egoera zein den eta zein adin talderi eman beharko litzaiokeen lehentasuna, adibidez: 25 edo 30 urtetik beherakoei, edo 45 edo 50 urtetik gorakoei. Bestalde, adinari erreparatzen zaion bezala, beste ezaugarri fisikoei ere erreparatzeko aukera ere bazegoen, sexuari adibidez.

Hala eta guztiz ere, bestelako informazio, azterketa edo oinarri sendorik ez izatean, interesdunen ezaugarri fisikoak alde batera uztea eta soilik irizpide profesionalak definitzea erabaki da, berdintasun printzipioa ahalik eta gehien errespetatu nahian.

Beraz, puntu honi dagokionez, ez da elkartearen erreklamazioa onartzen.

3. *Seguimos sin estar de acuerdo con realizar diferente valoración a la localización de un local, sea parte vieja o no. Ya que, están en desigualdad de oportunidades los que están fuera del casco antiguo.*

Tolosako Alde Zaharra herriaren erdigunea da, herritarron bihotza, saltoki kontzentrazio interesgarria dago merkataritza ikuspuntutik, eta bertan uztartzen eta nahasten dira hiri-ekonomiako sektoreak euren artean sinergiak sortuz; historikoki kutsu berezia izan du, eta hori mantentzea beharrezkoa da herri dinamiko eta bizia nahi badugu. Horregatik guztiagatik, Alde Zaharrari aparteko begirunea zor zaio.

Beraz, puntu honi dagokionez, ez da elkartearen erreklamazioa onartzen.

4. *A personas que hayan solicitado esta ayuda anteriormente y están a la espera porque justo toco la disolución de erretengibel, hay que aplicar estas condiciones? Y si no cumplen, se quedan sin la ayuda cuando llevan esperando en algunos casos casi año y medio? Cuando ellos solicitaron los requisitos eran muy diferentes a las actuales...*

Aurretik Erretengibeleko dirulaguntza eskatu duten eta oraindik ebazteko dauden eskaera horiei aurretik ezarrita zeuden baldintza berberak ezarri zaizkie. Hala eta guztiz ere, puntu honi dagokionez, elkartearen erreklamazioa aintzat hartuta, xedapen iragankorrear honakoa zehaztea proposatzen da: ***Hala eta guztiz ere, gehienezko prezioaren kalkulua egiteko orduan, eskaera horiei ez zaie 12 €/ m²-aren muga aplikatuko***.

- Zuzenketak ofizioz egitearen inguruan:

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, 190.2. artikuluan honako hau xedatzen du: ***“Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak”***.



Tolosako Udaleko Herritarrak Batzordeak, 2021eko urriaren 20an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

- **Aldeko botoak:** Nerea Letamendia, Izarne Iglesias, Joseba Ormazabal, Jose Mari Villanueva, Aitzol Gartzia, Kristina Pelaez eta Xabier Martinez.

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

LEHENIK.- Tolosa&Co merkatari elkarteak ezarritako erreklamazioa erantzutea eta partzialki onartzea, honako bi zuzenketak txertatuz:

Xedapen iragankorren:

1) Hau jartzen duen tokian: *“Erretengibel, S.A. sozietateari 2020ko abenduaren 31 baino lehen aurkeztutako eta hark ebatzi gabeko laguntzen kasuan, Tolosako Udalak bere gain hartuko du horiek izapidetzeko eta ebazteko betebeharra, eta kasu bakoitzean dagokion erabakia hartuko du. Eskabide horiek izapidetzeko eta ebazteko prozedura Ordenantza honetan jasotzen den 2. eranskineko berariazko oinarrien baitan egingo da”.*

Honako hau adieraztea eta eranstea: *“Erretengibel, SA sozietateari 2020ko abenduaren 31 baino lehen aurkeztutako eta hark ebatzi gabeko laguntzen kasuan, Tolosako Udalak bere gain hartuko du horiek izapidetzeko eta ebazteko betebeharra, eta kasu bakoitzean dagokion erabakia hartuko du. Eskabide horiek izapidetzeko eta ebazteko prozedura Ordenantza honetan jasotzen den 2. eranskineko berariazko oinarrien baitan egingo da. Hala eta guztiz ere, gehienezko prezioaren kalkulua egiteko orduan, eskaera horiei ez zaie 12 €/ m²-aren muga aplikatuko”.*

II. eranskinean, EKIN programari dagokiona:

2) 8. artikuluan, dirulaguntza emateko prozedura eta hautaketa-irizpidearen inguruan, irizpide berri bat txertatzea, honakoa hain zuzen ere: ***Belaunaldi-segida: 5 puntu.***

BIGARRENIK.- Tolosako hiri-ekonomia indarberritzeko dirulaguntza programaren ordenantza proposamena, eta Udalbatzak 2021eko uztailearen 29an hasieraz onartu zuena, ofizioz modu honetan aldatzea:



Oinarri orokorretan:

1) 5. artikuluan, hau jartzen duen tokian: *“Ildo horretan, prozedura ebazteko beharrezkoak diren dokumentu hauek kontsultatuko dira datu-bitartekaritzarako plataformen edo horretarako prestatutako beste sistema elektronikoen bidez”*

Honakoa adieraztea eta eranstea: *“Ildo horretan, **eta hala badagokio**, prozedura ebazteko beharrezkoak diren dokumentu hauek kontsultatuko dira datu-bitartekaritzarako plataformen edo horretarako prestatutako beste sistema elektronikoen bidez”*

2) 8. artikulua, dirulaguntza emateko prozedura bideratu, baloratu eta ebazteko eskumena duten organoei buruzkoa, ezabatzea.

Xedapen iragankorraren ostean:

Azken xedapen bat txertatzea, honako hau hain zuzen ere:

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren (JEZ) inguruan

Ekintzaile batek EKIN programarako dirulaguntza jasotzeko eskaera egiten badu, eta IV. eranskinean zehazten diren Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren (JEZ) talde edo epigraferen batean altan emanda ez badago, Batzorde Teknikoak ahalmena izango du erabakitzeko proiektua onartu edo ez, ekintzaileak aurretik justifikatu ostean; betiere, jarduera Ordenantza honetan jasotzen den hiri-ekonomiako sektoreren batekoa bada, eta ekintzailea, dirulaguntza eskaera egiteko unean, JEZen alta emanda badago.

I. eranskinean, BERRIZ TOLOSA programari dagokiona:

1) Artikuluaren ordena aldatzea, 10. artikulua 7. artikulua gisa jarritz.

2) 8. artikulua eranstea, modu honetara:

8. artikulua. Dirulaguntza emateko prozedura bideratu, baloratu eta ebazteko eskumena duten organoak

- Instrukzioa:

Dirulaguntza horiek emateko prozeduraren instrukzioa Tolosako Udaleko Garapen Ekonomikoa, Turismoa, Merkataritza, Azokak eta Enpleguaren Sustapeneko Sailari dagokio.



- Balorazioa:

Ardura duen Sailak baloratu beharko ditu eskabideak, dagokion txosten teknikoaren bitartez. Txostenean jasotako balorazioa eta emakida-proposamena dagokion Batzorde Informatiboari aurkeztuko zaio, bere oniritzia emateko. Ondoren oniritzi hori organo eskudunari helaraziko zaio, hark ebatz dezan.

Eskaera egiten den ekitaldirako udal aurrekontuan kreditu erabilgarririk ez badago, eskatzaileak onuradun izan ahalko dira hurrengo deialdian. Hori udal aurrekontuan erabilgarri dagoen kredituaren eta momentuan dagoen eskari kopuruaren arabera izango da.

Edozein kasutan, Garapen Ekonomikoa, Turismoa, Merkataritza, Azokak eta Enpleguaren Sustapeneko Sailari dagokio horren balorazioa egitea, eta dirulaguntzak atzera-eraginkortasunarekin onartzeko proposamena egitea.

- Ebazpena:

Dirulaguntza emateko prozedura zinegotzi delegatuak ebatziko du, Udalaren administrazio-antolaketan unean-unean indarrean dauden eskumenen eta balizko eskuordetzen arabera.

II. eranskinean, EKIN programari dagokiona:

1) Artikuluen ordena aldatzea, modu honetara: 8. artikulua 10. artikulua gisa jarritz; 9. artikulua 12. artikulua gisa jarritz; 10. artikulua 11. artikulua gisa jarritz; eta 11. artikulua 8. artikulua gisa jarritz.

2) 7. artikuluan, hau txertatzea eskabidea egiteko aurkeztu beharreko dokumentazioari dagokion atalean:

Eskaera egiteko, interesdunak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

1. ...
2. ...
3. ...
4. ...
5. ...

Interesdunak ez du zertan bideragarritasun azterketa Tolosaldea Garatzen garapen agentziarekin egin, baina azken horrek dokumentua ontzat eman beharko du 8. artikuluan jasotzen den batzorde teknikora eraman aurretik.

2) 11. artikuluan, dirulaguntza emateko prozedura eta hautaketa-irizpideei buruzkoan (orain 8. artikulua gisa doana), hau jartzen duen tokian:



Eskaeren baloraziorako, Kudeaketa Batzorde bat sortuko da: batzorde hori osatuko dute Tolosako Udaleko teknikari batek, Garapen Ekonomiko, Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Azokak departamentukoa bera, eta Tolosaldea Garatzen Eskualdeko Garapen Agentziako Ekintzailetasun arloko teknikariak. Aldi berean, batzordeak berak erabakitzen duen kasuetan, adituek parte hartu ahal izango dute batzorde honetan.

Honako hau aldatzea eta eranstea:

Eskaeren baloraziorako, Batzorde Tekniko bat sortuko da: batzorde hori osatuko dute Tolosako Udaleko teknikari batek (Garapen Ekonomikoa, Turismoa, Merkataritza, Azokak eta Enpleguaren Sustapeneko Sailekoa) eta Tolosaldea Garatzen Eskualdeko Garapen Agentziako Ekintzailetasun arloko teknikari batek. Aldi berean, batzordeak berak hala erabakitzen duen kasuetan, adituek batzordean parte hartu ahal izango dute. Adituek aholkulari gisa hartuko dute parte, eta ez dute boto eskubiderik izango.

3) Artikulu berean, hau jartzen duen tokian:

- *Ekintzailearen lan esperientzia: 10 puntu.*
 - *Ekintzaileak sektorean lanean daraman urte bakoitzagatik puntu bat.*

Honela aldatzea:

- *Ekintzailearen lan-esperientzia: 5 puntu.*
 - *Ekintzaileak sektorean lanean daraman urte bakoitzagatik puntu bat.*

4) 9. artikulua eranstea, modu honetara:

9. artikulua. Dirulaguntza emateko prozedura bideratu, baloratu eta ebazteko eskumena duten organoak

- Instrukzioa:

Dirulaguntza horiek emateko prozeduraren instrukzioa Tolosako Udaleko Garapen Ekonomiko, Turismo, Merkataritza, Azokak eta Enpleguaren Sustapeneko Sailari dagokio.

- Balorazioa:

Aipatutako Batzorde Teknikoari dagokio eskabideak baloratzea, dagokion txosten teknikoaren bitartez. Txostenean jasotako balorazioa eta emakida-proposamena dagokion Batzorde Informatiboari aurkeztuko zaio, bere oniritzia emateko. Ondoren oniritzi hori organo eskudunari helaraziko zaio, hark ebatz dezan.

Eskaera egiten den ekitaldirako udal aurrekontuan kreditu erabilgarririk ez badago, eskatzaileak onuradun izan ahalko dira hurrengo deialdian. Hori udal aurrekontuan



erabilgarri dagoen kredituaren eta momentuan dagoen eskari kopuruaren arabera izango da.

Edozein kasutan, Garapen Ekonomiko, Turismo, Merkataritza, Azokak eta Enpleguaren Sustapeneko Sailari dagokio horren balorazioa egitea, eta dirulaguntzak atzera-eraginkortasunarekin onartzeko proposamena egitea.

- Ebazpena:

Dirulaguntza emateko prozedura zinegotzi delegatuak ebatziko du, Udalaren administrazio-antolaketan unean-unean indarrean dauden eskumenen eta balizko eskuordetzen arabera.

III. eranskinean, GUNE BIZIAK programari dagokiona:

1) 2. artikuluan, *Diruz lagunduko diren jardueri buruzkoan, honakoa eranstea:*

Lerro honen baitan jarduera hauek izango dira diruz lagungarriak:

- a) ...
- b) ...

Nolanahi ere, GUNE BIZIAK programa bultzatzeko ahalmena Tolosako Udalak izango du une oro, eta une bakoitzean dauden beharren arabera garatuko du ahalmen hori.

HIRUGARRENIK.- Aurreko bi puntuetan aipatutako aldaketak txertatu ondoren, **Tolosako hiri-ekonomia indarberritzeko dirulaguntza programaren ordenantza** behin betikoz onartzea, ondorengo testuaren arabera:

**TOLOSAKO HIRI-EKONOMIA INDARBERRITZEKO
DIRULAGUNTZA PROGRAMA**

AURKIBIDEA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Dirulaguntza hauen oinarri arautzaileen xedea
2. artikulua. Onuradunak
3. artikulua. Onuradunak bete beharreko baldintzak
4. artikulua. Eskaerak aurkezteko modua, tokia eta epea



5. artikulua. Eskabidea egiteko aurkeztu beharreko dokumentazioa
6. artikulua. Akatsak zuzentzea
7. artikulua. Balorazio irizpideak
8. artikulua. Ebazpenaren edukia eta jakinarazteko epea
9. artikulua. Onuradunen betebeharrak eta eskubideak
10. artikulua. Emandako dirulaguntzen publizitatea
11. artikulua. Laguntzak elkartzea eta bateragarritasuna
12. artikulua. Aplikatu beharreko araudia
13. artikulua. Ez-betetzeak eta administrazio-zigorak dirulaguntzen esparruan. Zigortzeko prozedura
14. artikulua. Datu pertsonalen babesa
15. artikulua. Ahalmena

XEDAPEN IRAGANKORRA

Erretengibel, SA sozietatetik eratorritako eskaeren ebazpena

AZKEN XEDAPENA

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren (EJZ) inguruan

ERANSKINAK

- I. eranskina: Negozioen arteko eskualdaketa sustatzeko ematen diren dirulaguntzen oinarri arautzaileak – BERRIZ TOLOSA
- II. eranskina: Tolosan enpresaritza ekimen bat abiarazteko ematen diren dirulaguntzen oinarri arautzaileak – EKIN
- III. eranskina: Kale espazioak eta lokal hutsak dinamizatzeko ekintzak sustatzeko programa - GUNE BIZIAK
- IV. eranskina: Tolosan enpresaritza ekimen bat abiaraztea – EKIN programan onartzen diren Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren (JEZ) talde eta epigrafeak



Tolosako hiri-ekonomia indarberritzeko dirulaguntzak emateko ordenantza

ARRAZOIEN AZALPENA

Apirilaren 7ko Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak 17.1 artikuluan jasotzen du udalerriko eskumen propioen artean daudela, batetik, tokiko ekonomia- eta gizarte-garapena, eta, bestetik, barne-merkataritza antolatzea eta kudeatzea; zentzu horretan, baita txikizkako merkataritza planifikatzea eta antolatzea ere, hirigintza-antolamenduko irizpideei eta lurzoruaaren arazoizko erabilerari erantzunez.

Alor horretan, Tolosako Udalak legeak zehazten dituen eginkizunak gauzatu nahi ditu, are gehiago gaur egungo errealitatea kontuan izanda. Izan ere, hiri-ekonomia osatzen duten sektoreak eraldaketa prozesu sakon batean murgilduta daude, hainbat erronkari erantzun behar baitiote: kontsumo ohitura berrietara egokitzea; informazio eta komunikazio teknologia berriak txertatzea; omnikanalitatea garatzea; errelebo faltari eta ekintzailetasun tasa baxuari erantzutea; kale espazioak egokitzea; lokal hutsen kudeaketa eta abar.

Eraldaketa horiek guztiek hiri-ekonomiako sektoreen biziraupena baldintzatzen dute, eta faktore horietan eragitea ezinbestekotzat jotzen da horien eragin negatiboa gutxitzeko, eta guztiaren gainetik udalerriko bizi-kalitatea eta kohesio soziala bermatzen dituen merkataritza eredua (hiri-ekonomia) mantentzeko. Horregatik, Administrazioaren ardura da, besteak beste, ekintzaile eta negozio berriei babesa eskaintzea, bertako garapen ekonomikoa lehenetsiz.

Bestalde, hiri-ekonomian planifikazio falta da enpresen itxiera eragiten duen faktore nagusietako bat. Enpresen eskualdaketarako plan batek berekin eduki behar ditu enpresa aurrera segitzeko prozesuak eta, aldi berean, kudeatzaileen aldaketak eragindako nahasmendua zuzentzeko tresnak eta egutegia. Ildo horretan, Administrazioak erraztu eta gidatu behar ditu ibilbide horiek, sektorearen biziraupena berma dadin.

Itxiera horien ondorioz, gainera, geroz eta lokal huts gehiago daude herriko kaleetan, bai Zabalgunean (% 56,2), bai Alde Zaharrean (% 43,8) (Siadeco, 2019). Alde Zaharreko lokalen kasuan, gainera, zailtasun gehigarriak izaten dituzte bertan jarduera berri bat martxan jartzerako orduan, besteak beste, lokalen ezaugarriengatik eta Alde Zaharrak berezkoak dituen arauengatik.

Gainera, lokal hutsak segurtasun eta zikinkeria arazo ugari sortzen dituzte merkataritza guneetan. Horri dagokionez, kaleetan jarraikortasuna lortzeak, hau da, lokal hutsik gabeko eremua izateak eta merkataritza eremu erakargarri eta atsegina lortzeak sektorearentzako eta bizilagunen bizitzarako onurak dakartzate.



Hiri-ekonomia osatzen duten sektoreak indarberritzeko eta jasangarri egiteko, hortaz, ezinbestekotzat jotzen da Ordenantza honetan araututako dirulaguntza lerroak xedatzea, zeinen bitartez bultzatzen diren ekintzaile eta negozio berrien abiaraztea, negozioen arteko eskualdaketa eta merkataritza-establezimenduen erakargarritasuna.

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Dirulaguntza hauen oinarri arautzaileen xedea

Oinarri hauen xedea da dirulaguntzak emateko arauak ezartzea hiri-ekonomiaren esparruko jarduera ekonomikoa, enplegua eta lehiakortasuna mantentzeko, tokiko jarduera sustatuz eta indarberrituz, enpresa-ekimen berriak abiarazteko eta kale espazio hutsak dinamizatzeko.

Oinarri hauetarako hiri-ekonomiaren esparruan sartuko dira merkataritza, hiriko merkataritza jarduerari lotutako zerbitzuak, ostalaritza edo turismo sektoreko jarduerak.

Dirulaguntzak jarraian jaso eta eranskin gisa identifikatzen diren berariazko oinarrietan zehaztutakoaren arabera banatuko dira:

- I. eranskina: Negozioen arteko eskualdaketa - BERRIZ TOLOSA programa.
- II. eranskina: Tolosan enpresaritza ekimen bat abiaraztea – EKIN programa.
- III. eranskina: Kale espazio eta lokal hutsak dinamizatzeko ekintzak sustatzea – GUNE BIZIAK programa.

2. artikulua. Onuradunak

Laguntza hauen onuradun izan ahalko dira pertsona fisikoak, norberaren konturako langileak edo autonomoak, eta pertsona juridikoak, euren izaera juridikoa edozein dela ere, betiere oinarrietan zehaztutako baldintzak betetzen badituzte.

Kasuan kasu, hiru onuradun profil daude:

1. Ekintzaileak.
2. Merkataritza lokal hutsen jabeak.
3. Tolosan beste merkataritza saltoki baten jabeak.

3. artikulua. Onuradunek bete beharreko baldintzak

Onuradunek bete beharreko baldintza orokorrak honako hauek dira:

1. Egunean izatea Gizarte Segurantzarekiko, Ogasunarekiko eta Tolosako Udalarekiko zerga-betebeharrak.



2. Dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen penal edo administratiborik ez izatea, edo horretarako ezgaitzen duen legezko debekuren baten eraginpean ez egotea, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen edo Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoaren arabera sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik gertatutakoak barne.
3. Ez egotea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua 2. eta 3. paragrafoetan aurreikusitako gainerako egoeretan, dirulaguntzen onuradun izateko baldintzei dagokienez.

Dirulaguntza lerro bakoitza eskatzeko baldintza zehatzak oinarri orokor hauekin batera doazen eranskinetako berariazko oinarriek ezarritakoak izango dira.

4. artikulua. Eskaerak aurkezteko modua, tokia eta epea

Eskaerak aurkezteko modua, tokia eta epea honako hauek dira:

- Aurkezteko modua:

Interesdunak eskabide bakarra egin beharko du, dirulaguntza lerro ezberdinetarako eskaera egin arren.

- Aurkezteko lekua:

Pertsona fisikoek honela aurkeztu ahal izango dituzte eskabideak:

- a) Aurrez aurre, UDATEn.
- b) Erregistro elektronikoaren bidez.
- c) Posta-bulegoetan, erregelamenduz ezarritako moduan.
- d) Indarrean dauden xedapenek ezartzen duten beste edozein lekutan.

Erakunde edo pertsona juridikoen kasuan, Tolosako Udalaren erregistro elektronikoan aurkeztu beharko dira nahitaez, bai eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 2.1 artikuluan adierazitako gainerako erregistro elektronikoetan ere.

- Aurkezteko epea:

Eskabideak aurkezteko epea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako urteko deialdian finkatuko da.



5. artikulua. Eskabidea egiteko aurkeztu beharreko dokumentazioa

Interesdunak jarduera bakoitzerako aurkeztu beharreko dokumentazioa eranskin bakoitzean zehaztuko da.

39/2015 Legearen 28.2 artikulua araberan, administrazio jarduleak dagoeneko bere esku dauden edo edozein administrazio egin dituen dokumentuak kontsultatu edo eskuratu ahal izango ditu, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu. Kasu horretan, arrazoia justifikatu beharko du, eta dagozkion dokumentuak aurkeztu, izapidetzeko.

Ildo horretan, eta hala badagokio, prozedura ebazteko beharrezkoak diren dokumentu hauek kontsultatuko dira datu-bitartekaritzarako plataformen edo horretarako prestatutako beste sistema elektronikoen bidez:

- JEZren epigrafean alta emanda egotea.
- Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- Tolosako Udalarekiko zorrak egunean izatea.
- Lizentzia indarrean izatea edo legeztatzeko izapidean dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria, Udalak horretarako egindako errekerimenduei garaiz eta behar bezala erantzun ondoren.

Arazo teknikoak medio, kontsulta ezin bada egin datu-bitartekaritzarako plataformen edo horretarako prestatutako beste sistema elektronikoen bidez, salbuespen gisa, eskatzaileari eskatu ahal izango zaio dokumentazioa aurkezteko.

6. artikulua. Akatsak zuzentzea

Eskaera-orrian edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioan akatsen bat badago edo osatu gabe badago, hamar eguneko epea emango zaie interesdunei, errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, antzemandako akatsak zuzentzeko.

Emandako epea igaro eta akatsak zuzendu ez badira, eskaeran atzera egin duela ulertuko da, eta prozedura artxibatu egingo da, ebazpena eman ondoren, 39/2015 Legearen 68. artikuluan ezarritakoaren arabera.

7. artikulua. Balorazio irizpideak

Dirulaguntzen eskaerak baloratzeko irizpideak oinarri orokor hauekin batera doazen eranskinetako berariazko oinarriek dirulaguntza lerro bakoitzean ezarritakoak izango dira.



8. artikulua. Ebazpenaren edukia eta jakinarazteko epea

Dirulaguntza emateko ebazpenak adierazi beharko du zer pertsonari ematen zaion eta zer zenbateko duen.

Ebazpenak emateko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 25.5 artikulua xedatzen duen moduan.

Emakidari buruzko behin betiko ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie.

9. artikulua. Onuradunaren betebeharrak eta eskubideak

Honako hauek dira onuradunaren betebeharrak:

- Jarduera garatzeko diruz lagundua izan den lokala hasiera batean jakinarazitako jarduerarako soilik erabili behar da.
- Onuradunak jarduera etetea erabakitzen badu, horren berri eman beharko dio Udalari.
- Gastu bererako beste laguntzarik edo dirulaguntzarik jasoz gero, Udalari jakinarazi beharko dio.
- Diruz lagundutako jardueraren baitan sortutako dokumentazioan, publizitatean, irudian edo materialetan hizkera ez-sexista erabili beharko da, emakumeen irudi diskriminatzaile edo estereotipo sexistak ez dira erabili behar, eta berdintasun-balioak dituen irudia sustatuko da.
- Oro har, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 14. artikuluan jasotako beste edozein.
- Horretaz gain, oinarri orokor hauekin batera doazen eranskinetako berariazko oinarriek ezarritakoak bete beharko dituzte.

Honako hauek dira onuradunaren eskubideak:

- Euskara Sailak sustatutako Merkataritza programan parte hartzeko lehentasuna.

10. artikulua. Emandako dirulaguntzen publizitatea

Udalak egingo du emandako dirulaguntza guztien publizitatea, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 18. artikuluan aurreikusten den moduan.



11. artikulua. Laguntzak elkartzea eta bateragarritasuna

Oinarri hauen xede diren dirulaguntzak beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin bateragarriak izango dira, betiere guztiak batuta, diruz laguntzen diren gastuen kostua gainditzen ez bada.

Hemen arautzen diren dirulaguntzen zenbatekoak ez du inola ere, isolatuta edo beste administrazio publiko edo erakunde publiko edo pribatuen dirulaguntza edo laguntza batzuekin batuta, diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu behar.

Onuradunak arau honetan erregulatutako xede bererako dirulaguntza lortu edota eskatzen badu, modu frogagarrian jakinarazi beharko dio Udalari.

Gainfinantzaketa gerora gertatzen bada, eta dirua itzultzeko obligazioen bat baino gehiago izanez gero, onuradunak dagokion parte proportzionala itzuli beharko du Tolosako Udalak egin dion ekarpena aintzat hartuta.

Laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatuz gero eta, nolana ere, beste administrazio edo erakunde publiko ala pribatu batzuek, naziokoek edo nazioartekoek, emandako laguntzak edo dirulaguntzak lortuz gero, emate-ebazpena alda daiteke.

12. artikulua. Aplikatu beharreko araudia

Testu honetan araututako dirulaguntzek arau xedapen hauetan ezarritakoa bete behar dute:

- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa.
- Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.
- 179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa.
- Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra, 2017ko uztailaren 7koa.
- 2020-2022 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa.

13. artikulua. Ez-betetzeak eta administrazio-zigorak dirulaguntzen esparruan. Zigortzeko prozedura

Oinarri hauetan edo dirulaguntza ematean ezarritako edozein betebeharrak ez betetzeak dirulaguntza berrikustea ekarriko du, eta, hala badagokio, emandako zenbatekoa baliogabetu edo itzuli beharko da.

Itzulketaren prozedura ofizioz hasiko da, laguntza edo dirulaguntza eman zuen organoak eskatuta, eta, hala badagokio, emandako dirulaguntza errebotatzea, murriztea edo



itzultzea erabaki daiteke, arrazoiak emanaz. Prozedura izapidetzean, interesdunak hura ezagutzeko duen eskubidea bermatu behar da beti.

Arau-hausteak arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke:

- Arau-hauste arinak azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 56. artikuluan daude jasota.
- Arau-hauste larriak azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 57. artikuluan daude jasota.
- Arau-hauste oso larriak azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 58. artikuluan daude jasota.

Arau-hauste horiei azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 59. eta hurrengo artikuluetan adierazten diren zigorrak dagozkie.

14. artikulua. Datu pertsonalen babes

Datu pertsonalen babesari buruz, xedapen hauek aplikatuko dira besteak beste:

- 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa.
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.

Udalak izango du datu pertsonalen tratamenduaren ardura. Tratamendu horren helburua dirulaguntzen ondoriozko informazio pertsonala kudeatzea izango da, horretarako zilegitasuna aipatutako legedian jasota dagoelarik.

Herritarrak eskubide hauek izango ditu: datuetara irispidea izateko, datuak zuzentzeko, ezabatzeko, tratamenduaren aurka egiteko eta hura mugatzeko eskubideak.

15. artikulua. Ahalmena

Ahalmena ematen zaio alkateari Ordenantza honetan edozein motatako aldaketak sartzeko, baldin-eta aldaketa horiek badira nahitaez aplikatu beharreko arau-aldaketak eta berekin dakartzatenak baldintzak aldatzea edo zenbatekoak edo portzentajeak automatikoki ordenatzea. Aldaketa horiek berehala jakinarazi behar dizkio osoko bilkurari, berretsi ditzan.

XEDAPEN IRAGANKORRA

1. artikulua. Erretengibel, SA sozietatetik eratorritako eskaeren ebazpena

Erretengibel, SA sozietateari 2020ko abenduaren 31 baino lehen aurkeztutako eta hark ebatzi gabeko laguntzen kasuan, Tolosako Udalak bere gain hartuko du horiek izapidetzeko eta ebazteko betebeharra, eta kasu bakoitzean dagokion erabakia hartuko



du. Eskabide horiek izapidetzeko eta ebazteko prozedura Ordenantza honetan jasotzen den 2. eranskineko berariazko oinarrien baitan egingo da. Hala eta guztiz ere, gehienezko prezioaren kalkulua egiteko orduan, eskaera horiei ez zaie 12 €/ m²-aren muga aplikatuko.

AZKEN XEDAPENA

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren (JEZ) inguruan

Ekintzaile batek EKIN programarako dirulaguntza jasotzeko eskaera egiten badu, eta IV. eranskinean zehazten diren Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren (JEZ) talde edo epigraferen batean altan emanda ez badago, Batzorde Teknikoak ahalmena izango du erabakitzeke proiektua onartu edo ez, ekintzaileak aurretik justifikatu ostean; betiere, jarduera Ordenantza honetan jasotzen den hiri-ekonomiako sektoreren batekoa bada, eta ekintzailea, dirulaguntza eskaera egiteko unean, JEZen alta emanda badago.

I. ERANSKINA: NEGOZIOEN ARTEKO ESKUALDAKETA SUSTATZEKO EMATEN DIREN DIRULAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK – BERRIZ TOLOSA

1. artikulua. Helburua

BERRIZ TOLOSA programaren helburua da enpresen eskualdaketa egin eta Tolosako negozio baten ardura hartu nahi duten pertsoneri dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea.

2. artikulua. Diruz lagunduko diren jarduerak

Honen bitartez, negozioaren ardura hartu duten pertsoneri diruz lagunduko zaizkie negozioa garatuko den lokalaren alokairu edo erosketa gastuak.

3. artikulua. Onuradunak

Laguntza hauen onuradun izan ahalko dira pertsona fisikoak, norberaren konturako langileak edo autonomoak, eta pertsona juridikoak, euren izaera juridikoa edozein dela ere, betiere oinarrietan zehaztutako baldintzak betetzen badituzte.

4. artikulua. Dirulaguntza jasotzeko bete behar dituzten baldintzak

Lokalaren alokairu edo erosketa gastuetarako dirulaguntza eskuratzeko bete beharreko baldintzak honako hauek dira:



1. Aldez aurretik, Eusko Jaurlaritzaren enpresa-jarraipeneko BERRIZ ENPRESA programan parte hartu izana, Gipuzkoako Ganberarekin lankidetzan, eta programan ezarritako baldintzak betetzea.
2. Jarduera Tolosan kokatutako establezimendu batean egotea.
3. Eskualdatutako negozioaren jarduera hiri-ekonomiako sektore hauetako batekoa izatea: merkataritza, ostalaritza edo ostatua.
4. Lizentzia indarrean izatea edo legeztatzeko izapidean dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria, Udalak horretarako egindako errekerimenduei garaiz eta behar bezala erantzun ondoren.
5. Dirulaguntza eskatzerako orduan, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan (JEZ) alta emanda egotea.
6. Lokala alokairuan hartu bada, kontratuak gutxienez 12 hilabeteko iraupena izatea.

Ez da laguntzarik emango, baldin eta pertsona eskatzaileak:

- Lokala saltzen edo alokatzen duen pertsonarekin ezkontza ahaidetasuneko edo odol ahaidetasuneko lehen edo bigarren mailako ahaidetasuna bada.
- Saltzaile edo errentatzaile gisa jarduten duen pertsona fisiko edo juridikoaren bazkide edo partaide bada.

5. artikulua. Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa

Eskatzaile bakoitzari eman dakioken dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa honako hau izango da, BEZa kontuan izan gabe:

- Lehen urtean, 450 €/hilean, gehienez ere hileko alokairu- edo mailegu- gastuaren % 75.
- Bigarren urtean, 300 €/hilean, gehienez ere hileko alokairu- edo mailegu- gastuaren % 50.
- Hirugarren urtean, 150 €/hilean, gehienez ere hileko alokairu- edo mailegu- gastuaren % 25.

Dirulaguntza ordainduko da alokairu-kontratuan edo erosketa-kontratuan agertzen den egunetik aurrera.

Edozein kasutan, onuradun bakoitzeko laguntzak guztira, gehienez ere, honako hauek izango dira: lehen urtean, 5.400,00 €, bigarren urtean, 3.600,00 € eta hirugarren urtean, 1.800,00 €, betiere hiru urte horietan jarduerari eusten bazaio. Hori guztia, betiere, lokalaren alokairu prezioa 12 €/m²-koa edo hortik beherakoa bada.



Laguntzaren eskatzaileak bi establezimendu dituen negozio bat beregain hartzen badu, laguntza proportzioan bikoiztuko da. Kasu horretan, establezimendu bakoitzeko laguntzaren gehieneko muga banaka kalkulatu da, aurretik ezarritako baldintzen arabera.

- Dirulaguntza alokairu gastuetarako bada:

- Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko oinarria, alokairu gastuei bakarrik dagokiona izatea (BEZa eta bestelako zerga eta tasen ordainketa eta atxikipenak kanpo utzita). Salbuespen modura, enpresak BEZa kentzen ez badu, dirulaguntzaren oinarria kalkulatzeko hura hartuko da kontuan.
- Nolanahi ere, kalkulatzeko gehieneko prezioa 12 €/ m² izango da. Horretarako, alokairu kontratuan zehaztutako metro kopurua hartuko da aintzakotzat.

- Dirulaguntza mailegu gastuetarako bada:

- Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko oinarria dela-eta, kontuan hartuko dira jarduerari lotutako ondasunen erosketa finantzatzen duten maileguen (hipoteka edo pertsonalak) amortizazio-gastuak eta interesak.
- Lokala erosi den kasuetan, erosketarako "mailegu zubi bat" kontratatu bada, edo maileguak bestelako gabezia edo karentziak baditu, lehen 3 urteetan erosketaren maileguari zuzenean egotzi ahal zaizkion interes gastuak hartuko dira kontuan.

Nolanahi ere, laguntzak aurrekontua erabilgarri dagoen heinean emango dira.

6. artikulua. Eskabidea egiteko aurkeztu beharreko dokumentazioa

Eskaera egiteko, interesdunak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

1. Eskabide-orri espezifiko (Udalaren webgunean eskura daiteke).
2. Zergei dagozkien betebeharretan (Ogasuna) eta Gizarte Segurantzarekin eguneratuta egotearen ziurtagiriak, agiri horiek Udalak ofizioz kontsultatzearen aurka agertu bada eskatzailea.
3. Ahaldunen kasuan, ordezkaritza agiria.
4. Ondasun erkidegoen, sozietate zibilen eta pertsona juridikoen kasuan, erakundearen eraketa eta hori arautzeko estatutuak jasotzen dituen eskrituraren edo agirien fotokopia, Udaletxean jasota ez badaude.
5. Ganberak bermatutako eskualdatze-ziurtagiria.
6. "Jardueraren titulartasun aldaketaren jakinarazpena" izeneko udal inprimakia (aurreko titularrak eta titular berriak sinatuta).



7. Osasun departamentuko Elikagaien Establezimenduen Erregistroan titularitate aldaketa egin izanaren egiaztagiria (hala badagokio).

- Dirulaguntza alokairu gastuetarako bada:

1. Bi aldeek sinatutako alokairu-kontratua.

- Dirulaguntza mailegu gastuetarako bada:

1. Bi aldeek sinatutako erosketa-kontratua.
2. Banku-transferentziaren egiaztagiria, eskuratze-prezioa osorik edo zati batean ordaindu dela egiaztatzen duena.
3. Maileguaren kasuan, hipoteka-maileguaren eskritura publikoa edo, hala badagokio, mailegua formalizatu izanaren egiaztagiria.

7. artikulua. Dirulaguntza emateko prozedura eta hautaketa-irizpideak

Dirulaguntza emateko prozedura lehiarik gabeko norgehiagoka izango da. Deialdia organo eskudunak onartuko du eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Hautaketa-irizpidea eskabideak aurkezteko hurrenkera kronologikoa izango da, betiere pertsona edo erakunde eskatzaileak ordenantza honetan ezarritako baldintzak betetzen baditu eta kreditu nahikoa badago.

8. artikulua. Dirulaguntza emateko prozedura bideratu, baloratu eta ebazteko eskumena duten organoak

- Instrukzioa:

Dirulaguntza horiek emateko prozeduraren instrukzioa Tolosako Udaleko Garapen Ekonomikoa, Turismoa, Merkataritza, Azokak eta Enpleguaren Sustapeneko Sailari dagokio.

- Balorazioa:

Ardura duen Sailak baloratu beharko ditu eskabideak, dagokion txosten teknikoaren bitartez. Txostenean jasotako balorazioa eta emakida-proposamena dagokion Batzorde Informatiboari aurkeztuko zaio, bere oniritzia emateko. Ondoren oniritzi hori organo eskudunari helaraziko zaio, hark ebatz dezan.

Eskaera egiten den ekitaldirako udal aurrekontuan kreditu erabilgarririk ez badago, eskatzaileak onuradun izan ahalko dira hurrengo deialdian. Hori udal aurrekontuan erabilgarri dagoen kredituaren eta momentuan dagoen eskari kopuruaren arabera izango da.



Edozein kasutan, Garapen Ekonomikoa, Turismoa, Merkataritza, Azokak eta Enpleguaren Sustapeneko Sailari dagokio horren balorazioa egitea, eta dirulaguntzak atzera-eraginkortasunarekin onartzeko proposamena egitea.

- Ebazpena:

Dirulaguntza emateko prozedura zinegotzi delegatuak ebatziko du, Udalaren administrazio-antolaketa unean-unean indarrean dauden eskumenen eta balizko eskuordetzen arabera.

9. artikulua. Jarduketak egikaritzeko epea

Dirulaguntzaren xede diren jarduketak urte naturalaren barruan hasi behar dira, eta ebazpena ematen denetik hurrengo 3 urteetan lagunduko dira diruz.

10. artikulua. Dirulaguntza zuritzeko prozedura eta epeak

Dirulaguntzaren zuriketa aurkezteko epea hiru hilean behin izango da, dirulaguntza ematen denetik 3 urteko epea bete arte. Hiru hilean behin (urtarrila, apirila, uztailea eta urria), honako hau aurkeztu beharko da:

- Dirulaguntza alokairu gastuetarako bada:

1. Alokairuen fakturak, dagokion banku-ordainagiriarekin batera.
2. Zergei dagozkien betebeharretan (Ogasuna) eta Gizarte Segurantzarekin eguneratuta egotearen ziurtagiriak, agiri horiek Udalak ofizioz kontsultatzearen aurka agertu bada eskatzailea.

- Dirulaguntza mailegu gastuetarako bada:

1. Maileguaren kuota ordaindu izanaren ordainagiria.
2. Zergei dagozkien betebeharretan (Ogasuna) eta Gizarte Segurantzarekin eguneratuta egotearen ziurtagiriak, agiri horiek Udalak ofizioz kontsultatzearen aurka agertu bada eskatzailea.

11. artikulua. Ordainketa prozedura

Edozein kasutan, dirulaguntza hiru hilean behin ordainduko da.



II. ERANSKINA: TOLOSAN ENPRESARITZA EKIMEN BAT ABIARAZTEKO EMATEN DIREN DIRULAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK – EKIN

1. artikulua. Helburua

EKIN programaren helburua da Tolosako hiri-ekonomiako sektoreetako batean enpresaritza ekimen bat abiarazteagatik pertsoneri dirulaguntzak ematea.

2. artikulua. Diruz lagunduko diren jarduerak

Honen bitartez, hiri-ekonomia sektoreko ekimen berriak martxan jartzeko jarduketa hauek lagunduko dira diruz:

- a) Tolosako Alde Zaharrear enpresa ekimena garatu ahal izateko beharrezkoa den lokala birgaitzeko egindako gastuak.

Kasu honetan, orokorrean onartuko dira merkataritza establezimenduaren barrualdea edota kanpoaldea moldatzeko, berritzeko edo handitzeko instalazioak eta obrak, baita oztopo arkitektonikoak ezabatzeko egindako eraberritzeak ere, mugikortasun murriztua duten pertsonen irisgarritasuna hobetzeko helburua badute.

- b) Tolosako herrian enpresa ekimena garatuko den lokalaren alokairu edo erosketa gastuak.

Enpresa ekimena Tolosako Alde Zaharrear kokatuz gero, bateragarriak izango dira birgaitzeko eta alokairu edo erosketa gastuetarako emandako dirulaguntzak.

3. artikulua. Onuradunak

Laguntza hauen onuradun izan ahalko dira pertsona fisikoak, norberaren konturako langileak edo autonomoak, eta pertsona juridikoak, euren izaera juridikoa edozein dela ere, betiere oinarrietan zehaztutako baldintzak betetzen badituzte.

4. artikulua. Dirulaguntza jasotzeko bete behar dituzten baldintzak

Lokala birgaitzeko edota lokalaren alokairu edo erosketa gastuetarako dirulaguntza eskuratzeko bete beharreko baldintza zehatzak honako hauek dira:

1. Enpresa-ekimen berria hiri-ekonomiako sektore hauetako batekoa izatea: merkataritza, hiriko merkataritza jarduerari lotutako zerbitzuak, ostalaritza edo turismoa.
2. Enpresa ekimenaren jarduera nagusia 4. eranskinean jasotzen den Jarduera Ekonomiko gainerako Zergako epigraferen batean alta emanda egotea (JEZ).
3. Jarduera Tolosan kokatutako establezimendu batean egotea.



4. Jarduerak ezingo dira kokatu:

- Tolosako Alde Zaharreko Birgaitze Plan Berezian aurreikusitako ekintza isolatuaren objektu izateagatik ordenazioz kanpokotzat deklaraturako eraikinetan.
- Aurri-egoeran dauden eraikinetan.
- Kontserbazio-egoerarengatik eta bizigarritasun baldintzengatik eraikina finkatzea egokia ez dela ebazten den eraikinetan.

5. Negozio plan bideragarria eta amaitua Tolosaldea Garatzeneko Autoenplegu eta Ekintzailtza departamentuak balidatua.

- Dirulaguntza birgaitze gastuetarako bada:

- Jarduera Tolosako Alde Zaharrean kokaturako lokal itxi batetan egotea.
- Tolosako Alde Zaharreko Birgaitze Plan Bereziak ezarritako araudia betetzea.

- Dirulaguntza alokairu- edo erosketa- gastuetarako bada:

1. Lokala alokairuan hartu bada, kontratuak gutxienez 12 hilabeteko iraupena izatea.

Ez da alokairu edo lokala erosteagatik laguntzarik emango, baldin eta pertsona eskatzaileak:

- Lokala saltzen edo alokatzen duen pertsonarekin ezkontza ahaidetasuneko edo odol ahaidetasuneko lehen edo bigarren mailako ahaidetasuna badu.
- Saltzaile edo errentatzaile gisa jarduten duen pertsona fisiko edo juridikoaren bazkide edo partaide bada.

5. artikulua. Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa

Eskatzaile bakoitzari eman dakioken dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa honako hau izango da, BEZa kontuan izan gabe:

- a) Enpresa ekimena garatuko den lokala birgaitzeko: aurrekontuaren % 20, dirulaguntzaren muga 6.000,00 euro izanik.
- b) Lokalaren alokairu edo erosketa gastuentzako: eskatzaile bakoitzari eman dakioken dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa, honako hau izango da, BEZA kontuan izan gabe:
 - Lehen urtean, 450 €/hilean, gehienez ere hileko alokairu- edo mailegu-gastuaren % 75.



- Bigarren urtean, 300 €/hilean, gehienez ere hileko alokairu- edo mailegu-gastuaren % 50.
- Hirugarren urtean, 150 €/hilean, gehienez ere hileko alokairu- edo mailegu-gastuaren % 25.

Dirulaguntza ordainduko da alokairu-kontratuan edo erosketa-kontratuan agertzen den egunetik aurrera.

Edozein kasutan, onuradun bakoitzeko laguntzak guztira, gehienez ere, honako hauek izango dira: lehen urtean, 5.400,00 €, bigarren urtean, 3.600,00 € eta hirugarren urtean, 1.800,00 €, betiere hiru urte horietan jarduerari eusten bazaio. Hori guztia, betiere, lokalaren alokairu prezioa 12 €/m²-koa edo hortik beherakoa bada.

- Dirulaguntza alokairu gastuetarako bada:

- Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko oinarria alokairu gastuei bakarrik dagokiona izango da (BEZa eta bestelako zerga eta tasen ordainketa eta atxikpenak kanpo utzita). Salbuespen modura, enpresak BEZa kentzen ez badu, dirulaguntzaren oinarria kalkulatzeko hura hartuko da kontuan.
- Nolanahi ere, kalkulatzeko gehieneko prezioa 12 €/ m² izango da. Horretarako, alokairu kontratuan zehaztutako metro kopurua hartuko da aintzakotzat.

- Dirulaguntza mailegu gastuetarako bada:

- Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko oinarria dela-eta, kontuan hartuko dira jarduerari lotutako ondasunen erosketa finantzatzen duten maileguen (hipoteka edo pertsonalak) amortizazio-gastuak eta interesak.
- Lokala erosi den kasuetan, erosketarako "mailegu zubi bat" kontratatu bada, edo maileguak bestelako gabeziak edo karentziak baditu, lehen 3 urteetan erosketaren maileguari zuzenean inputatu ahal zaizkion interes gastuak hartuko dira kontuan.

Nolanahi ere, laguntzak aurrekontua erabilgarri dagoen heinean emango dira.

7. artikulua. Eskabidea egiteko aurkeztu beharreko dokumentazioa

Eskaera egiteko, interesdunak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

1. Eskabide-orri espezifikoak (Udalaren webgunean eskura daiteke).
2. Zergei dagozkien betebeharretan (Ogasuna) eta Gizarte Segurantzarekin eguneratuta egotearen ziurtagiriak, agiri horiek Udalak ofizioski kontsultatzearen aurka agertu bada eskatzailea.
3. Ahaldunen kasuan, ordezkaritza agiria.



4. Ondasun erkidegoen, sozietate zibilen eta pertsona juridikoen kasuan, erakundearen eraketa eta hori arautzeko estatutuak jasotzen dituen eskrituraren edo agirien fotokopia, Udaletxean jasota ez badaude.
5. Negozio/bideragarritasun plana, Tolosaldea Garatzeneko Autoenplegu eta Ekintzailtza departamentuak balidatua, aurrekontu edo jarduera garatzean sortzen diren gastuen zerrenda jasoz.

Interesdunak ez du zertan bideragarritasun azterketa Tolosaldea Garatzen garapen agentziarekin egin, baina azken horrek dokumentua ontzat eman beharko du 8. artikuluan jasotzen den batzorde teknikora eraman aurretik.

Halaber, plan horretan txertatu beharko dira 11. artikuluan dirulaguntza emateko irizpideen azalpena. Eta honako dokumentu hauek erantsiko dira (hala badagokio):

1. Pertsona ekintzaileak sektorean lan esperientzia duela frogatzeko: lan biritza eta/edo lan ziurtagiriak, funtzioak azalduz, arduradunaren sinadurarekin eta zigilatuta.
2. Proiektuak euskararen erabileraren faktorea integratuta duela bermatzeko: publizitatea eta marketina, eta ingurune digitala gutxienez euskaraz landuko direla egiaztatzeko, konpromiso ziurtagiria.
3. Zerbitzua eskainiko duten langileen euskarazko B2 titulua.
6. "Jarduera sailkatuaren aurretiazko komunikazioa" izeneko udal inprimakia, jarduera proiektuarekin batera eta inprimakian azaltzen diren beste agiriekin batera.

- Dirulaguntza birgaitze gastuetarako bada:

1. "Jarduera ezartzeko obren baimen eskaera" izeneko udal inprimakia.
2. Obra eta jarduera proiektua.
3. Aurrekontua.

- Dirulaguntza alokairu edo erosketa gastuetarako bada:

1. Bi aldeek sinatutako alokairu-kontratua edo lokalaren jabetza eskuratuz gero, erosketa-kontratua.
2. Lokalaren jabetza eskuratuz gero, banku-transferentziaren egiaztagiria, eskuratze-prezioa osorik edo zati batean ordaindu dela egiaztatzen duena.
3. Maileguaren kasuan, hipoteka-maileguaren eskritura publikoa edo, hala badagokio, mailegua formalizatu izanaren egiaztagiria.

8. artikulua. Dirulaguntza emateko prozedura eta hautaketa-irizpideak

Eskabidea egiteko interesdunak eranskin honen 7. artikuluan adierazitako agiriak aurkeztu beharko ditu.



Kasu guztietan, Tolosako Udalak eskatu ahal izango die eskatzaileei aurkeztutako eskaera egoki ulertzeko eta ebaluatzeko beharrezko jotzen duen dokumentu edota informazio gehigarri guztia. Era berean, proiektua hobeto ulertzeko elkarrizketa edo aurkezpen bat egiteko ere eskatu ahal izango du.

Eskaeren baloraziorako, Batzorde Tekniko bat sortuko da: batzorde hori osatuko dute Tolosako Udaleko teknikari batek (Garapen Ekonomikoa, Turismoa, Merkataritza, Azokak eta Enpleguaren Sustapeneko Sailekoa) eta Tolosaldea Garatzen Eskualdeko Garapen Agentziako Ekintzailetasun arloko teknikari batek. Aldi berean, batzordeak berak hala erabakitzen duen kasuetan, adituek batzordean parte hartu ahal izango dute. Adituek aholkulari gisa hartuko dute parte, eta ez dute boto eskubiderik izango.

Era berean, Batzorde hau osatzen denean, saiatu behar da bermatzen gaitasun, trebetasun eta prestakuntza egokiko gizon eta emakumeen arteko oreka; hori bermatzen dela ulertuko da, hain zuzen ere, gutxienez, sexu biek % 40ko ordezkartza izatea dutenean.

- Dirulaguntza emateko irizpideak:

Dirulaguntza jaso ahal izateko, proiektuek 50 puntu baino gehiago lortu beharko dituzte:

- Tolosaldea Garatzenek ontzat emandako bideragarritasun azterketa: 30 puntu
- Izaera berritzailea. Bi aukera aurreikusten dira:
 - Herrian horrelako produktu edo zerbitzu eskaintzarik ez badago: 10 puntu.
 - Horrelakorik badago, baina zerbitzuak gehigarriak eskaintzen baditu (etxez etxeko entrega, eskaerak hainbat kanalen bidez egitea, ordaintzeko erraztasunak, arreta pertsonalizatua...): 5 puntu.
- Izaera estrategikoa: 10 puntu.
 - Udalerriko sektore edo ingurune zehatz batean izaera estrategikoa dutenak honako arlo hauekin lotutakoak izango dira: zahartze aktiboa eta zilarrezko ekonomia, lehen sektorea, turismoa, ekonomia zirkularra, tokiko gastronomia eta kultura.
 - Beste sektore edo jarduera batzuk baloratu ahal izango dira, baldin eta indarreko Hiri-ekonomiako Plan Estrategikoarekin zerikusia badute.
- Eskaintako produktuen eta zerbitzuen ingurumen ikuspegia: 10 puntu:
 - Ekonomia zirkularreko jarduera/produktu jasangarrien salmenta: 4 puntu.
 - Energiaren kudeaketa eraginkorra bermatzen duten neurriak: 3 puntu.
 - Hondakinak gutxitu edo era eraginkorrean kudeatzeko sistemak: 3 puntu.
- Belaunaldi-segida: 5 puntu.
- Ekintzailearen lan-esperientzia: 5 puntu.
 - Ekintzaileak sektorean lanean daraman urte bakoitzagatik puntu bat.



- Proiektuak euskararen erabileraren faktorea integratuta izatea: 10 puntu.
 - Erakundearen irudia (errotulua eta izena euskara hutsez izatea): puntu 2.
 - Publizitatea eta marketina (gutxienez euskaraz egitea): 2 puntu.
 - Horretarako, konpromiso ziurtagiria aurkeztu beharko da.
 - Ingurune digitala (gutxienez euskaraz egitea): 2 puntu.
 - Horretarako, konpromiso ziurtagiria aurkeztu beharko da.
 - Bezeroarekiko harremanak ahoz eta idatziz euskaraz bermatzea (zerbitzua eskainiko duten pertsonen hizkuntza gaitasuna): 4 puntu.
 - Horretarako, euskarazko titulua (B2 maila) aurkeztu beharko da edo, hura izan ezean, Euskara departamentuak egindako galdeketa gainditu beharko da.
- Alde Zaharrea kokatzea: 15 puntu. (Alde Zahar gisa ulertuko da Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean zehaztutakoa).
- Zabalgunean kokatzea: 5 puntu. (Alde Zaharra ez dena).

9. artikulua. Dirulaguntza emateko prozedura bideratu, baloratu eta ebazteko eskumena duten organoak

- Instrukzioa:

Dirulaguntza horiek emateko prozeduraren instrukzioa Tolosako Udaleko Garapen Ekonomikoa, Turismoa, Merkataritza, Azokak eta Enpleguaren Sustapeneko Sailari dagokio.

- Balorazioa:

Aipatutako Batzorde Teknikoari dagokio eskabideak baloratzea, dagokion txosten teknikoaren bitartez. Txostenean jasotako balorazioa eta emakida-proposamena dagokion Batzorde Informatiboari aurkeztuko zaio, bere oniritzia emateko. Ondoren oniritzi hori organo eskudunari helaraziko zaio, hark ebatz dezan.

Eskaera egiten den ekitaldirako udal aurrekontuan kreditu erabilgarririk ez badago, eskatzaileak onuradun izan ahalko dira hurrengo deialdian. Hori udal aurrekontuan erabilgarri dagoen kredituaren eta momentuan dagoen eskari kopuruaren arabera izango da.

Edozein kasutan, Garapen Ekonomikoa, Turismoa, Merkataritza, Azokak eta Enpleguaren Sustapeneko Sailari dagokio horren balorazioa egitea, eta dirulaguntzak atzeraginkortasunarekin onartzeko proposamena egitea.



- Ebazpena:

Dirulaguntza emateko prozedura zinegotzi delegatuak ebatziko du, Udalaren administrazio-antolaketa unean-unean indarrean dauden eskumenen eta balizko eskuordetzen arabera.

10. artikulua. Jarduketak egikaritzeko epea

Dirulaguntzaren xede diren jarduketak urte naturalaren barruan hasi behar dira, eta ebazpena ematen denetik hurrengo 3 urteetan lagunduko dira diruz.

11. artikulua. Dirulaguntza zuritzeko aurkeztu beharreko agiriak eta epea

a) Dirulaguntza birgaitze gastuetarako bada:

1. Proiektu teknikoa egitea beharrezkoa litzatekeen lanen kasuan dagokion obra bukaerako ziurtagiria, elkargoaren oniritziarekin (bisatuarekin).
2. Gastuen sailkapen zerrenda (GAL-GE inprimakia).
3. Fakturak eta merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea duten edo eraginkortasun administratiboa duten gainerako dokumentuak; horiei egindako ordainketen egiaztagiriak gehituko zaizkie.

b) Dirulaguntza alokairu- edo mailegu- gastuetarako bada: hiru hilean behin (urtarrila, apirila, uztailea eta urria), honako hauek aurkeztu beharko dira:

- Alokairuaren kasuan:

- Alokairuen fakturak, dagokion banku-ordainagiriarekin batera.
- Zergei dagozkien betebeharrak (Ogasuna) eta Gizarte Segurantzarekin eguneratuta egotearen ziurtagiriak, agiri horiek Udalak ofizioz kontsultatzearen aurka agertu bada eskatzailea.

- Erosketaren kasuan:

1. Maileguaren kuota ordaindu izanaren ordainagiria.
2. Zergei dagozkien betebeharrak (Ogasuna) eta Gizarte Segurantzarekin eguneratuta egotearen ziurtagiriak, agiri horiek Udalak ofizioz kontsultatzearen aurka agertu bada eskatzailea.

12. artikulua. Ordainketa prozedura

- Dirulaguntza birgaitze gastuetarako eskatu bada: ordainketa bi zatitan egingo da: ebazpenarekin batera, dirulaguntzaren % 70 ordainduko da. Gainontzeko % 30a,



berriz, onuradunak Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan (JEZ) alta eman eta handik 12 hilabetera egingo da, zuriatarako agiriak aurkeztu ostean.

- Dirulaguntza alokairu edo mailegu gastuetarako eskatu bada: dirulaguntza ebazten den unetik, ordainketa hiru hilean behin egingo da 3 urteko epea bete arte, zuriatarako beharrezko agiriak aurkeztu ostean.

13. artikulua. Onuradunaren betebeharrak

Honako hauek dira onuradunaren betebeharrak:

- Laguntzaren xede den ekintzailtza proiektua gutxienez urtebetez altan mantendu beharko da.

III. ERANSKINA: KALE ESPAZIO ETA LOKAL HUTSAK DINAMIZATZEKO EKINTZAK SUSTATZEKO PROGRAMA – GUNE BIZIAK

1. artikulua. Helburua

GUNE BIZIAK programaren helburua da kale espazio eta lokal hutsak dinamizatzeko ekintzak sustatzeko dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea.

2. artikulua. Diruz lagunduko diren jarduerak

Lerro honen baitan jarduera hauek izango dira diruz lagungarriak:

- a) Lokal baten erakusleioa lagatzea beste saltoki baten erakusleio izateko: merkataritza jarduerarik ez duten lokalen jabeek lokalaren erakusleioa utziko diote Tolosako Udalari, Udalak udalerriko merkatariei utz diezaien. Azken horiek beren produktuen lagin bat erakusteko modua izango dute.
- b) Merkataritzako paisaia hobetzera bideratutako neurriak: merkataritzako jarduerarik ez duten lokal eta espazioetan (atzeko aldeak, hormak...) merkataritzako paisaia hobetzera bideratutako neurriak garatuko dira, grafitiak, biniloak, margolanak edo antzekoak.

Nolanahi ere, GUNE BIZIAK programa bultzatzeko ahalmena Tolosako Udalak izango du une oro, eta une bakoitzean dauden beharren arabera garatuko du ahalmen hori.

3. artikulua. Onuradunak

Laguntza hauen onuradun izan ahalko dira pertsona fisikoak, norberaren konturako langileak edo autonomoak, eta pertsona juridikoak, euren izaera juridikoa edozein dela



ere, betiere oinarrietan zehaztutako baldintzak betetzen badituzte. Onuradunen bi profil ezartzen dira:

1. Erakusleihoa erabiltzeko uzten duten merkataritza-lokal hutsen jabeak.
2. Lokala utzita jasotzen duten Tolosako merkatariak.

4. artikulua. Onuradunek bete behar dituzten baldintzak.

Onuradunek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

1. Tolosako Udalak martxan dituen birgaitze proiektuei atxikitako kaleetan lokal huts baten jabe izatea, edo Tolosan merkataritza jarduera baten jabe izatea.
2. Erakusleihoa edo lokalaren kanpoaldea uzteko epea gutxienez 6 hilabetekoa izango da akordioa sinatzen den unetik.

Nolanahi ere, jabeak eskubidea izango du lagapen-kontratua 6 hilabete horiek baino lehenago bertan behera uzteko, lokala saldu behar badu edo merkataritza-jarduera bat ezartzeko alokairuan jarri behar badu.

5. Artikulua. Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa

a) Lokal baten erakusleihoa lagatzea beste saltoki baten erakusleiho izateko.

- Erakusleihoa Tolosako Udalari uzten dioten jabeek 200,00 €-ko dirulaguntza jasoko dute.
- Tolosaren Udalaren bitartez lokala utzita jasotzen duten merkatariek erakusleihoa egokitzearen % 100eko dirulaguntza jasoko dute:
 - 2 metro arteko erakusleihoen kasuan (kristalaren zabalera hartuko da erreferentziazat): 600,00 € gehienez ere.
 - 2 metrotik aurrera: 800,00 € gehienez ere.

Azken kasu horretan, diruz lagunduko dira kontzeptu hauek: erakusleihoa egokitzeo obrak, instalazio elektrikoa egokitzeo lanak, su-itzalguiluen kostua, aseguru poliza...

Fatxadako errotulu nagusia aldatzen bada, gutxienez euskaraz egotea bermatu behar da. Era berean, soilik euskaraz egonez gero, Tolosako Udaleko Euskara eta Hezkuntza departamentuaren dirulaguntza jaso ahal izango dute.

b) Merkataritzako paisaia hobetzera bideratutako neurriak: Tolosako Udalak merkataritzako paisaia hobetzera bideratutako neurriak garatuko ditu (grafitiak, biniloak, margolanak...) eta horiek gauzatzeko kostu osoa bere gain hartuko du.



6. artikulua. Ordaintzeko modua

Erakusleihoa Tolosako Udalari utzi dion jabearen kasuan, ordainketa bakarria egingo da, behin baldintzak betetzen dituela egiaztatu eta bi aldeen arteko akordioa sinatu ostean.

Erakusleiho bat hartu nahi duen merkatariairen kasuan ordainketa bakarria egingo da, lokala egokitzeko lanak burutu, zuriketa aurkeztu eta udal teknikariak aldeko txostena egin ostean.

7. artikulua. Eskabidea egiteko aurkeztu beharreko dokumentazioa

Eskaera egiteko, interesdunak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

1. Eskabide-orri espezifikoak (Udalaren webgunean eskura daiteke).
2. Zergei dagozkien betebeharretan (Ogasuna) eta Gizarte Segurantzarekin eguneratuta egotearen ziurtagiriak, agiri horiek Udalak ofizioz kontsultatzearen aurka agertu bada eskatzailea.
3. Ahaldunen kasuan, ordezkaritza agiria.
4. Ondasun erkidegoen, sozietate zibilen eta pertsona juridikoen kasuan, erakundearen eraketa eta hori arautzeko estatutuak jasotzen dituen eskrituraren edo agirien fotokopia, Udaletxean jasota ez badaude.

- Lokalaren erabilera Udalari lagatzeko interesa duten jabeek:

1. Lokalaren identifikazioa eta egoera jasotzen duen memoria.

- Erakusleihoa erabiltzeko interesa duten merkatariek:

1. Lokalaren identifikazioa eta erakusleihoari eman nahi zaion erabilera jasotzen duen proiektua.
2. Obra jakinarazpena edo obra txikia egiteko eskaera (egin beharreko obren arabera) eta aurrekontua.
3. Kontratututako aseguru-polizaren ziurtagiria eta ordainagiria, istripurik izanez gero, lokalaren balioa eta erakusleihoaren instalazioaren ondorioz sor daitekeen erantzukizun zibila bermatzeko.

8. artikulua. Lokalaren lagapenerako prozedura

a) Lokal baten erakusleihoa lagatzea beste saltoki baten erakusleiho izateko: behin Tolosako Udalak bi eskaerak jaso dituenean, bi akordio sinatuko ditu:

1. Bata, lokal hutsaren jabearekin.
2. Bestea, lokal hutsaren erakusleihoa erabiliko duen merkatariairekin.



Hau da, lokal hutsaren jabearekin akordioa sinatu ondoren, lokal hori Tolosako merkatarari bati utziko dio, beste akordio berri bat sinatuaz, azken horrek lokal horren erakusleihoa erabili dezan.

- b) Merkataritzako paisaia hobetzera bideratutako neurriak: kasu honetan, Udalak lokal hutsaren jabearekin akordioa sinatuko du.

9. artikulua. Emandako dirulaguntza zuritzeko dokumentazioa

Behin pertsona eskatzaileak lokala egokitzeko lanak burutu dituenean honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

1. Memoria dagokien argazkiekin.
2. Gastuen sailkapen zerrenda (GAL-GE inprimakia).
3. Fakturak eta merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea duten edo eraginkortasun administratiboa duten gainerako dokumentuak; horiei egindako ordainketen egiaztagiriak gehituko zaizkie.

10. artikulua. Aldeen betebeharrak

- Jabearen betebeharrak:

- Udalaren bitartez erakusleihoa utzita jasotzen duen merkataritari behar adina aldiz utziko dio sartzan erakusleihorearen mantentze-lanak egiteko, berritzeko edo bertan dauden salgaiak kentzeko.
- Lokala alokatzeko edo saltzeko iragarkien kartelak Udalak jarriko ditu jabeen eskura, eta haiek ezingo dute eredu horiez aparteko kartelik eta iragarkirik jarri.

- Udalaren bitartez erakusleihoa utzita jaso duen merkatariairen betebeharrak:

- Erakusleihoa egokitu beharko du.
- Beharrezko su-itzalgailuak jarri beharko ditu, Udaleko zerbitzu teknikoek ezarritako irizpideen arabera.
- Erakusleihorearen kontsumo elektrikoaren gastua ordaindu beharko du. Erakusleihorearen kontsumoa neurtzeko kontagailurik ez badago, aldeek adostasunez erabakitakoa bete beharko du.
- Ezingo du inolako jarduera ekonomikorik egin erakusleihoa dagoen lokalean; erakusleihoa bera atondu eta egokitu besterik ez du egingo.
- Erakusleihorearen erakutsitako laginaren kalitatea zaindu beharko du.
- Aseguru-poliza bat kontratatu beharko du, istripurik izanez gero, lokalaren balioa eta erakusleihorearen instalazioaren ondorioz sor daitekeen erantzukizun zibila bermatzeko.



- Kontratua amaitzean, baldintza berberetan utzi beharko du lokala. Horretarako, lokala entregatu aurretik, udal zerbitzu teknikoek akta jasoko dute, lokala zer egoeratan dagoen zehazteko, laguntza ematen den datatik hasita.
- Erakusleihoa gutxienez 6 hilabetez mantendu beharko da, eta horrela ez den kasuetan Udalarari jakinarazi beharko zaio.
- Tolosako Udalaren GUNE BIZIAK egitasmoko irudia sartu beharko du lagatutako erakuslehioan.

- Udalaren betebeharrak:

- Bi aldeen arteko akordioa amaitutzat emandakoan, Udalak egoera onean utziko dio berriz lokal hutsa haren jabeari, eta kalterik sortu bada, Udalak konpondu beharko du. Horretarako, lokala jaso aurretik, udal zerbitzu teknikoek akta jasoko dute, lokala zer egoeratan dagoen zehazteko.

- Jarduketa artistikoa egiten duen enpresaren betebeharrak:

- Idatzizko informazioa (kartelak, oharrak...) euskaraz edo ele bitan egin behar da, eta, azken kasu horretan, euskarari lehentasuna emanda, Tolosako Udalean eta Udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko Udal Ordenantzak xedatzen duen bezala.
- Kontratututako erakundeak Tolosako Udalaren GUNE BIZIAK egitasmoko irudia sartu beharko du gauzatuko den jarduketa artistikoan, zehazki, egindako grafiti, binilo edota margolan bakoitzean.

IV. ERANSKINA: TOLOSAN ENPRESARITZA EKIMEN BAT ABIARAZTEA – EKIN PROGRAMAN ONARTZEN DIREN JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGAREN (JEZ) TALDE ETA EPIGRAFEAK.

LEHEN SEKZIOA. ENPRESA JARDUERAK:

MERKATARITZA:

491 Bitxigintza eta imitaziozko bitxigintza.

641 Fruituen, barazkien, ortuarien eta tuberkuluen txikizkako merkataritza.

642 Honakoen txikizkako merkataritza: haragia eta hondakinak, haragi-gai eta haragiki landuak, arrautzak, hegaztiak, abeletxeko untxiak, ehizakiak, eta horien ekoizkin eratorriak.



643 Arrainen eta arrantzako eta akuikulturako bestelako ekoizkinen eta barraskiloen txikizkako merkataritza.

644 Ogi, gozoki, konfite eta antzekoen, eta esne eta esnekien txikizkako merkataritza.

645 Mota guztietako ardoen eta edarien txikizkako merkataritza.

646 Tabako-laboreen eta erretzaileentzako gauzen txikizkako merkataritza.

647.1 Mota guztietako jangaien eta edarien txikizkako merkataritza, saltzailedun establezimenduetan.

647.2 Mota guztietako jangaien eta edarien txikizkako merkataritza, autozerbitzuko erregimenean nahiz erregimen mistoan, saltzeko gelak 120 metro koadro baino gutxiagoko eremua duenean.

647.3 Supermerkatuetan egiten den mota guztietako jangaien eta edarien txikizkako merkataritza, autozerbitzuko erregimenean nahiz erregimen mistoan; saltzeko gelak 120 eta 399 metro koadro bitarte ditunean deritze supermerkatu.

651 Ehungintza-gaien, jantzigintza-gaien, zapaten, larruen eta larrugintza-gaien txikizkako merkataritza.

652.2 Drogeriako, lurringintzako eta kosmetikako produktuen, garbiketako gaien, pinturen, bernizen, disolbatzaileen, paperen eta dekoraziorako beste ekoizkin batzuen eta kimikako ekoizkinen txikizkako merkataritza.

652.3 Lurringintzako eta kosmetikako ekoizkinen eta norbere higienarako eta garbiketarako gaien txikizkako merkataritza.

652.4 Belar-dendetako landareen eta belarren txikizkako merkataritza.

653 Etxeko ekipamenduen eta eraikuntzarako gaien txikizkako merkataritza.

654.2 Lurreko ibilgailuentzako osagarrien eta ordezeko piezen txikizkako merkataritza.

654.5 Mota guztietako makineriaren txikizkako merkataritza (etxeko aparatuak, bulegokoak, medikuenak, ortopedikoak, optikoak eta argazkigintzakoak izan ezik).

654.6 Mota guztietako ibilgailuetarako gurril-azalen, banden edo aire-ganberen txikizkako merkataritza.

656 Altzarien, jantzien, etxean erabiltzeko jantzi eta tresna arrunten eta antzeko ondasun erabilien txikizkako merkataritza.

657 Musika-tresnen eta haien osagarrien txikizkako merkataritza.

659 Bestelako txikizkako merkataritza.

OSTALARITZA ETA TURISMOA

671 Jatetxeetako zerbitzuak.

672 Kafetegietako zerbitzuak.



- 673 Janaridun edo janari gabeko kafetegi eta tabernetan.
- 676 Txokolategietako, izozki-dendako eta hortxategietako zerbitzuak.
- 68 Ostatu zerbitzuak.
- 755 Bidaia agentziak.

HIRIKO MERKATARITZA-JARDUERAREKIN LOTUTAKO BESTE ZERBITZU BATZUK

- 691.1 Etxeko tresna elektrikoen konponketa.
- 691.9 Beste kontsumo-ondasun batzuk konpontzea, b.i.s.g.
- 83 Finantza- eta aseguru-laguntzaileak. Higiezin jarduerak (zerbitzuak establezimendu batean ematen badira).
- 84 Enpresei emandako zerbitzuak (zerbitzuak establezimendu batean ematen badira).
- 943 Estomatologia eta odontologiako kontsultak eta klinikak.
- 944 Naturopatia, akupuntura eta beste zerbitzu parasanitario batzuk.
- 945 Albaitarien kontsultak eta klinikak.
- 971 Garbitegiak, tindategiak eta antzeko zerbitzuak.
- 972 Ile-apaindegiak eta gorputz apaindegiak.
- 973.1 Fotografia-zerbitzuak.
- 973.3 Makina-fotokopiagailuen bitartez agiriak kopiatzeko zerbitzuak.
- 975 Enmarkazio zerbitzuak.
- 979.9 Beste zerbitzu pertsonal batzuk.

BIGARREN SEKZIOA. JARDUERA PROFESIONALAK (zerbitzuak establezimendu batean ematen badira)

- 7. atala: finantza, lege, aseguru eta alokairuetako jarduerekin lotutako profesionalak.
- 825 Lurreko, uretako, aeronautikako eta abarretako ibilgailuak gidatzeko irakasleak.
- 83 Osasun-arloko profesionalak.
- 826 Irakaskuntza ezberdinen irakasleak, esate batera, hezkuntza fisikoa eta kirolak, hizkuntza, mekanografia, azterketa eta oposizioen prestakuntza eta antzekoak.
- 84 Enpresentzako zerbitzuak.
- 88 Hainbat profesional.
- 836 Osasun teknikari laguntzaileak eta fisioterapeutak.



839 Masajistak, bromatologoak, dietistak eta erizaintzako laguntzaileak.

841 Naturopatia eta akupuntura zerbitzuak eta beste zerbitzu parasanitario batzuk.

861 Margolariak, eskultoreak, zeramikariak, artisauak.

887 Makillatzaileak eta estetizistak.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** Tolosako hiri-ekonomia indarberritzeko dirulaguntza-programa arautzen duen ordenantza: erreklamazioak erantzutea, zuzenketak ofizioz egitea eta Ordenantzari behin betiko onarpena ematea.

9. KREDITU ALDAKETA HONEN BERRI EMATEA:

2021/1755 ALKATETZA DEKRETUA, 7/2021 KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTEARI DAGOKIONA.

2021/1755 Dekretuaren berri eman da. Honelaxe dio:

ALKATEAREN DEKRETUA

Olatz Peon Ormazabal Tolosako Udaleko alkate lehendakariak emana

Ikusita udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, gastu partiden arteko kreditu transferentzien modalitatekoa, 2021-KALD-000007-00 zenbakiduna.

Ikusita jarduneko Kontu-hartzaileak idatzitako txostenaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 29. artikuluan ezarritakoarekin.

Aipatutako Foru Arauak 29. artikulua 3. eta 4. apartatuen bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau

EBATZI DUT



Lehenengoa.- Onartzea udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentzien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapituluko laburpen honen arabera:

Kreditua transferituko duten gastuak (bajak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Murrizketa	Amaierako kreditua
1	PERTSONAL GASTUAK			
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN			
3	FINANTZA GASTUAK			
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	183.200,00	17.225,00	165.975,00
5	kreditu globala eta bestelako ustekabeak			
6	INBERTSIO ERREALAK			
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK			
8	FINANTZA AKTIBOAK			
9	FINANTZA PASIBOAK			
	GUZTIRA	183.200,00	17.225,00	165.975,00

Kreditua jasoko duten gastuak (altak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1	PERTSONAL GASTUAK			
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	449.108,00	17.225,00	466.333,00
3	FINANTZA GASTUAK			
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK			
5	kreditu globala eta bestelako ustekabeak			
6	INBERTSIO ERREALAK			
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK			
8	FINANTZA AKTIBOAK			
9	FINANTZA PASIBOAK			
	GUZTIRA	449.108,00	17.225,00	466.333,00



Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udalbatzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.

Tolosa, 2021eko urriaren 20a

Alkatea

Jarduneko idazkaria

Olatz Peon Ormazabal

Karmele Contreras Goikoetxea

Udalbatzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

10. KREDITU ALDAKETA HONEN BERRI EMATEA:

2021/1751 ALKATETZA DEKRETUA, 9/2021 KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTEARI DAGOKIONA.

2021/1751 Dekretuaren berri eman da. Honelaxe dio:

ALKATEAREN DEKRETUA

Olatz Peon Ormazabal Tolosako Udaleko alkate lehendakariak emana

Ikusita Tolosako Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, 2021-KALD-000009-00.

Ikusita Kontu-hartzaileak idatzitako txostenaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Aipatutako Foru Arauak 34.3 artikulua bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau

EBATZI DUT

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapituluko laburpen honen arabera:



KREDITU GEHIGARRIAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	55.500,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		55.500,00

FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
8	FINANTZA AKTIBOAK	55.500,00
GUZTIRA		55.500,00

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udaltzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.

Tolosa, 2021eko urriaren 20a

Alkatea

Idazkaria

Udaltzarkideak jakinaren gainean geratu dira.



11. MOZIOA: ENERGIA HORNIDURAREN PREZIOEN GORAKADAREN AURREAN HARTZEKO NEURRIEN INGURUAN.

EHBildu udal taldeak aurkeztu duen mozioak honela dio:

“MOZIO proposamena Energia horniduraren prezioen gorakadaren aurrean hartzeko neurrien inguruan.

ZIOA

Argindarraren prezio maximo historikoetan jarraitzen du, enpresa elektrikoak aberastuz, herritarrak pobretzen diren bitartean.

Enpresa publikoen pribatizazioak, sistemaren desarautzea eta “merkatuaren” esku uzteak ondorio sozial (familietan, enpresa txiki eta ertainetan edo denda txikietan) eta klimatiko larriak eragiten ari da.

Garaia da burujabetza energetikorantz aurrera egin dezagun, ezarritako oligopolioa apurtuko duten sistema propioak izan ditzagun, sistema bidezkoak publikotik eraikitzeko eta argindarra errespetatzeko, oinarrizko ondasun eta eskubide gisa.

Gure eskumen propioetatik, tokiko erakundeetatik ere, urratsak eman ditzakegu norabide horretan, herritarren interesak babesteko. Horregatik,

EBAZPEN PROPOSAMENA

1. Tolosako Udaleko Osoko Bilkurak Espainiar estatuko enpresa elektrikoak argindarraren prezioarekin egiten ari diren iruzur larria salatzen dute.

2. Tolosako Udaleko Osoko Bilkurak Estatuko eta Europako instituzioei eskatzen die, behar beste neurri har ditzaten elektrizitate ekoizleek bidezko ordainsaria soilik jasotzen dutela bermatzeko. 2019/44 Europar Zuzentarauak adierazten duena burutuz, kontsumitzaileentzat energia-prezio eta -kostu eskuragarriak eta gardenak bermatzeko.

3. Tolosako Udaleko Osoko Bilkurak Jaurlaritzari eskatzen dio:

3.1. Autokontsumoa eta komunitate energetikoak sustatzeko diru partidak gutxienez bikoiztu ditzala 2022. urteari begira.



3.2. *Energiaren Euskal Erakundearen bitartez elektrizitatearen merkaturatzaile publiko bat sortzeko bideragarritasun-azterketa egin dezala.*

3.3. *Gizarte Larrialdietarako Laguntzetara zuzendutako ordainketa-kreditua handitu dezala, "elektrizitatearen, gasaren edo etxean erabiltzeko bestelako erregaien horniduraren ondoriozko energia-gastuekin" erlazionatutako laguntzak jasotzeko baldintzak betetzen dituen eskaerarik baztertu ez dadin.*

3.4. *Gizarte Larrialdietarako Laguntzetan, "elektrizitatearen, gasaren edo etxean erabiltzeko bestelako erregaien horniduraren ondoriozko energia-gastuetarako" eman daitezkeen diru-kantitateak handitu ditzala, eta gutxieneko zenbatekoak ezar ditzala, indarrean dauden horniduren prezioarekin bat egon dadin."*

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla.

Aurkako botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, gehiengoz, **ez du onartu** EHBildu taldeak aurkeztu duen mozioa.

12. MOZIOA: MIGRAZIORAKO EUSKAL ITUN SOZIALA.

EAJ-PNV, EHBildu eta PSE-PSOE talde politikoak Migraziorako Euskal Itun Solidarioari atxikitzeko moziok honela dio:

"JASO NAHIKO GENUKEENA ESKAINTZEA"

Migrazioa ez da egoeraren araberako fenomeno, baizik eta munduan, Europan eta Euskadin gertatzen den egiturazko egoera bat. Erantzun egokia eskaintzea obligazioa da barne-zuzenbidean eta Europako zuzenbidean. Dimentsio arauemailea dauka. Etorrinek, asilo-eskatzailleek, Bidaiderik Gabeko Adingabe



eta Gazte Atzerritarrek, iragaitzazko migratzaileek edo zaugarritasun-egoeran daudenek eskubideak eta betebeharrak dituzte, eta eskubide eta betebeharrak horiek bermatu egin behar dira.

Etika demokratikoko dimentsioa ere badu; izan ere, definitu egiten du gizarteak elkartasunerako eta zibilizaziorako daukan gaitasuna. Babesgabetasun-egoeran dauden pertsonen erreakzio indibidual eta kolektiboak jartzen dira jokoan. Edo bakoitzak ahal duena egiten du, edo ondare komuna partekatzeak aukera sustatzen da. Etika unibertsalaren funtsezko premisetako bat da besteei ez egitea besteek geuri egiterik nahi ez duguna. Migrazioari dagokienez, jaso beharko genukeena eskaintzea da printzipio etiko nagusia, baldin eta gu ere antzeko egoera batean suertatuko bagina.

Dimentsio arauemaileaz eta etikoaz gain, migrazioen erronkari eman beharreko erantzunak aurrerabidearen alderdia ere jasotzen du, herrialderik aberatsenak migrazio fluxuak eta kultura aniztasuna modu egokian integratzen jakin izan dutenak dira.

Hala ere, migratzaileak mehatxu gisa aurkezten dituzten diskurtso indartsuak mundu osoan ari dira ugaritzen. Faltsutasunez, arrazismoz eta populismoz zamatutako aurreiritziek errendimendu alderdikoia lortu nahi dute, beldurraren bitartez. Horren ondorioetako bat da Europako eredia eta balioak zalantzan jartzen direla, ustekabeaz. Sintoma kezagarriak agertzen dira: kanpoko zein barruko mugak modu faktikoan berrezartzen dira; errefuxiatuen eta etorkinen giza eskubideen aitortpenak atzera egiten du; gorroto diskurtsoak; adierazpen politiko-instituzional argiko xenofobia agertzen da; eta ezin da migrazio-politika erkiderik eraiki.

Orain arte, Euskadik modu bateratu eta solidarioan erantzun izan die migrazioaren erronkak dituen agerpenei. Alabaina, populismo xenofoboaren mehatxua hortxe dago, eta bere burua egituratzeko eta demagogiaren bitartez barreiatzeko asmoa dauka. Migrazioarako Euskal Itun Sozialerako proposamen hau oztopoen eta aukeren testuinguru horretan dago kokatuta.

Bere helburuek proiektio etiko, prebentibo eta proaktiboak dute. Itun honen helburu etikoa erantzun solidario eta erantzulea sendotzea da, migratzaileen beharrezkoak dagokienez. Helburu prebentiboa, berriz, zeharkako batasun sozial eta politikoa eratzea da, xenofobiaren aitzakiarekin sortutako populismoen asmoak ezerezean uzteko. Eta helburu pragmatikoa da migrazioaren erronkari gure gizartearen hazkunde- eta aurrerabide- prozesuaren parte gisa heltzea.

ABIAPUNTUAK. Migrazioarako Euskal Itun Sozial hau sinatzen dugun pertsona, entitate eta erakundeek ondorengo abiapuntu hauek partekatzen ditugu.

A. Premisa politikoa: pluraltasuna. Dibertsitatea gure historiaren eta nortasun kolektiboaren funtsezko zatia da. Beste kultura eta jatorriez osatutako euskal



gizartea defendatzen dugu, kulturarteko pluraltasunaren balioekin konprometitutakoa eta herritartasun inklusiboa eraikitzen lagunduko duena.

B. Premisa Etikoa: Elkartasuna. *Migrazioaren erronka berriak interpelazio etikoak dira, eta horrek elkartasuna, diskriminazio eza eta etorkinen zein bertakoen eskubide eta obligazioak partekatu beharra eskatzen du, eta halaxe onartzen dugu, konpromiso partekatu gisa.*

C. Premisa pragmatikoa: beharizana . *Euskal gizarteak, familien babeserako politikez gain, immigrazioa behar du, lanaren eta demografiaren inguruko beharizanei erantzun ahal izateko. Euskadiren ondorengo hamarkadetako hazkundeari dagokionez, immigrazioa onerako izango da, eta guk aukera gisa helduko diogu gai horri.*

ZEHARKAKO AUKERAK. *Itun hau sinatzen dugunok geure egiten ditugu, gure gaitasun eta eskumenen neurrian, zeharkako aukera hauek:*

- I. Bizikidetzak.** *Barrera eta integrazioa babesten ditugu, bai eta elkartasunaren, aniztasunaren eta bizikidetzaren diskurtsoa ere. Arbuatu egiten ditugu beste kultura edo jatorrietako pertsonen aurkako aurreiritzietan eta estereotipoetan oinarritutako diskurtso estigmatizatzaileak.*
- II. Giza eskubideak.** *Oinarrizko eskubideen titulartasuna ahalik eta gehien zabaltzea sustatzen dugu, nazionalitatea edozein dela ere, tratu eta aukera berdintasunaren printzipioan oinarrituta, eta diskriminazio mota ororen aurrean.*
- III. Zeharkakotasuna.** *Euskal administrazioen sektore-politikan (enplegua, kultura, etxebizitza, gizarte zerbitzuak, segurtasuna....) migrazioak dakarren kultura-aniztasunaren begirada txertatzea.*
- IV. Kohesioa.** *Irrotasunez babesten dugu hezkuntzaren, osasunaren edota oinarrizko prestazio sozialen unibertsaltasuna, bai eta enplegurako eta etxebizitzarako trebakuntza eta integrazioa jasotzeko ildoak mantentzea ere, eskubideen eta betebeharren berdintasun-esparruan.*
- V. Hezkuntza.** *Heziketa-espazio inklusiboen eraketa sustatzen dugu, integrazioarako eta bizikidetzarako balio estrategiko gisa. Errealitate desberdinak partekatzea, ezagutzea eta estimatzea pedagogia erabakigarria da gure ikasleen gizarteratze prozesuan.*
- VI. Tokiko esparrua.** *Tokiko esparruaren garrantzia nabarmentzen dugu, eguneroko integrazio efektiborako agertoki estrategiko gisa. Bizikidetzak hobetzeko eta kohesio soziala areagotzeko lanean, udal ekintzak lehentasunezko balioa dauka, eta jardun hori babestu eta sustatu beharra dago.*
- VII. Berdintasuna.** *Genero-berdintasunarekiko konpromisoa partekatzen dugu, gure bizikidetzak eraikitzeko oinarrizko eta funtsezko printzipioa den aldetik; era berean, maila unibertsalean hedatzeko duen bokazioa ere partekatzen dugu, kultura eta erlijio guztiak kontuan hartuta. Konpromiso hori migrazio-politikan*



eta gizarte babeseko politiketan genero ikuspegia modu eraginkorrean sartzean gauzatzen da.

VIII.Hizkuntzak. Gizarte hartzaileko hizkuntzak ikastearen alde egiten dugu, migratzaileen integrazioarako eta egokitzapenerako funtsezko faktore gisa. Beharrezkotzat jotzen dugu elkarte-ehunaren zeregina indartzea, elkarrizketa eta lankidetzaren iraunkorreko mekanismoak ezarri, migratzaileen erakundeek harreraren eta integrazioan duten zeregina sustatuz. Beraz, horretarako behar diren bitartekoak ahalbidetu behar dira.

IX.Lankidetzaren Maila instituzional eta sozialen arteko lankidetzaren lehentasuna sustatzen dugu. Arlo honetan, beste ezein arlotan baino beharrezkoagoa da lankidetzaren. Elkartzen gaituena bateratzea, bereizten gaituenari aurre eginez.

KONPROMISO ZEHATZAK. Aurreko guztiaz, erabateko babesa ematen diogu konpromiso zehatz hauen garapeneri, dagozkien eskumen-esparruetan:

1. Erantzunkidetasuna. Beste eragile batzuekin lankidetzan aritzea, EB osoan erantzunkidetasunaren printzipioa sustatzeko. Horretarako, lankidetzaren leialdean aritu behar da estatuko eta Europako erakundeekin, eta eskatzen eta eskaintzen den konpromisoa islatzen duten proposamenak garatu behar dira.

2. Irnatasuna. Batasun sozial eta politikoari eustea; modu horretan, mezu xenofoboak erabiliz abantaila politiko edo elektorala lortu nahi den guztietan, gehiengo demokratikoaren pisua nabarmenduko da.

3. Immigrazio erregularizatua. Immigrazio erregularizatuaren aukerak areagotuko dituzten ildoak sustatzea, kontuan hartuta jatorrizko herrialdeetako errealitateak, migratzaileen migrazio-proiektuak, eta erronka demografikoak Europan planteatzen dituen beharrezkoak.

4. Asilo-eskatzzaileak eta errefuxiatuak. Nazioarteko babes-eskatzzaileen eta errefuxiatuen harrera eta integrazioa modu kuantitatiboan zein kualitatiboan hobetzeko ekintzak garatzea, Europan, estatuan eta Euskadin.

5. Zaurgarritasun-egoeran dauden migratzaileak. Behar diren baliabideak eskaintzea zaurgarritasun- egoeran dauden migratzaileei erantzun humanitario egokia emateko, arreta berezia jarri emakumeengan, adingabeengan eta giza eskubideen urraketen biktimengan.

6. Erregularizatu gabeko egoeran dauden migratzaileak. Behar diren baliabideak artikulatzea, iristen diren iragaitzako migratzaileei edo erregularizatutako dokumentaziorik gabekoei erantzun solidario eta humanitarioa eskaintzeko, modu horretan autonomia-prozesuen alde egiteko.

7. Bidaiderik Gabeko Adingabe Atzerritarrak (BGAA) eta Bidaiderik Gabeko Gazte Atzerritarrak (BGGA). Behar diren baliabideak edukitzea, legezko



betebeharrei, adingabearen interes gorenaren printzipioaren betearazpenari eta gazteak gizarteratzeko eta laneratzeko proiektuari erantzun partekatu, bidezko eta egokia eskaintzeko.

8. Esku-hartze humanitarioa. *Gure gaitasun instituzionalen neurrian, dei humanitarioei erantzutea, bai erakundeek egindakoei, bai bertatik bertara (Mediterraneo itsasoan, jatorrizko herrialdeetan edo iragaitzan) aritzen diren nazioarteko zein tokiko GKE-ek egindakoei.*

9. Prebentziozko esku-hartzea. *Lankidetzaproiektuak babestea edo garatzea, migratzaileen jatorrizko herrialdeetako pobreziaren, bidegabekeriaren eta desberdintasunen zergatiak eraldatzeko, eta herrialde horietako giza kapitala eta indarguneak sendotzeko.*

10. Bizikidetzaren kultura. *Bizikidetzaren kultura partekatzea, elkartasunean, erantzunkidetasunean eta pluraltasunaren, giza eskubideen eta berdintasunaren defentsan oinarrituta, eta edozein arrazismo edota bazterketa arbuaiatuta."*

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du Migraziorako Euskal Itun sozialari atxikitzeko mozioa.

13. ZINEGOTZI BATEN KARGU UZTEAREN JAKITUN IZATEA.

EUSKAL HERRIA BILDU (EHBILDU) taldearen zinegotzia den Olatz Artola Apeztegiak karguari uko egin dio dagokion idazkia aurkeztuz. Egoera hau aztertu ondoren, eta Hauteskunde-Eraentza Orokorra arautzen duen Lege Organikoaren 182. Atalean xedaturikoa kontutan harturik, Udalbatzak, aho batez, honako hau

ERABAKI DU

Lehen.- Jakinaren gainean geratzea EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU) taldeko Olatz Artola Apeztegiak zinegotzi karguari uko egin diola.



Bigarren.- Hauteskunde Batzorde Zentralari eskatzea EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU) taldeari dagokion hautagaiari zinegotzi kargua eman diezaiola.

Hirugarren.- Hauteskunde Batzorde Zentralari erabaki honen berri ematea.

14. GALDERAK ETA ESKAERAK.

Besterik gabe, 21:00etan, bilera bukatutzat eman dute, eta nik, idazkari akzidentala naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut, alkateak ontzat emanda.

ALKATEA
O. e.

IDAZKARI AKZIDENTALA



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2021IPLE0009-2021-10-28 Ohiko osoko bilkura/2021-10-28 Ohiko osoko